



ANDONI ARANDO

Ezin izan dute ametsa bete

Ford Mugarrik ez du eskuratu Lehenengo Nazional mailarako txartela | 22

Eskoriatzako plaza txiki geratu zen Debagoieneko Trikitixa Egunean | 30



Atxorrotz Egun borobila, antzezan erreal eta guzti | 29



Bana berdindu dute Aloña Mendik eta Bergarak derbian | 24



GAUZA HARRIGARRIAK GERTATU DIRA ELGETAN

Zapatu gaueko galarekin goia jo du VIII. Magia Mostrak; Mago Miguek irabazi du aurtengo publikoaren saria

Kaleko ikuskizunek ere ase dituzte herritar eta bisitarien aurreikuspenak, nahiz eta zapatukoa barrura tokialdatu behar izan zuten, euriaren eraginez. | JULIO CALLEJA

Laikoez gero eta toki handiagoa izan dezaten nahi dute frantziskotarrek

Arantzazuko fraideek laikoekin eraiki nahi dute etorkizuna, garaiekin bat eginez. Arantzazu buru den probintzian 600 fraide izatera ailegatu ziren garai baten, baina 240 dira egun, eta sei komentu ixtea erabaki dute. Meza egiteko modu berriak topatzeko beharraz ere mintzo dira. | 2

Carlos Ormazabal Ingurumen diputatu ohiak hitzaldia egingo du Bergaran

Zaborraren kudeaketaz hitz egingo du etzi; Iñigo Iñurrategiren txanda izango da barikuan | 16

Doako TAO sistema ezarriko dute Arrasaten; unibertsitate inguruan egingo dute proba | 14

%15 eko
deskontua



► Zoaz 21. orrialdera.

Arantzazuko fraideek laikoekin eraiki nahi dute etorkizuna

- ▶ Arantzazu buru den probintziako sei komentu ixtea erabaki dute frantziskotarrek
- ▶ Arantzazuko komentuan 26 fraide bizi dira
- ▶ Laikoek gero eta toki handiagoa izan dezaten nahi dute Oñatiko fraideek, garaiekin bat eginez

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Eliza Katolikoak bere urrezko aroa bizi zuen oraindik 50eko hamarkadan, eta Arantzazuko frantziskotar anaiaien egoeran ondo islatzen zen hori. Orduan eraiki zen basilika berria, eta ordukoak dira Oñatiko gazteek egiten zituzten gurtza-igoerak, mutilek gauzez, askok ortozik, eta neskek egunez. Jendetza igotzen zen oinez Arantzazuraino, Ama Birjina gurtzera, eta hango basilika txiki geratzen zen. Pello Zabala frantziskotarrak gogoratzen ditu garai haiek: "Jesarrita, 1.400 bat lagunendako lekua dago elizan; 2.000 lagun ondo kabituko dira. Sasoi hartan, jendea zutik-eta egoten zen, asko sartu ezinda ere". Egun seinalatueta Arantzazuko Amaren egunean eta beste jai handi batzuetan ere jendetza igotzen zen, Oñatitik eta Gipuzkoa osotik. Basilika handia, gaur egun oso gutxitan betetzen dena ikusita, Pello Zabalarik galdetzen diote ea eliza handi hori inoiz betetzen zen. "Beteko ez zen, bada? 7.000 lagun etortzen ziren batzuetan", gogoratzen du berak.

Bokazioak ere bor-bor zeuden urte haietan: Zabala bera, eta gaur egungo frantziskotar gehienak, 10 urte ingururekin etorri ziren Arantzazura fraide izateko nahiarekin. Seminario erraldoia orain 10 urte eraitsi zutena, Gandiaga Topagunea egiteko egiten zuteneko urteak dira, etorkizuneko fraide haiek guztiak hezteko. Basilikako goialdean, koruan, batzen ziren fraideak eta mutikoak. "Ikusgarria izaten zen. Goiko jesarlekuetan fraideak egoten ziren; behean, kanturako

ESANAK

"Meza egiteko modu berriak topatu beharko ditugu"

"Krisiak berak erakusten digu zerbait berria topatu beharra"

PELLO ZABALA | FRANTZISKOTARRA

DATUAK

200

FRAIDE

Arantzazuren urte oparoetan, 50eko hamarkadan, 200 bat anaia bizi izan ziren; gaur egun, 26 dira.

22

KOMENTU

Arantzazuko probintzian 22 komentu daude, eta 240 fraide bizi dira horietan; garai baten, 600 izatera ailegatu ziren.

mutikoak; eta kantore ez zirenak, goi-goian. Orduan, 50eko hamarkadako inguru hartan, ia 200 anaia baziren. Teologoak zeuden, 50 bat; fraideak, seminarioko irakasleak eta beste. Gero, mutikoak; gure garaian, 150 ginen; 300 ere izan ginen, eta korua bete egiten genuen", esaten du Pello Zabalak.

Erabaki gogorra

Orditik, aldaketa eta gogoeta sakona bizi izan ditu elizak eta Arantzazuko komunitateak, jendartearen ohiturak ere aldatzen joan diren neurrian. Esperotako bokazio haiek guztiak ez ziren ailegatu, eta gaur egun, 26 fraidek eusten diote frantziskotarren 500 urtetik gorako historiari Arantzazun.

Orain, komentu batzuk ixten hastea ere tokatu zaie fraideei. Izan ere, Arantzazu hainbat komentu batzen dituen probintziaren burua da; Arantzazuren probintziak 22 komentu hartzen ditu, Euskal Herrian, Gaztelan, Kantabrian, Madrilen, Kuban, Paraguayan... leku askotan. Etxe horietako batzuetan nahi adina fraide ez, eta haiek ixtea erabaki zuten Pazko astean probintziako ordezkariak egin zuten kapituluan edo bileran. Jose Mari Arregi oñatiarra da Arantzazuko probintzialaren, goi-arburadunaren ondokoa, eta hark azaltzen digu erabaki "inportantea" dela: "Garai baten 600 fraide ginen probintzian, orain 240 gara eta lehen beste etxe ditugu; denetara ez gara ailegaten. Sei urtean sei etxe itxiko ditugu eta izendatuta daude".



FOTO ZAHARRAK Arantzazuren garai askotako argazkiak dituzte klaustroan. Deigarriak dira 50eko hamarkadan gazte oñatiarrek egiten zituzten gurtza-ibilaldienak.



JANGELA HANDIA Urte askoan, argazkikoa izan zen fraideen jangela; oso handia, iluna eta itxura dotorekoa, pulpituarekin eta gutzi. Orain dela gutxi, erakusketa egin zuten bertan. Orduko margolan erraldoiak hantxe dituzte oraindik.

Erabaki "gogorra" da: "Fraide askok bizi osoa eman dute etxe baten, batzuek 80 urte badiutuzte, eta adin horrekin lekuz aldatzea, ohiturak aldatzea, lagun berriak egitea... oso zaila da. Prozesu hau egin nahi dugu inori min egin gabe, eta elkar babestuz", gaineratzen du.

Ohiturak aldatu beharra

Arantzazuko frantziskotarrek badute ospe bat: aurrerakoiak eta adore handikoak izatearen ospea. Hala izan ziren, esaterako, Arantzazu berriaren proiektu polemikoa, abangoardista, Elizako buruzagien iritzia kontrariatu eta aurrera eroan zutenean. Eta oraingoan ere, aurrera begira jarri dira eta etorkizuneko gakoak izan daitezkeenak aipatzen dituzte: garrantzitsuenen artean, jendarte laikoari leku handiago ematea eta gauzak egiteko modu berriak, garaiei egokitutakoak.

Frantziskotarren komunitateari "osasun ona" ikusten dio Jose Mari Arregik: "Egin beharrekoak egiteko iristen gara, 26 gara, eta batzuk gaixorik daude, baina beste asko oraindik indarrean gaude. Arantzazuri nik gerokoa ikusten diot, bai. Bestalde, galdera hor dago: hementik 15 urtera nola egongo da? Oraindik urte batzuk ditugu hori pentsatzeko, ze errefortzu ekarri, nondik... eta batez ere, laikoiei bere tokia eman behar diegu. Meza egoki bat egiteko, nahikoa da fraide bat edo bi, eta gainerakoak laikoak izan daitezke".

Iritzi berekoa da Pello Zabala: "Bilkura nagusia domekan egin behar da, familiak konpro-


miso guztiak aste bukaeran dauzkanean? Meza aste barruan egin beharko da, edo meza egiteko beste modu batzuk topatu", esaten du Pello Zabalak. Eta honakoa gaineratzen du: "Krisiak berak erakusten du zer edo zer berria topatu behar dela, garaiei dago-kiena".

Familia giroan

Arantzazuko eraikinak oso handiak dira; handiegia, gaur egun han bizi diren 26 anaiendako. Espazio handiak alde batera utzita, logelak dituzten bi solairuetan egiten dute eguneroko bizitza; pasillo edo transitu luzeak zeharkatzen dituzte solairu horiek, eta logelak, gaixoendako egongela goxoa eta kaperatxoak dituzte han bertan. Gaixoen egongela ematen dute denbora luzea, eta mezetara laguntzen dituzte gero. Egongela hori logelen solairu berean dago, "gaixoengandik gertu egoteko", diote frantziskotarrek.

Eta harritu egiten du oraindik, bere tamaina handiagatik eta itxura dotoreagatik, garai bateko jangelak. 180 fraide zirenean, hantxe bazkaltzen zuten, isil-isilik, batek ozen irakurtzen zuen bitartean. Jaiegunetan bakarrik ematen zuen anaia nagusiak berba edo zarata egiteko baimena -jai egiten ere bazekiten fraideek; hala, jaiegun handietan, "ea bertso onena zeinek bota" ere ibiltzen zirela gogoratzen du Pello Zabala. Gaur egun, ordea, beste jangela txikiago, goxoago baten batzen dira eguneroko frantziskotarrak.

Horrek guztiak bere alde onak ere baditu: bizimodu goxoagoa dute, familia girokoa.



KORUA Eliza betetzen zen garaietan, korua, goialdea ere beteta egoten zen: fraideak, teologoak, koruko mutikoak... Azken horiek bakarrik 300 izatera ailegatu ziren.



JANGELA TXIKIA Lau mahairen inguruan batzen dira fraideak otordueterako. Gonbidatuak dituztenerako mahai gehiago dituzte. Bista ederrak dituzte.



JOSE MARI ARREGI
FRANTZISKOTARRA

"Arantzazuk badu jendea erakartzeko gaitasuna; urte osoan dator"

Arantzazuko Probintziako goi-arduradunaren ondokoa da Jose Mari Arregi.

Komentuak ixteko zuen erabakiak kezka piztu du.

Bai. Gure erabakia da gure probintziako etxe batzuk ixtea, baina Arantzazu, ez; lehentasuna du, bere historiagatik, tradizioagatik eta eskaintza handiagatik: natura, kultura...

Arantzazuren etorkizuna ziurtatuta dagoela dirudi.


Bai. Gure orain 10 urteko arduraren zen ea ze lortuko genuen horrelako eraikin berriekin, gastuarekin... Gure ustez, jende asko gehitu da Arantzazura, eta urte osoan etortzen da, gainera. Jendea erakartzeko gaitasun bat badu Arantzazuk. Zubian ere, jende asko ibili da.

Kapitulua egin zenuten Pazkoan. Une berezia da, ezta?


Bai, bokazioa bizi izateko unea ere badelako. Bokazioa ez da programazio hotz bat; da norberak bere fedea sendotzea, bizitzea, eskaintzea eta eskatzea. Kapituluko momentu inportantea da, kaperan batzen garenean, eskerrak ematea, hainbeste dohain, hainbeste anaia etorri izanagatik. Gure bizitza apalarekin Elizari zerbitzua ematen diogu.



GAIXOAK Egongelatxoan ematen dute denbora gaixorik dauden fraideek, argazkian daudenek bezala. Telebista ikusten dute eta goiza pasatzen dute, baina errezatzeko eta otordueterako beste fraideekin batzen dira.



PASILLOA Fraideek logelak dituzten bi solairuen egitura nagusia pasillo edo transitu luzeak dira; alde bietara, gelak eta, mutur baten, egongela antzeko bat, jesarlekuekin, eta gaixoendako egongela daude.



TXOKO ARGITSUA Telebista-gelara sartu aurretik, argazkiko egongelatxoa dute prestatuta, atari antzera. Fraideen bizileku diren bi solairuak modu goxoan eta argitsuan prestatu dituzte.



KAPERA Kaperaren horrek esanahi handia du frantziskotarren bizitzan; hiru edo lau aldiz batzen dira han, modu erosoan eta goxoan errezatzeko, kantatzeko...

BIARK STUDIO arkitektoak

Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera tekniko desberdinen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisia, obra zuzendaritza...

Komunitateak



Fatxaden isolamendua



Erreformatzak



Igogailuak



Etxebizitzak



Lokalak



Baserriak

Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe

www.biark.net

Usaetxe plaza 1, behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 - e-maila: biark@arquired.es

Langabeziak behera egin du apirilean Debagoienez

- ▶ Lanik gabeko 3.344 pertsona zenbatu dituzte
- ▶ Leintz Gatzagak du tasarik baxuena ibarrean

U. AGIRRE/G. ARANA | ARRASATE

Azken bi urteotako langabezia daturik txarrena izan zen martxokoa eta apirilean, gutxi bada ere, jaitsi egin da langabezia tasa, Espainiako Gobernuako Enplegu Ministerioak egubakoitzean emandako informazioaren arabera. 3.344 langabe zeuden apirilean

Debagoienez, %10,79. Leintz Gatzaga da ibarrean tasa baxuena duen herria: %5,26 daude langabezia; gainontzeko herrietan %8,27 eta 11,96 artean dabilta.

Debagoieneko kopuru osoak behera egin duen arren, ordea, -3.370 langabe zeuden martxoan;

eta 26 gutxiago, apirilean- beheranzko joera hori ez da herri guztietan eman: azken hilean langabezia jaitsi egin da Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatin; aldiz, igo egin da Elgeta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagan. Edozein kasutan, azken herri horrek jarraitzen du izaten

HERRIRIK HERRI

HERRIA	LANGABEAK	TASA
Antzuola	94	%10,33
Aretxabaleta	309	%9,58
Arrasate	1.384	%11,96
Bergara	821	%11,44
Elgeta	53	%10,77
Eskoriatza	229	%11,01
Leintz Gatzaga	7	%5,26
Oñati	447	%8,27
GUZTIRA	3.344	%10,79

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

langabezia tasarik baxueneko herria Debagoienez.

Ibarreko apirilako datua aurreko urteetakoekin alderatuz gero, ordea, esan beharra dago 2010 eta 2011 urteetan aurtengoan

baino hobe geundela: duela urtebete, 3.175 langabe zeuden; eta bi urte atzera, 3.252.

Hego Euskal Herrian ere behera Hego Euskal Herrian, azken hila-beteetan langabeziak gora egin ondoren, apirilean pixka bat behera egin zuen. Hain zuzen, aurreko hilaren bukaeran, martxoarekin alderatuta, 669 lagun gutxiago zeuden lanik barik. Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan behera egin zuen langabezia, Bizkaian gora.

Orotara, 212.801 pertsona daude langabezia Hegoaldean; iazko apirilaren amaieran baino 18.328 gehiago. Araban, apiril bukaeran, 25.074 langabe zeuden (martxotik -193, iaztik +2.284); Bizkaian, 91.436 (+381, +9.441); Gipuzkoan, 45.386 (-210, +3.701); eta Nafarroan, 50.905 (-647, +2.902).

Ndank Ndank Bergarako Senegaleko lagunen elkarteak aurkeztu zuten barikuan

Aurkezpenean, Senegaleko hezkuntza eta osasun arazoak berri eman zuten



Mamadou Sarr eta Eli Dominguez elkartearen kideak, egubakoitzeko ekitaldian. | JULIO CALLEJA

ANDER MONEDERO | BERGARA

Senegaleko egoeraz arduratuta, Bergaran bizi den senegaldar talde batek eta zenbait herritarrek Ndank Ndank elkarteak sortu dute. Egubakoitz arratsaldean egin zuten aurkezpenean Irizar jauregian, herritar denek elkartearen berri izan dezaten.

Aurkezpenean, elkartearen presidentea Mamadou Sarr eta Eli Dominguez presidenteordeak elkarteak dituen hiru helburu edo lanildoak azaldu zituzten: Bergaran kulturartekotasuna bultzatzea, Senegalen lankidetzaren proiektuak garatzen laguntzea eta senegaldarrek dituzten hezkuntza eta osasun arazoak ezaugaritzea.

Egubakoitzeko aurkezpenean ekitaldian Abdoulay Gueye elkartearen kideak Senegaleko hezkuntza eta osasun sistemen berri eman zuten. Senegaleko herri

askok oso egoera latza bizi dutela azaldu zuen Gueyek: 50.000 biztanleko, sendagile bat dagoe la esan zuen, adibidez.

Bazkide bila

Ndank Ndank esaldiak pausoz pauso edo poliki poliki esan nahi du eta gisa horretan dabilta Bergaran sortutako elkartearen kideak. Egun, 20 lagun inguruk dihardute elkartearen eta beraien helburua da bazkide gehiago egitea. Urtean, bazkideek 20 euroko kuota ordaindu beharko dute eta elkartearen antolatzen dituen ekintzetan parte hartzea ere eskatzen da.

Elkartearen ezagutarazteko asmoz, maiatzaren erdialdean Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan ospatuko den Mundumira jaialdian izango dira, eta uztailaren Bergaran jai senegaldarra ere egingo dute.

14 urteko kartzela zigor eskaera Domingorentzat

lazko martxoan, Bergaran, pisukidea hil eta leihotik bota izana leporatzen diote

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Gipuzkoako fiskaltzak egin du eskaera: 14 urteko kartzela zigorra Domingo portugaldarrentzat, iazko urteko martxoan Miguel E.R. *Mallorca* pisukidea "hil eta gorpua leihotik Deba ibaira Jaurtitzegatik". Bergaran, San Antonio kaleko zortzigarren zenbakiko hirugarren solairuan bizi ziren, Caritasek utzitako etxebizitza batean. Kartzela zigorrak gain *Mallorca*-ren gurasoei ordaindu beharreko kalte-ordaina ere eskatu du Gipuzkoako fiskaltzak: 70.000 euro.

Hildakoak eta ustezko hiltzaileak hiru hilabete zeramatzaten batera bizitzen, baina Domingo 2006tik bizi zen San Antonioko etxean. Hilketa gertatu zenean,

biak bakarrik bizi ziren etxean. Labankadaz hil zuten *Mallorca* martxoaren 12an, 20:00ak inguruan, baina ilundu arte itxaron zuen ustezko hiltzaileak gorpua errekaratzea. Hurrengo goizean, etxea garbitu ostean, alde egin zuen ustezko hiltzaileak Bergararik. Ertzaintzak Irunen atxilotu zuen Domingo, martxoaren 15ean. Muga inguruan harri-patu eta atxilotu zuten, Santiagoko zubi inguruan eta, ondoren, Martuteneko kartzelan sartu.

Herri epaimahaia

Oraindik ez dute epaiketa egiteko datarik jarri, baina dagoeneko jakin dena da herri epaimahaia epaituko duela ustezko hiltzailea.

'Hizkimizki.com' webgunea aurkeztu du Topaguneak

Euskaratik eta euskaraz sortua, "Euskal Herriaren enbaxadorea" izango da munduan

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Zapatuan egin zuen aurkezpenean Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Kutxa-Ekogunean. Orotara, 43 hizkuntza biltzen ditu eta, euren arteko konbinazioak eginez, 1.806 oinarritzko hiztegi sortu. Horieta hizkuntza asko lehen aldiz jarri dira euren artean harremanetan: katalana-errumaniera, alemana-quechua eta fula-islandiera, esaterako.

Funtzionamendua

Webgunearen funtzionamendua argia da: erabiltzaileak nahi dituen bi hizkuntza hautatu eta, une horretan, hizkuntza horien arteko oinarritzko hiztegi sortzen du datu baseak:

maketatuta ematen du, Din A4 batean inprimatu, tolestu eta poltsikoan sartzeko prest. Komunikatzeko beharrezkoak diren oinarritzko nozioak biltzen ditu eta, esaldi horien artean, euskarari eta Euskal Herriari erreferentzia egiten dioten esaldiak ere bai, 43 hizkuntzetan; hori horrela, Hizkimizki "Euskal Herriaren enbaxadorea" izango dela esan daitekeela diote bultzatzaileek.

'Auzoko' egitasmoa

Hizkimizki.com webgunea Topagunearen *Auzoko* egitasmoaren baitan sortu da. Proiektua euskaratik urrun bizi diren herritarrek euskarara hurbiltzeko asmoa duen ekimena da.

Lanbide Heziketak Miguel Lazpiurren ibilbidea saritu du

G.A. | ARRASATE

Euskadiko Lanbide Heziketak zentro publikoek lehen aldiz banatu dituzte aurretik Ikaflan saria, eta Gipuzkoako (Ikaflan Gipuzkoa saria) Bergarako enpresariari eman diote. Lazpiur Confebask-eko presidentea ohia eta Bergarako Jose Lazpiur enpresa taldeko gerentea da. 100 pertsona baino gehiagok dihardute bertan lanean eta %90ek baino gehiagok Lanbide Heziketa ikasketak dituzte.

Lanbide Heziketa bultzatzen eta hobetzen laguntzen duten pertsonak saritzea dute sariok helburu eta egunean egin zuten horiek banatzeko ekitaldian Gasteizen. Lazpiurren Inazio Larrañaga bergararren -Euskadiko Lanbide Heziketa elkartearen ordezkari goren- eskutik jaso zuen saria.

Karmelo Arregi | Egiari zor fundazioko kidea

"Estatuen errepresioa jasan dutenen memoriarekiko errespetua nahi dugu"

- ▶ Estatuen errepresioaren ondorioz hildakoen senideek osatzen dute taldea
- ▶ Hildakoei eta kaltetuei errepresaliatu izaera onar diezaieten nahi dute

A.A./M.B. | ARRASATE

Susana Arregi zenaren anaia ere bada Karmelo Arregi. Susana Arregi eta Jon Lizarralde ETako kideak hilda azaldu ziren Iruberrin 1990eko ekainean eta German Rubenach zaurituta agertu zen. Hark kontatu zion, bada, Guardia Zibilak atxilotu, torturatu eta hil zituela.

Zer da, nortzuk zarete Egiari zor?

Estatuen estrategia errepresiboaren ondorioz asesinatutako eta hildako pertsonen senitartekoez zein testuinguru horretan zauritutako eta torturatutako pertsonen osatzen dugu Egiari zor. Sustrai sakoneko gatazka politiko bat dago bertan, Espainiako eta Frantziako estatuen inposizio eta biolentziaren bidez sustatu izan dena. Kontuan izan behar da azkeneko 50 urteotan gatazkaekin lotuta sektore sozial, lan arloko eta herrikoi zabalen aurka bideratutako errepresio sufimendu sorburu ukalezina izan dela. Gainera, bost hamarkadetan gatazka armatua ere izan da. Eta horrek ehunka pertsona hiltzea eta milaka zauritu, torturatu, espetxeratu eta mehatxatu izatea eragin du. Eskubide indibidualak ez ezik, uste dugu eskubide kolektibo eta politikoak ere nabarmen kaltetu direla. Eta estatuek eskubideak urratzeko eta haien sistema inposatzeko estrategia errepresiboak erabili baino ez dituzte egin, une oro gatazken oinarri politikoa ukatuz eta haren ondorioak ixilaraziz.

Zergatik sortu da orain?

Bizi dugun egoera historiko honetan erabat beharrezkoa ikusten genuen gure ahotsa ere entzunaraztea eta hainbat azalpen ematea.

Gainera, oraindik konpontzeaz dagoen gatazkari bidezko konponbidea emateko erabateko konpromisoa dugula ere adierazten dugu.

Zer da aldarrikatzen duzuen?

Estatuen errepresioaren eta gatazkaren ondorioz hil diren, zauriak jasan dituzten edo torturatutako izan diren pertsona guztien oroimena eta duintasuna aldarrikatu nahi dugu. Borroka armatuaren eraginez senitarteko bat galdu dutenen sufrimendua ulertzen dugun bezala, haien sufrimendurekiko sentibilitate beretik, gurekiko eta estatuen errepresioa jasan dutenen memoriarekiko errespetua eskatzen dugu. Tratuari dagokionez, ezin dira biktimak bereizi eskubide urraketa egileen edo momentu historikoaren arabera. Urraketa bera bada, bai onarpenak bai ordainak berak izan behar dute. Gatazkaren ondorioz hildako pertsona guztion arteko homologazioa eta parekotasuna ere ez datoz bat gure ikuspegiarekin.

Horren aurrean zer eskatzen duzue?

"Ezin dira biktimak bereizi eskubide urraketa egileen arabera"

"Hildako eta kaltetu guztiendako errepresaliatu izaera exijituko dugu"

Giza eskubideen bortxaketa larriak jasan dituztenez, hildako pertsona guztien memoriaren tzat eta kaltetu guztientzat errepresaliatu izaera onartzea exijituko dugu, baita maila instituzionalean eta sozialean erabateko onarpena ere bai. Aldi berean, estatuek, erakundeek eta alderdi politiko gehienek onartu eta nork bere gain hartu beharko dute giza eskubideen urraketa izan duten ardura; esaterako, gerra zikinean, torturan, poliziaren biolentzian, deportazioan, espetxe politikan eta abarretan. Hori egiten ez duten bitartean, gure egitekoa izango da etengabe gogoraraztea.

Zuen jardueraren helburuak, hortaz, errespetua, egia osoa lortzea eta ezagutza eta ordaina dira.

Bai, eta fundazioak saioa egingo du jasan dugun errealitatea ezagutarazteko eta partekatzeke, beti ere konponbide gakoan jarrita. Euskal Herrian abiatutako prozesuaren fase eta epe bakoitzean helburu zehatzak bilatuko ditugu eta lortzea espero dugu. Eta helburu hori lortzeko, etengabe eragile politiko, sindikal eta sozialengana, erakundeengana eta komunikabideengana joko dugu. Garbi daukagu ez dugula onartuko errealitatearen geure kontaketa kontuan ez hartzea.

Egiaren bilaketarako Egiaren batzordea oinarritzko tresnatzat duzue.

Bai eta eraginkorra izateko batzorde independente gisa osatu beharko da, Euskal Herri osoa erreferentziatzat hartuta, eta matxina militar frankistaren garaitik gertatutakoa hartu beharko du kontuan. Gainera, konponbiderako justizia eta nazioarteko legediak giza eskubideen arloan jasotzen dituen irizpideak izango ditu oinarri.

Ordaina erabatekoa izan daiteke?

Ez, ezerk ez dizkigulako hildako gure senideak itzuliko. Dena den, nazioarteko legediak arlo sozialean, instituzionalean eta ekonomikoan jasotzen dituen ordain arauak eta sistemak betetzea exijituko dugu. Justiziari dagokionez, ez dugu Espainiako eta Frantziako epaitegietan sinesten eta ez dugu haiengandik ezer espero; haien mespretxua nabarmena izan da urte luze hauetan. Gure senitartekoen heriotza eta gure eskubideen urraketa eragin eta ezarri zuen justizia hutsalak ez ditu orain gure eskubideak bermatuko. Dena dela, ikertzearen eta dagokien erakundearen aurrean salaketa aurkeztearen bidea bultzatuko dugu, gertaera ilunak edo suizidio faltsuak argitzeko edo desagertutakoak aurkitzeko eraginkorrak diren heinean. Ahalik eta esfortzu handiena egingo dugu egia osoa ezagutzeko.

Bidegik tuneletan segurtasuna bermatzeko kanpaina abiarazi du

M.B. | ARRASATE

Bidegik 15.961 metro tunel kudeatzen ditu gaur egun eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 9.849 (200 metrotik gorako tunelak kontuan hartuta). Tunel horien eraikuntzaz eta mantenuaz arduratzeaz gain, tunel horietako segurtasunaz ere arduratzen dira Aldundia eta Bidegi. Horretarako, hainbat tresna erabiltzen dituzte; abiarazi berri duten kanpaina, esaterako. Hain justu ere, erabiltzaileen jardueraren ikusita, eta kontuan hartuta Europako araudiaren arabera gidariei informazioa eman behar zaiela, Bidegik kanpaina abiatzea erabaki du. Horretarako, eskuorriak eta pega-

tinak atera dituzte. Eskuorrian zehatz azaltzen zaie gidariei tunel batean istripua edo matxura izanez gero nola jokatu behar duten.

Pegatinek ere helburu bera dute, baina kasu horretan autoan bertan jartzeko dira, begi bistan, larrialdi kasu batean nola jokatu behar den era errazean ikusi ahal izateko. Bi euskarrietan bai istripu edo matxura kasuetan bai sute kasuetan nola jokatu erakusten zaie erabiltzaileei, askotan zer egin ez dakitela ohartu baikkara. Guztira 70.000 eskuorri eta pegatina kaleratu dira, eta ordainleketan eta hainbat udal eraikinetan banatuko dira.



Goiko pegatina hori banatuko dute autoan jartzeko. | GOIENA

Mundumirako elastiko solidariora salgai jarri dute dagoeneko

24 euro balio dute eta batutako diru guztia Debagoieneko hiru GKErendako izango da

M.B. | ARRASATE

Mundumira jaialdiko antolakuntzak eta Ternuak diseinatutako kamiseta solidario berria salgai dago. Lortutako diru guztia eskualdeko hiru Gobernu Kanpoko Erakundeek mar txan dituzten proiektuak bultzatzeko erabiliko da.

Hain justu ere, Arrasateko Amsogra taldearen Nikaraguako Mozonteko V. sektoreko choroteka indigenen herrialdearendako etxebizitza duinak eta osasungarriak eraikitzeko duen proiekturako; Arrasateko AMS taldearen Nikaraguako Carazoko Diriambako gazteen integrazioa bultzatzeko eta irisgarritasun lanetarako duen proiekturako; eta Oñatiko 7 Udaberri taldeak Guatemalan gizartearen eraldaketaren alde eta emakume indigenen norbanakoen zein taldeen eskubideen babesaren alde lan egiten duten emakume taldeei laguntzeko.

Ohiko dendetan dago salgai

Mundumirako aurtengo kamiseta toki hauetan dago salgai: Antzuolan, Izar liburu-dendan; Aretxabaletan, Asensio arropadendan; Arrasaten, Harre-



man dendan (Eroskin dagoena); Bergaran, Lazkano Kirokaldan; Eskoriatzan, Hotel Azkoaganean; Leintz Gatzagan, Turismo Bulegoan; Oñatin, Juanitosan eta Turismo Bulegoan.

Mundumira jaialdiko telefonora deituta ere eskura daiteke: 902 18 14 71. Baita honako helbidean ere: www.mundumirafesta.com. Salneurria 24 euro da.

Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan izango da aurtengo Mundumira, hilaren 18tik 20ra.



Karmelo Zubia. | MONIKA BELASTEGI

Idoia Urrutibeaskoa | Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea

"Debagoienez asko ikertzen da, eta kalean ere horretaz hitz egiten da"

- ▶ Materialen Zientzia eta Teknologiaren Kongresua arrakastaz bukatu da
- ▶ Urrutibeaskoa antolatzaileak dioenez, "une berezia" bizi du arlo horrek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko zenbait irakasle antolatuta, Materialen Zientzia eta Teknologiaren I. Kongresua egin dute maiatzaren 3an eta 4an Garaian; lehengo aldiz egin da halako kongresu bat euskaraz. Idoia Urrutibeaskoa izan da antolatzaileetako bat.

Zelatan bururatu zitzaizuen kongresu hori antolatzea?

Behin, beste kongresu baten, Espainian, elkartu ginen euskaldun pare bat eta, gure ikasleak euren hitzaldiak egiten entzun ondoren, irten ginenean, CEITEko ikertzaile Joxe Mari Rodriguez-Itabarekin komentatu nuen gure ikasleek hobeto egiten zutela euskaraz, gaztelaniaren baino. Hortik sortu zen ideia. Urte bat edo bi pasa dira baina, azkenean, lortu dugu antolatzea.


Euskaraz halako ezer ez da lehengo egin?

Kongresu formal gisa, ez. Orain 11 bat urte, Udako Euskal Unibertsitatean, euskal fisikarien topagune bat izan zen, baina barrurako izan zen, batik bat.

Eta zuen kongresuak arrakasta izan du...

Bai, guk uste baino arrakasta handiagoa. Espero genuen 20-30 bat lagun batzea, eta harrituta geratu ginen, non lehengo deialdia zabaldu zenean 53 lan ailegatu ziren.

Zientziak eta teknologiaz gabiltzanean, beti gaztelaniaren terminologia etortzen zaigu burura, baina euskaraz hezitako profesionalak badaude, ezta?



Idoia Urrutibeaskoa, MUko bere lantokian. | LEIRE KORTABARRIA

"20 lagun batzea espero genuen, eta lehen deialdian 53 aurkeztu ziren"

Bai, horixe, eta egin daiteke euskaraz lan. Izan ere, zenbait ikerkuntza-taldetan, euskaraz hitz egiten dugu gehienbat. Hiztegiarekin beti dago zailtasuna, baina gaztelaniarekin ere gertatzen

"Zenbait ikerkuntza taldetan, euskaraz egiten dugu gehienbat"

zaigu; askotan ingelesera jotzen dugu. Agian euskararen egoera zailagoa da, modu formalean hitz egiteko ohitura ez duelako jende gehienak. Hala, kongresuaren beste helburu bat izan da hiztegi

tekniko bat finkatzen hasia, denok ados ipinita.

Materialen gainean ikertzeak ze garrantzi dauka?

Handia. Gure industriaren zati handi bat gauzak fabrikatzea da: EAEko industria-lanpostuen %28 fabrikaziokoak dira. Bada, fabrikazioaren oinarria materialak dira. Dena dago materialekin lotuta: adibidez, mahai bat erabiliko den lanerako eta helburuak betetzeko egokia izan dadin, edo forma jakin bat izan dezan... materialekin egin behar da lan.

Nolakoa dator etorkizuna?

Oso momentu berezian gaude, eta nik uste dut material berriak agertzen joango direla, orain artekoak ordezkatzeko. Elektronikan, 50-60 bat urtean, silizioaren garaia bizi izan dugu, baina orain beste material batzuk aztertzen dabilta. Bestalde, elektronika minimizatze materialak asko garatu dira: adibidez, telefonoak, txikiak eta arinak izan daitezkeen baina, era berean, prestazioak izan ditzaten. Edo medikuntzan, orain arte, hezurak apurtzen zirenean, titaniozko iltzak sartzen ziren, eta handik hilabeteetara berriz ireki behar zen, iltzak ateratzeko; orain, pixkana-pixkana desagertuko diren materialak ikertzen gabilta.

Debagoienez ikertzen da?

Bai, horixe. Hemen dugu unibertsitate bat, eta zenbait zentro ere bai: Ikerlan zentroa eta enpresen ikerkuntza zentroak -Edertek, Stirling... Gainera, bisitan etortzen zaizkigunak esan izan digute ikerkuntza kalean dagoela, kalean ere horretaz hitz egiten dela.

Fagor Etxetresnek %14 gutxiago saldu zuten iaz

MIREN ARREGI/L.K. | ARRASATE

Fagor Etxetresnak taldeak 1.277 milioi euro fakturatu ditu 2011n, aurreko ekitaldian baino gutxiago. Egoera bereziki okertu da Espainiako salmentei dagokienez; izan ere, 2011n %14,4 gutxiago saldu zuen 2010eko ekitaldiaren aldean. Aldiz, Frantziako (Fagor Brandt) eta Poloniako (Fagor Mastercook) lantegietan emaitza positiboak lortu dituzte. Guztira, baina, taldeak 1.277 milioi euro fakturatu zituen iaz, 2010ean baino %8 gutxiago, eta bere EBITDA-finantza-gastuak, zergak eta antzeko gastuak kendu eta geroko emaitza-43,2 milioi eurokoa izan zen. Datu horiek guztiak eman dituzte arduradunek prentsa ohar baten.

Aliantza garrantzitsuak

Nazioartean aliantzak egiten jarraitzen dute Fagor Etxetresnek, tamaina handitzeko eta garatzen dabiltzan merkatuetan indartsuagoak izateko. Hala, iaz, Espainako konfort arloan BDR enpresarekin eta, Txinan, egosketa-arloan liderrarekin, Robam enpresarekin, lortutako aliantzak nabarmentzen ditu kooperatiba horrek.

%7 gehiago saltzea

Aurtengo ekitaldirako aurreikuspen onak dituzte Fagor Etxetresnek, izan ere, salmentak %7 handitzea espero dute. Horrez gain, berrikuntzan 59 milioi euro inbertitu zituen iaz, eta bere jarduerako ardatzetako bat izaten jarraituko du, izan ere, aurtun beste 41 milioi inbertituko ditu.

Azkenik, aurtun hasiko da 2013-2016 eperako plan estrategikoa lantzen.

Soraluceren gaur egungo egoeraz "harro" daude sortzaileak

TXOMIN MADINA/L.K. | BERGARA

"Pozik eta harro" agertu ziren Soraluceren sortzaileak kooperatibak aurtun bizi duen egoerarekin. Horixe esan zuten Soralucek 50. urteurrena ospatzeko egin zuen ekitaldi nagusian, sortzaileei omenaldian, apirilaren 27an. Han izan ziren gaurko eta iraganeko langile eta zuzendariak, eta baita Mondragon taldeko presidente Jose Mari Aldekoa ere.

Ekitaldia hasteko, bazkide sortzaile guztien izenak daramatzan plaka erakutsi zuten. Ospakizun ekitaldian aurkeztu zuten urtemugaren irudia, *Etorkizunari erronka* eskultura, Javier

Muro iruindarrarena. Aurkezpenak belaunaldien arteko lotura irudikatu zuen, izan ere, Txomin Manzanedo bazkide sortzaileak eta Asier Gutiez kooperatiban sartu den azken bazkideak moztu zuten zinta.

Bazkideen konpromisoa

Soraluceko presidente Txus Alzagarentzat, bi dira, 50 urte eta gero, Soraluce oraindik lanean egotearen arrazoiak: batetik, pertsonak, eta bestetik, kooperatibismoa. Etorkizunerako bi erronka aipatu zituen: barrura begira, bazkide guztien konpromisoa sortzea, eta, kanpora begira, nazioartean zabaltzea.

Abian da etxebizitza galtzeko arriskuan daudenendako zerbitzua

L.K. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak "lehenbailehen" eskainiko die babestutako alokairuko etxebizitza bat hipoteka-ekzekuzioaren ondorioz ohiko bizilekua galdu eta baztertuta geratzeko arrisku larrian daudenei. Etxebizitza babestua den kasuetan, Jaurlaritzak etxebizitza erosiko du, zorra kitatuko du.

Horren berri eman zuten eguaztanean Idoia Mendiak, Justizia sailburuak; Iñaki Arriolak, Etxebizitza sailburuak; eta Ana Colliak, Kontsumobideko zuzendariak. Prentsaurrekoan jakinarazi zuten larregi zorpetutako familiei laguntzeko zerbitzua abian dela, etxebizitza galtzeko

edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden familiei "bigarren aukera bat" eskaintzeko.

Bitartekaritza

Beste bi neurri nagusi jarri ditu abian Eusko Jaurlaritzak: batetik, bitartekaritza, zorra kitatzeko familiek ahalik eta baldintzarik onenak izango dituztela ziurtatzeko; eta, bestetik, Kontsumobidek hipoteka-mailegua kontratatzerakoan kontsumitzailearen egoera ebaluatuko du, hipotekarik egokiena kontrata dezan.

Interneten eskuragarri

Zerbitzua azaltzen duen eskurria prestatu du Justizia Sailak,



Esku-orriaren azala. | GOIENA

eta berau jaitsi daiteke Irekia informazio zerbitzuaren webgunetik (www.irekia.euskadi.net) edo Kontsumobideren webgunetik (www.kontsumobide.euskadi.net).

Maialen Fernandez de Arroiabe | Publizitate-modelo arrasatearra

"Nire ametsa beti izan da berdina: egiten dudana eginda ere zoriontsua izaten jarraitzea"

- ▶ Forum etxearen publizitate kanpaina berrirako lanean dihardu egunotan Bilbon
- ▶ Baliteke hemendik gutxira Alemaniara joatea denboraldi baterako

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Maiatzaren lehenean Arrasateko Kajoi tabernan izan zen Maialen Fernandez de Arroiabe (1983) modeloa. Jose Luis Tabueña argazkilari eta mutil lagunarekin batera hil osoan ikusgai egongo den erakusketa inauguratu zuten Kajoi tabernan.

Zure mutil lagunak egindako argazki erakusketa bateko protagonista zure herriko taberna batean. Osagai asko ekitaldiak zuretzat esanahi berezia izateko, ezta?

Bai, oso pozik nago, baina ez ni agertzen naizelako Jose Luisen argazkien artean, baizik eta nire mutilari, nire herrian, erakusketa bat egitea eskatu diotelako... Horrek ematen dit poza. Arrasatearrek Jose Luisen lana ikusteko aukera dute, baita publizitatearen munduan nola lan egiten dugun ikusteko ere. Ni ez naiz protagonista sentitzen, ni bere lanaren parte naiz. Bera da protagonista.

Lagun asko hurbildu ziren Kajoi tabernako ekitaldira?

Bai, lagun eta senitarteko asko. Familia giroan egon ginen. Oso gustura egon ginen; egun polita izan zen.

Sarri deitzen dizute hemendik gurean zer edo zer egiteko?

Bai, noizean behin deitzen didate, eta beti egiten dit ilusioa hemen lan egiteak. Aste bukaeran, esaterako, Bilbon izan naiz Forum-en kanpaina berrirako argazkiak eta bideoa egiten.

Askotan etortzen zara Arrasatera? Nola ikusten dituzu zure herria eta zure auzoa etortzen zarenean?

Bi hilean behin etortzen naiz gutxi gorabehera nire familia eta lagunak bisitatzera, eta oso gogoko dut Arrasatera etortzea, nire sustraiak hemen daude-eta!

Hiru asterako joan zinen Madrilera, eta bederatzita urte daramatzazu han. Hura da orain zure tokia munduan?

Gaur egun Madrilén bizi naiz, baina nire lana kontuan izanda, ez dakit datorren hilean non bizi naitekeen. Orain, gainera, Alemanian daukat agentzia. Seguruenik bertara joango naiz denboraldi baterako.

Zer duzu eskuartean? Nondik nora zabilta?

Publizitate-modelo lanetan jarduten dut Madrilén, baina esan moduan Bartzelonan, Munichen eta Hanburgon ere badaukat modelo agentzia. Alemanian beste modu batera egiten dute lan; bezeroek bertatik bertara aukeratzeko dituzte modeloak; *booking directo* deitzen da. Katalogo komer-

tzialak eta iragarki asko egiten dira bertan, eta baliteke hemendik gutxira Alemaniara joatea denboraldi baterako.

Zure lanbidean lana egiteko ezinbestekoa da hiriburu handietara joatea?

Bai, hiriburuetan moda industria gehiago dago. Argi dago estatu mailan lan gehien Madrilén eta Bartzelonan dagoela. Bestela, atzerrira joan behar da.

Publizitate munduan ere krisi ekonomikoa nabari duzue? Zein da egoera?

Bai, zoritxarrez krisia arlo guztietan nabari da, eta publizitate munduan izugarri sentitu dugu. Lan gutxiago dago, eta aurrekontuek behera egin dute. Casting gutxiago daude, eta lan gehiago egin behar da lehengo dirua irabazteko. Gauzak asko aldatu dira gurean ere.

Eta konpetentzia handia da?

Bai, baina bat ohitu egiten da konpetentziara. Azkenean produktu bat gara, eta ez gara ez besteak baino hobeak ez txarraok. Daukazuna ahalik eta gehien potentziatu behar duzu, eta azkenean ez da fisikoa bakarrik; zelan lan egiten duzun, arduratsua zaren, profesionala zaren...

Casting-ak gogorak dira?

Asko! (Barre). Madrilén hiru bat eguneko casting-ak egiten dituzte! Bezeroak argi badauka zer nahi duen azkar doa, baina ez bada horrela... Hiru ordu inguru egoten naiz casting askotan!

Eta hain lehiakorra den zure munduan lagunak badaude?

Ez dira egongo ba! Konpetentzia lanbide guztietan dago, ez bakarrik gurean. Kontu hori, gainera, pertsonarekin doa; nik jende oso jatorra ezagutzen dut, lagun handiak ditut.

17 urterekin hasi zinen publizitate-modelo lanetan. Gustura zaude ibilbide horrek emandakoarekin?

Bai, oso gustura nago. Egia da gazteagoa nintzenez proposamen interesgarri askori bizkarra eman niela, baina denborarekin ulertu dut momentu hartan ez nengoe la prestatuta pausu haiek emateko. Bartzelonan hasi nintzen 17 urterekin, baina ikusi nuen ez nengoela prestatuta, eta itzuli egin nintzen kazetaritza ikasketak egiteko. 20 urterekin joan nintzen Madrilera. Orain, esperientzia asko hartu dut, jende askorekin lan egin dut, badakit zer egin behar dudana, eta ez dakidanean badakit galdetzen ere... Horrek ziurtasun bat ematen dizu. Helburua da bezeroa gustura geratzea.



Maialen Fernandez de Arroiabe, Arrasaten. | MIREN ARREGI

"Argi daukat momentu txarrak izan direla nire eskolarik onena"

"Publizitate munduan ere izugarri sentitu dugu krisia"

"Orain, esperientzia asko hartu dut, badakit zer egin behar dudana"

"Oso kontentu sentitzen naiz; lortu dudana guztia nire kabuz lortu dut"

Berriz hasiko bazina eta gaur egun duzun eskarmentuarekin aldatuko zenuke zer edo zer?

Ez, ez nuke ezer aldatuko, zeren gaur egun naizena urte hauetan izan ditudan bizipen guztiei esker da, eta nahiz esperientzia zoragarri askoz gozatzeko aukera izan dudana argi daukat momentu txarrak izan direla nire eskolarik onena.

Euskalduna Madrilén. Ezaugarri horrek gauzak modu berezian ikustea eta bizitza ekartzen dizula uste duzu?

Nik euskaldun bat munduan esango nuke, zeren nahiz eta Madrilén bizi beti nabil alde bate-tik bestera. Egia esan, beti mantendu naiz fidel etxean erakutsitako printzipioekin eta balioekin. Ez dut inoiz nire jatorria ahazten, eta nahiz eta pertsona bezala asko eboluzionatu dudana, nire esentzia beti izango da berdina.

Eta zure ogibidean euskaldun asko zarete Madrilén? Baduzue harremanik?

Bai, euskaldun asko gara mundu honetan lanean, bai kamera aurrean eta baita atzean ere. Ilusio handia egiten dit beraiekin elkartzeko naizenez, nola ez! Modelo, aktore, errealizadore, argazkilari, estilista... euskaldun asko ezagutzen ditut.

Ezagutzen zaituztenek diote ospeak ez zaituela itsutu. Lana, ikasketak... lana egin duzula gogor. Lagundu dizu horrek?

Ospeak? Ni ez naiz ospetsua, eta hori ez da inoiz nire helburua izan. Nire desioa beti izan da berdina: pertsona bezala garatzea eta egiten dudanarekin gustura sentitzea. Argi daukat zerk egiten nauen zoriontsu eta "tontakeriek" ez naute inoiz liluratu.

Etiket kanpo oso gaztetatik. Zer eman eta kendu dizu horrek?

Eman, asko eman dit; munduan zehar bidaiatzea, pertsona interesgarriak ezagutzea, esperientzia ahaztezinak bizitzea... eta batez ere, nire buruarekin oso kontentu sentitzen naiz, lortu dudana guztia nire kabuz lortu dudalako. Kendu? Ba beharra izan dudanean askotan ez ditut nireak alboan izan besarkatzeko, eta berotasun falta hori batzuetan latza da. Hala ere, momentu horiek eragin dute ni pertsona gogoragoa izatea.

Zeintzuk dira orain zure ametsak? Zertan ipintzen duzu zure ahalegina?

Egia esan, nire ametsa beti izan da berdina, egiten dudana eginda ere, zoriontsua izaten jarraitzea.

ZABALIK

IÑAKI CASAS
http://goiena.net/iritzia/



Heroi anonimoak

Erreferente sozialik gabeko gizarte bat lemarik gabeko belaontzi bat bezalakoa da. Zer izango zen India Gandhi barik? Eta zer izango zen Sobietar Batasuna Gorbatxov barik? Adibide bi horiek aipatzen ditut bat-batean etorri zaizkidalako, baina askoz gehiago daude, baita anonimoak ere.

Hain zuzen, azken horiei helduko diet. Munduko lider handiak alde batera utzita, nire ustez oso garrantzitsua da benetako heroi lokalak egotea: euren bizitza balio bihurtzen dute besteoi eskaintzeko, eta, bide batez, bidea erakusten digute. Eta horretarako, ez dago zertan inongo jainkotasunek igurtzita egon.

Orain dela urte batzuk, 1992an, 19 urteko Algortako gazte batek unibertitate ikasketak egiten ari ginen elkarrekin-harri eta zur utzi gintuen: elkarrekin humanitario baten sartu, eta egun gutxiren buruan Varazdingo kanpaleku batera zihoala esan zigun, Balkanetako gerra odoltsu eta irrazionalak desplazatutakoak laguntzera.

Lehenik Varazdinen eta gero Spliten, sei hilabetez egon zen han. Bizi izan zituen esperientziak alde batera utzita, asko eta intentsitate handikoak izan ziren arren, pentsa dezakezuen moduan, haren keinu eskuazabala EHUKo gure idazmahai erosoan ikasten ari ginen guztiok markatu gintuen.

Buelatu zenean, hura hazia zen pertsona moduan, eta gu, berriz, eskarmenturik gabeko unibertitario hutsak ginen, baina, hori bai, gure lagunari begiratzen genion sinesogortasunez, harriduraz eta admirazioz. Orduan ez genuen ulertzen zergatik egin zuen hura, zergatik jarri zuen bere bizitza jokoan, inork behartu barik! 20 urte geroago –denbora azkar pasatzen da gero...–, erantzuna erraz bezain hezitzailea da: mota horretako heroiek ez dutelako egoismoa ezagutzen eta besteondako bizi direlako.

Niretako, eta ordutik, funtsezko erreferentea da nire bizitzan. Ez daukat zertan kanpoan begiratu, alboan daukat. Hura da nire Gandhi berezia.

"Euren bizitza balio bihurtzen dute, besteoi eskaintzeko"

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Iñigo Cabacasenaren ostean

Martxoaren 3ko urteurrenean zioen Laura Garridik ezin daitezkeela parekatu "erakunde terrorista" baten biktimak eta "poliziaren karga" batekoak. Nik bai parekatuko nituzke, zentzu batean: ekintza horien ondorioz senide edo lagun baten galera sufritu dutenen minarenean. Bestela: batzuk dira biktimak legez kanpoko erakunde batenak, zeinetako kideek jardun duten euren ekintzek euren buruentzat ere izan zitzaizketen ondorioen jakitun, legetik aparte, kontsekuentzia guztiekin; besteak dira gure poltsikotik ordaindutako, guk aukeratutako politikarien esanetara dagoen eta, ustez, gu babes-teko helburua duen legezko erakunde baten biktimak.

KALE INKESTA

Zure herrian, ze gastu murriztuko zenuke?



JUAN MARI AIASTUI BERGARA

"Nik esango dut zeintzuk ez nituzkeen murriztuko: hezkuntza, osasuna eta dependenziarekin zerikusia dutenak".




MERTXE ELORRIAGA ELGETA

"Ez dakit ba zer esan, dena da-eta gastua. Gastatzen dutenek esaten dute beharrezkoa dela hala egitea".



LUPE IBARBIA ELGETA

"Erretiratu bezala konforme gaude Udalak ematen digunarekin; aurten, ez dugu murrizketarik izango".



MARIASUN DE BENITO BERGARA

"Herriko jendeari laguntza gehiago emango nien, adibidez lan gabe daudenei emango nieke laguntza gehiago".

HANDIK ETA HEMENDIK

Eztabaida bat bideratzea

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Orri honetantxe eman zen atzo Txema Ramirez de la Piscinari egindako bideo-elkarrizketaren berri. Zuzen.com agerkari digitalean atera zen eta kontu mamitsuak aipatzen ziren bertan: ETB1 bigarren mailakotzat daukatela; Amaiurren inguruko gobernu batek ere ez lukeela kenduko gaztelaniazko ETB; ETBn betidanik izan dela erabilera politikoa –eta oraingoa lotsagarria dela eta ez dela eraginkorra–; BBCren eredia –prestigiotsua, independentea, gobernuarekiko distantziaduna– nahi lukeela ETBrentzat; ETBren oraingo maila oso kaskarra dela nahiz oso profesional onak izan; eta profesional horietako bati eskaini zioten agerkari digital berean aurreko bideo-elkarrizketa, Kike Amonarriz.

ETBk Maiatzaren Lehenari programazio berezia eskaini ez dionez, hemen Amonarrizen elkarrizketarenak orain. ETB1en gabeziez galdetuta, bat nabarmentzen du Amonarrizek

besteen gainetik: programazioa.

Eskaintzari murriztirik irizten dio, eta gai, programa estilo eta hartzaile desberdinentzako saio gehiago beharko lirakeela gehitzen du. Kudeaketa ereduari dagokionez, beste eredu bat behar dela dio, Europan hainbat lekutan funtzionatzen duen ikus-entzunezko kontseiluen ereduaren oinarritua: orain ETBk duen kontrol politiko estuegia laxatu eta kudeaketa profesionalagoa gauzatu. [...]

Aipatzen den beste kontu bat ETBren deszentralizazioa da, Euskal Herria osatzen duten lurralde guztien presentzia orekatuago bat lortzeko asmoz. Hedabideen oraingo eraldaketa prozesu sakonaren barruan kokatzen du Amonarrizek telebista, eta oso urte gutxi barru oso modu desberdinean ikusiko dugula dio.

Eta hor garrantzitsu deritzo euskal esparru komunikatiboaren inguruko eztabaida bat bideratzeari, ETBekin zer egin behar den, zer lortu nahi den, telebista publiko bat zer den hausnartzeko, gizarte kohesio eta hizkuntza normalizazioari begira. Erroka eginga zaigu, hartara.

Galga

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Zer da pertsona bati galdetzen zaion estreinako gauza, pertsona horri buruzko zerbait jakin nahi denean? Mendebalean familiagatik galdetzen zen ohikoa. Jatorriagatik edo erlijioagatik galdetzea ere nahiko arrunta zen. Aldez edo moldez, identitateari buruzkoak ziren galderak, halakoxeak erantzunak: ezkondua naiz, bost seme-alaben ama, biarnesa, katolikoa... Harik eta kapitalismoak galderaren ardatza eta zentzua desplazatu zituen arte, eta, mendebalean behintzat, lanbidearengatik galdetzen ikasi genuen. Zer zara zu? entzunda, gure lanbidea aitortzen genuen: mekanikaria naiz; arkitektoa; ingeniaria, dendaria... Produktzio sisteman geneukan tokia seinalatzen genuen; sistema ekonomikoan geneukan estatusa azpimarratzen.

Bukatu da erantzunen ugaritasuna. Gero eta sarriago, erantzunen galga gero eta berago bat berdintzen ari da oraintsu arteko ugaritasun hura: Zer naizen? Langabea, galdetzea ere...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Asteburuko edizio arduraduna
Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitate Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Ziortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

bilduma

Sombra**ZURE ETXEAREKIN
LILURATUTA**Moduluaren, apalaren eta ispiluaren multzoa
L 200xH80xP35cm**604 €**Telebistarako 4 moduluko multzoa
L 360xH55xP45cm**1.742 €**Erdiko mahaia
L 110xH35cm**484 €**

TORRA+PORTELLA

diseinua
Eloy Millán

Sombra bildumako egongela-jangela. Akabera lakatu zurian eta ardesia matean. Zokaloari ledak jartzeko aukera. **Aurora** erdiko mahaia, kaxoiekin. Akabera lakatu zuri matean eta ardesia kristalean. Aukera gehiago Kibuc.com en. Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

www.kibuc.com ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en  

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 151 681

KIBUC Gure Ametsa**KIBUC**
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Mikel Etxaburu | Herri Batasuna (1980-1983 eta 1987-1990)

- ▶ Bi agintaldi egin zituen Etxaburuk Udalean
- ▶ Alderdi jeltzaleko Eli Galdos zen alkatea orduan
- ▶ Udala utzita ere, politikan lanean jarraitzen du

"Garai hartan ez genuen ezagutza handirik, baina orduko hanka sartzeak egun dabilta fruituak ematen"

IRATI GOITIA | OÑATI

Mikel Etxaburuk adierazi digu mutikotatik militatu izan duela politikan era batera edo bestera. Hala, azaldu digu 1966an Iparraldera joan eta garai hartan debekatuta zegoen ikurrina ekartzen zuela, gero hemen banatzeko. Ondoren, *Ahuntzen Taldean* ere ibili zela kontatu digu, eta baita espetxean izan zela birritan. 1973an Iparraldera ihes egin zuen. Franco hil eta gutxira, 1976ko maiatzean, itzuli zen herrira. Batzordean sartu eta bertan ibili zen lanean, eta zinegotzi joateko aukeratu zuten. Udalean egin zuen lehen agintaldian, kide bat ordezkatu zuen. Bigarrenean, berriz, bera irten zen zinegotzi. **Nola oroitzen dituzu Udalean egon zinen garai haiek?**

Nire ustez, ez guk eta ezta beste alderdietako kideek ere ez genuen eskarmenturik Udalean. Ezjakitasun handia zegoen planak egiteko orduan, baina pittinka-pittinka hasi ginen ikasten. Bestalde, eztabaida handiak izaten genituen eta gu beti irteten ginen galtzen, EAJkoak gehiago ziren -eta. Gainera, garai haietan gehien-go osoa erabatekoa izaten zen; ez zen adostasunerako asmorik izaten. Hala, jeltzaleek nahi zuten-ena egiten zuten. Garai hartako

alkate zen Eli Galdosen nortasunak ere hori bideratzen zuen. Baina poliki-poliki denok ohartu ginen derrigorrezkoa zela konponbidea bilatzea. Niretzako oso esperientzia ona eta aberasgarria izan zen, une garrantzak bizi izan arren.

Orduan ikasitakoak egungo egoeran erreflexua duela esango zenuke? Bai, zalantza barik. Ordutik hona Oñatik jo duen aldaketa oso nabaria da. Garai haietan EAJk hamar, 11 edo 12 zinegotzi izaten zituen eta guk lau, bost edo hiru. Nire ustez, gure inguruan une gogorak pasa ditugu, baina garrantzitasun eta esperientzia txarrak egun dabilta bere fruituak ematen.

"Eztabaida asko izaten genituen; larriena Zapa hil zutenekoa izan zen"

"Garaiok latzak izan ziren arren, egungo egoera ikusita poza sentitzen dut"


Une garrantzak aipatu dituzu. Zein da bizi izan zenuen unerik gogorrena?

Eztabaida garrantzitsuenak borroka armatuaren gainekoak izaten ziren. Zehazki, gogoan dut oso egun gogor bat: San Migel bezpera zen eta Hernanin gure zinegotzi bat hil zuten (Zapa). Guk danborrada bertan behera utzi nahi izan genuen, eta izugarriko eztabaida izan genuen udal-txean.

Bestalde, eguneroko kudeaketan, aurrekontuak onartzea sarri zaila izaten zen. Izan ere, gauza ezberdinei ematen genien lehenetasuna. Oso eztabaidatua izan zen, adibidez, Olateko presa erostea. Izan ere, ordurako diru kopuru handia zen; 1.000 milioitik gora. Guk uste genuen diru hori beste arlo batzuetan erabili behar zela; esaterako, hezkuntzan. Hirigintza planak egiteko orduan ere lur gehienak etxebizitzak eta enpresak egitera bideratzen zen. Hor ere ez geunden ados.

Egin ziren proiektuetatik, baina, bala gustukoren bat?

Egia esan, gu bere garaian ados azaldu ez ginen arren, Olateko ur-jauziak erostea ideia ona izan zela iruditzen zait. Izan ere, inbertsio horrek ekarri ditu onurak herrirako. Bestetik, ur-zikinak



Mikel Etxaburu, Oñatiko udaletxearen aurrealdean. | IRATI GOITIA

eta erreka inguruak garbitzeko pausu handiak eman zirela ere uste dut.

Bigarren agintaldiaren ondoren, Udaletik irten zinen. Zein izan zen arrazoia?

Osasun arazoak izan nituen, eta horregatik utzi nuen. Hala ere, urte guzti hauetan Udalean egon ez naizen arren, beti jarraitu dut politikan eta hil arte lanean ibiltzeko prest nago. Argi dago, baina, gazteak indarrez datozela eta eurek eratu behar dutela euren etorkizuna, nik badut laguntzeko prestutasuna ordea eta orduko esperientzia.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Uste dut oraindik une latzak pasatu behar ditugula; asko sufritu beharko dute presoek eta euren familiek batez ere. Hala ere, pozik nago uste dudalako azken hiru urteetan oso erabaki garrantzitsuak hartu direla eta laster ["politikan laster urtebete baino gehiago da", zehazten du barrez] ikusiko ditugula gure ametsak bideratzen. Horregatik, politikak bere garaian arazo asko sortu zizkidan arren, batez ere etxean, egun bizi dugun unea ikusita izugarriko poztasuna sentitzen dut.

ALKATE JAUNA, HARIRA

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | EUGENIO OTSOA, LEINTZ GATZAGAKO ALKATEAREKIN ELKARRIZKETA
MAIATZAK 8, 21:30 | MAIATZAK 9, 13:05 | ENKO AZKARATEK AURKEZTUA

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERAK ALKATEARI

SAIOAREN AURRETIK: posta: harira@goiena.com | Goiena.net: albistearren barranean, galdera edo iruzkina utzi.
ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: [#traola](https://twitter.com/traola) #harira | Goiena.net: ikusi streaming bidez, eta egin galderak eta iruzkinak.



HERRIAK



Antzuolako erdiguneko argiteria, maiatzeko gau batean. | JULIO CALLEJA

ANTZUOLA

Herrian energia eraginkortasunez kontsumitzeko lanean ari dira

- ▶ Kaleko argiteriaren inguruko ikuskaritza egin zuten joan den udazkenean
- ▶ Inbertsioa egiteko finantzazio bideak bilatzen ari da orain Antzuolako Udala

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Kaleko argiteriaren ikuskaritza orokorra egin zuen joan den urteko udazkenean Antzuolako Udala. Ikuskaritzako emaitzek erakutsi dute "badagoela zer egin arlo horretan", Iñaki Iartzak Hirigintza zinegotziaren arabera. Behar baino argindar gehiago kontsumitzen da kaleko argiteriarekin; zenbait gunetan argi gehiegi dago eta beste zenbaitetan gutxiegi. Kaleko argiteria "desorekatuta" dagoela esan digu Iartzak.

Ikuskaritzaren arabera, posible litzateke kaleko argiteriaren energiaren kontsumoa %40 jaistea. Horrekin, energia kontsumoa gutxitzeaz gain, gastu ekonomikoa ere gutxituko litzateke. 2011n 46.000 euro gastatu ziren kaleko argiterian eta asmoa da gastu hori gutxitzea. Horretarako, baina, 100.000 eurotik gorako inber-

tsioa behar dela zehaztu digu Iartzak, eta momentu honetan finantzazioa falta du Udalak.

Horretarako lanean ari da orain Udala. Zenbait enpresaren atea jo dituzte eta EVE Energiaren Euskal Erakundearekin ere harremanetan daude, dirulaguntza lortzeko. Izan ere, erakunde horretatik dirulaguntza lortzeko baldintza minimo batzuk bete behar dira eta horretarako lanean ari dira.

Zenbait proba

Argiteriaren ikuskaritza egin zutenetik aritu dira zenbait frogan egiten kaleko argietan. Izan ere, Iartzaren arabera, ez da gastua begiratu behar den bakarra: "Ikusi beharra dago ere ze argitasun mota, ze goxotasun ematen duen eta jendeak nola erreakzionatzen duen horren aurrean". Inguruko herrietan kaleko argi-

terian egindako aldaketan berri ere jaso dute lehen eskutik, Antzuolan aplikatu daitezkeen ikusteko.

Udal eraikinak

Kaleko argiteria aldatzeaz gain, Udalaren eskumenekoak diren eraikinen energia eraginkortasuna ere aztertzen ari dira. Iartzak azaldu digunez, "helburua da behar den energia soilik gatzatzea, "ez gehiago eta ez gutxiago". Udal eraikinetan energia gastu handiena duena da herriko eskola; argindar gehien gatzatzeaz gain, bertan dute ura berotzeko eta berogailurako galдарarik handiena. Gasolioa da eskolan erabiltzen den erregaia. Udaletxean argindar bidez funtzionatzen du berogailuak, eta Torresoroan, Eztalan, pilotalekuan eta Olaranen, berriz, gas propanoa dago sartuta.

ESANAK

"Herriguneko argiteria desorekatuta dago"

IÑAKI IARTZA | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

DATUA

%40

KONTSUMO GUTXIAGO

Kaleko argiteriaren ikuskaritzaren arabera, posible da kontsumoa ia erdira jaistea.

Gas propanoa

Gaur egun herriko etxebizitzetarako eskaintzen den kanalizatutako gas bakarra da gas propanoa. Horretarako ere alternatibak aztertzen ari da udala. Iñaki Iartzak esan digunez, aztertuko dute "ze irtenbide dauden" eta horien artean "onena aukeratu". Dena dela, zehaztu du horretarako inbertsiorik egiteko dirurik ez duela udalak eta, beraz, udalarekin hitzarmena egingo lukeen enpresak egin beharko lukeela inbertsioa.



Batukadak auzotarrak dantzan jarri zituen barikuan. | JULIO CALLEJA



60 lagun inguruk bazkaldu zuten zapatuan. | JULIO CALLEJA

ARRASATE

San Andreseko plaza inoiz baino beteago

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Indar berrituta etorri dira San Andres jaiak aurten. Mikel Oteiza antolatzaile lanetan ibili da eta plaza inoiz ez bezala beteta ikusi duela azaldu digu: "Gauoko ekintzek sekulako arrakasta izan dute, bai barikuan Oihan Vega DJ-ak egindako saioak eta baita zapatuan *Una noche sin Sabina* izeneko Sabinaren bertsioren kontzertuak ere". Bazkariak 60 lagunek gozatu zuten. Aste bukaeran zehar egindako ekintzetan, hori bai, auzotarrez gain, arrasatear askok hartu dute parte.

Herri Eskola ere festan

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak banatutako salda eta txistorrak harrera ezin hobea izan dute San Andres auzoko jaietan. Zapatu eguerdian, gurasoek ordu eta erdi eman zuten jo eta su zerbitzatzen eta 13:30erako dena bukatuta zegoen. Musakolako jaietan errepikatuko dute ekintza, hilaren 12an, 12:00etatik aurrera, jaietako jolas gunean. Maiatzaren 10ean, aldiz, Lip Dubaren azken eszenak grabatuko dituzte; ekainaren 2an ospatuko da jai erraldoia Biterin eta Laubiden.



ESKORIATZA

Elixabarri Eguna trikitiz jantzia

Urtero moduan, Elixabarri Eguna ospatu zuten eskoriatzarrek zapatuan –eguna bera maiatzaren 6a izan arren, hileko lehen zapatuan egiten dute ospakizuna—. Eguraldiaren beldur ziren, baina aitzakiarik gabekoa izan zen azkenean eta eguna dotore pasa zuten. Debagoieneko trikiti eta pandero jotzaileek herriko kaleak hartu zituzten arren, euren ere ez zen halako doinurik falta izan.

ARRASATE

Elkartasunak Seber Altube plaza bete zuen zapatuan

Ezin hobeto hasi eta bukatu zen eguna, tartean euria egin zuen arren

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Harreman elkartearen eskutik ospatu zuten Elkartasun Eguna, 14. aldiz, eta mugimendu polita sortu zuen Seber Altube plazan. Bidezko merkataritzako produktuak erosten, gobernuz kanpoko erakundeen proiektuak ezagutzen, tonbolan boletoak hartzen... premia larriak dituzten herrialdeei laguntzeko gogoz, asko izan ziren ospakizunarekin bat egin zutenak.

Antolatzaileek egitarau konpletua prestatu zuten, gainera: festari musika ipintzeko, Arrasate Musikaleko banda txikiaren emanaldia eta Portaloitaldearen kantu saioa; txikiak ez asperitzeko, margotze-tailerra eta puzgarriak; eta tripa bete eta eztarria bustitzeko, taberna –aurten, lehenegoz. Lastima, arratsalde erdialdean Kukubiltxok bere ikuskizuna eskaini ezin izana; euriaren eraginez bertan behera utzi behar izan zuten eguneko ekintza bakarra izan zen.

Balorazio oso ona

Iluntzean, egitaraua ia agortuta, pozik hitz egin zigun Harreman elkarteko kide Itziar Uriartek: "Balorazioa ezin hobea da. Bidezko merkataritzako beste urte batzuetan baino gehiago saldu dute, Emausekoak ere pozik geratu dira... goiza primeran joan da, eta arratsaldea ere bikain bukatu dugu nahiz eta motel hasi: uneotan jende mordo ari da dantzan Patxi Monterorekin".



Jende mugimendua handia izan zen tonbolan, une oro. | JULIO CALLEJA



Ume koadrila bat bidezko merkataritzako gozokiei begira. | J.C.

Tonbolako boletoak agortuta

Tonbolak ere sekulako arrakasta izan zuten, txartel guztiak agortu ziren. Horiekin bakarrik 4.000 euro inguru batu ditu Harremanek eta Mumbaiko (India) Ankur

umezurtz-etxera bideratuko ditu; kalean utzitako edo familia pobreetako 200 neskatila bizi dira han. Tonbolako sari nagusia –bidaia bat– egokitu zaion zenbakia da 1.833; eta ordezkoa, 3.114.



INAKI BERRISTAIN

ONATI

Arantzazuk ia 200 alaba hartu ditu

Arantza, Arantxa, Arantzazu edo familia bereko beste izenen bat duten ia 200 lagun batu ziren atzo Arantzazun, xede horrekin egindako topaketan. Gandiaga Topagunean hasi zuten eguna, Juan Inazio Larrea bikarioak Arantzazuri buruz emandako hitzaldi "polit eta arin" batekin. Ordubetik luze meza entzun zuten segidan eta, tragoxka pare bat hartu ostean, bazkaria egin zuten Hospederian. Aipamen berezia egin zioten Fermin Altube frantziskotarrari, berari otu zitzaizkion Arantzen Topaketa egiteko ideia, 1956an; jendetza batu zen orduan. Gerora sei alditan egin dute; aurtengoa zazpigarrena izan da.



Lilura egunak izan dira Elgetan; irudian Francisco Cuesta eta Nora. | J.C.



Mago Migue zapatuko galan ikusle bati trikimailua egiten. | JULIO CALLEJA

**JOSE ANTONIO IRAZABAL**
MAGIA ZALETUA

"Oso ondo egon da dena, baina batez ere zapatuko gala. Oso bariatua eta oso polita izan zen. Gauza berri asko ikusi ditugu. Niretzat onena Charlie Mag".

ELGETA

Ikusitakoak sinistu ezinik, aho zabalik, eman dute aste bukaera Elgetan

Mago Miguek jaso du aurten publikoaren saria; 2006an ere berak eraman zuen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Magia Mostrak zer esana eman du aurten ere. Maila handiko magoak izan dira herrian, eta ondo baino hobeto erakutsi dute zergatik diren hain sarituak.

Mago Miguek ikuskizun txukuna egin zuen barikuan, baina zapatuko galan guztiz bereganatu zuen Elgetako publikoa. Elgetan magia asko ikusitakoak dira dagoeneko, baina aurtengo gala-

rekin muga guztiak gainditu dituzte. "Batez ere zapatuko galan muga goian jarri dugu eta zaila izango da gainditzea, baina dagoeneko lanean gara", esan dute. Izan ere, magoak benetako mira-

riak egiten ikusi ditugu Elgetan. Areto barruan zein kalean aritu dira eta nahi izan duen orok izan du aukera magiaz gozatzeko.

Publikoaren saria

Estu egon da lehia aurten publikoaren saria eskuratzeko. Miguek eraman du azkenean, baina oso gertu izan du Charlie Mag gaztea. Magoen artean ere badaude berri-tzaileagoak direnak eta tartean dira Charlie Mag zein P-Cubique taldeko frantziarrak. Horiek izan dira hiru txalotuenak.

**CHARLIE MAG**
MAGOA

"Jaialdi oso polita izan da, eta tratua gertukoa. Etxekoak moduan hartu gaituzte Elgetan. Nire saioak ere oihartzuna izan du eta asko poztzen nau horrek".

**OÑATI**

JULIO CALLEJA

'Zazpikoloroa' Oñatin izan da

Harrera beroa egin zieten zapatuan Oñatiko neska-mutikoei Pirritx, Porrotx, Marimotots eta taldeko gainerako pertsonaia guztiei. Sobran jaso zuten bueltan emandako berotasun guztia. Ohikoa duten moduan, pailazoak eskuzabalak izan ziren musuak ematen eta txantxak egiten. Zazpikoloroa-ren abenturekin ospatu zuten Txantxiku Ikastolaren eguna. Goraino bete zen Zubikoako kantxa nagusia.

**LEINTZ GATZAGA**

AMAI ARZELUS

Loreekin herria koloreztatzen

Berbenak, sasifragak, tageteak... askotariko loreak landatu zituzten atzo Leintz Gatzagako herri inguruetako loreontzi eta lursail txikietan; haur eta heldu, 30 bat lagunek taldeak jardun zuen egiteko horretan. 35 bat lore ipintzea zen asmoa, baina eguraldi eskasa zegoela-eta, gutxi batzuk landatu zituzten atzo azkenean eta gainerakoak aste barruan ludoteka orduan landatzeko utzi. Gurel guraso elkarteak antolatzen du ekimena, herria apaindu eta lore eta landareei buruz ikasteko helburuarekin. Atzo, landaketa lanei ekin aurretik, Toki Eder elkartearen bazkaldu zuten Atxorrotzetik bueltan.

merkecartuchos®
printing solutions

> **ERREKARGA**
> **SALMENTA**

TONER ETA TINTA KARTUTXOEN ERREKARGA ETA SALMENTA

Loramendi 2 - Arrasate - 943 79 99 31 - arrasate@merkecartuchos.net
Jasotzen ditugu:
SUGOI - Irizar pasealekua 2 - Bergara
ATAI - Basabe bidea F-2 - Aretxabaleta



Arimazubi inguruan arazo handiak izaten dira aparkatzeko. Bertan hasiko dira TAO sistema jartzen. | JOKIN BEREZIARTUA

TAO unibertitate inguruan jarriko dute, proba moduan

Mugikortasun planaren barruko beste erabaki bat da; alde zaharreko antolaketa berria, gaur ezker indarrean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2012ko aurrekontuan 835.000 euro bideratu dira Hirigintza Sailera. Krisiak zerikusi zuzena izan du inbertsioetan: "Beharrezkoenak direnak egingo ditugu", dio Omer Arregi zinegotziak. Horien artean aipa genitzake aurten hastekoak diren San Josepe kalea eta Udala auzoa urbanizatzeko lanak. Beste partida aipagarri bat etxe hutsak identifikatzera bideratuko da, Udalak eskumen mugatua duen arren.

Era berean, Plan Orokorra berri beharra dago. Hala, abenduan hasi eta otsailera arte Kulturteko klausuroan jarritako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) aurrerapena

ikusgai zuen erakusketa amaitu zen eta herritarren iritzi, kezka eta ekarpenak baloratu ostean, orain Aholku Kontseilua dabil etorkizuneko Arrasate nolakoa izango den jakiteko irizpide nagusiak zehazten; bilerekin bukatzeaz daude.

Herri osoaren ordezkari zabalda izan da kontseilu horretan eta Arregik dioenez, Udala "oso pozik" dago parte hartzearekin: "Ordezkaritza zabalda izateak ez du parte hartzea bermatzen eta eragile ezberdinen erantzunarekin oso pozik gaude. Sei bilera egin ditugu eta bakoitzean 30 bat lagun elkartu gara". Bilerok amaitzen direnean txosten baten jasoko dituzte ondorioak.

Mugikortasuna, osotasunean

Hirigintza Saila beste batzorde batzuekin elkarlanean jorratzen ari den Mugikortasun Plana pillean dagoen gaia da egun: "Garraio publikoa bultzatzea, bide gorrien sarea indartzea, garabi zerbitzuaren berrantolaketa, seinaleztapena hobetzea edota doako TAO ezartzea dira esku artean darabilgun asmoetako batzuk. Zentzu horretan, Udalak duen beste helburu bat da oinezkoen espazioak zabaltzea".

Alde zahararen antolaketa berria –autoen zirkulazioa ordu-tegi zehatz baten baimentzea– gaur bertan jarriko da indarrean, apirilaren 23a ezker probaldi fasean egon ostean. Beraz, Mugikortasun

DATUA

835

MILA EURO

835.000 euro bideratu dira Hirigintza Sailera. Murrizketak inbertsioetan egin dira, gastu finkoek tarte gutxi uzten dute-eta.

ESANAK

"Ordezkaritza zabalda izan du Aholku Kontseiluak, eta parte hartzea handia; oso pozik gaude"

OMER ARREGI | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

The Cubical dator Amaiara, Gaztemaniak! ekimenarekin

J.B. | ARRASATE

The Cubical talde britainiarrak Amaia antzokiko hall-ean joko du egubakoitzean. Gaztemaniak! programaren beste emanaldi bat izango da. Liverpoollekoekin batera, Bitter Honey arrasatearrak izango dira taularen gainean. 20:00etarako iragarri dute kontzertua eta sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte Kutxasarrerak atarian –www.kutxasarrerak.net–. Zazpi euroren truke eskura daitezke.

Ustekabea Europa osoan

The Cubical azkenaldiko ustekabe handietako bat izan da Europan. Bluesa eta 1960ko hamarkadako garage soinuak (Yardbirds, Bob Dylan, Velvet Underground...) nahasten dituzte. Baina, Magic Band edo Mothers Of Invention taldeen eromenera ere hurbiltzen dira, entzun orduko, Captain Beefheart edota Howlin Wolf berbera gogora ekartzeko duen ahotsarekin. Bi disko atera dituzte; biak oso onak. Eta zuzenekoak, berriz, esperientzia gogoangarri bilakatu da, azken Azkena Rock jaialdian egiaztatzen moduan. Gonbita eginga dago.



Dan Wilson, abeslaria. | GOIENA

Koultur Ostegunak: hiru saio gehiago bigarren urtea agurtzeko

Erregea eta bufoia, Napoka Band eta Who the Bitch, azken gonbidatuak

J.B. | ARRASATE

Koultur Ostegunak ekimenaren bigarren ikasturtea amaitzera doa. Asteon ez da saiorik egongo –aurreko astean bi kontzertu egon ziren– baina oraindik hiru emanaldi falta dira ikasturtea borobiltzeko: Ander Lipusek gonbidatutako bertsolari batekin batera barre algarak eragingo dituen *Erregea eta bufoia* izeneko inprobisazio saioa, Napoka Iria taldetik eratorritako Napoka Band izena duen proiektu berriaren kontzertua eta ikasturtea

agurtzeko ardura izango duen Who the Bitch punk rock taldea, Japoniatik zuzenean.

Lantalde ona, nor bere alorrean

Bigarren ikasturteak orain arte eman duenarekin antolatzaileak pozik daude: "Kontzertu bereziak eta ezberdinak eskaintzea da gure helburuetako bat eta hori lortzen ari garela uste dugu. Bestalde, gaztetxearekin batera erositateko soinu mahaia ordaintzen gabiltza, zati bat bakarrik geratzen zaigu. Baina lortu dugun gauza positi-

boenetako bat da inoiz gaztetxean egon gabe zegoen jendea erakarri dugula", dio Iker Barandiaran antolakuntza taldeko kideak. Azken horren adibide da Kepa Junkera eta Xabier Amurizaren kontzertuan 60 urtetik gorako jendea egon zela. Jatorri eta doinu ezberdinetako emanaldiak astero antolatzea ez da lan erraza eta horregatik ezinbestekoa da lantalde on bat izatea atzetik. Eta hori du Koultur-ek; zazpi bat lagun daude lanean, koordinatuta, nor bere esparruan.



Erregea eta bufoia izango dugu maiatzaren 17an (22:00). | GOIENA

Kooperatibaren urtea dela-eta, bisita izango dugu Argentinatik

Kooperatibismoan oinarritutako Sunchales herriko ordezkari eta etorriko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Nazio Batuen Erakundeak Kooperatiben Nazioarteko urte izendatu du aurtengoa, eta Arrasate euskal kooperatibismoaren sehaska izanik, Udalak ekimen horrekin bat egitea erabaki zuen martxoaren 27ko osoko bilkuran egindako adierazpen instituzionalaren bidez.

Agiri horretan jasotzen da, besteak beste, Udalak bat egiten duela elkarlanean, parte hartzean eta elkartasunean oinarritutako enpresa filosofiarekin.

Bi herrien arteko senidetzea

Hala, Argentinako Sunchales herriarekin senidetuta dago Arrasate; hura ere kooperatibismoan oinarritutako herria delako senidetuta ziren 2007an. Garai hartan Arrasateko Udaleko zenbait ordezkari izan ziren Argentinan eta orain, asteburu honetan bertan, Sunchaleskoek gure herria bisitatu dute.

Bi herriotako ekonomia kooperatibismoan sustraituta dago eta senidetzea filosofia horretan dago oinarritua. Beraz, Sunchalesko

ordezkariaren bisita bera Kooperatiben Nazioarteko urtearen agendako ekintzetako bat da. Hilaren 9tik 11ra bitarte izango dira Sunchaleskoak Arrasaten, bi herrien arteko harremanak estutzeko. Ezequiel Bolatti intendentea eta bere emazte Carina Roa etorriko dira, Bonaldi Edgardo, Libertad Kirol Klubaren elkarteko presidentearrekin batera.

Udaleko ordezkariak lagun dute egongo dituzte bisitak bi egun horietan. Ondoko egitarauan

ARGENTINAKO ORDEZKARITZAREN BISITA

HILAK 9, EGUAZTENA

22:05 Bilbora iritsiera. Amaia Larrañaga eta Joxerra Askasibar zinegotziek harrera egingo diete.

HILAK 10, EGUENEA

08:30 Harrera ofiziala alkatetzan.

09:00-11:00 Aramaioko Behi-Alde kooperatibara bisita.

11:30 MUra eta Eskola Politeknikora bisita.

13:30 Otorala jauregira bisita. Juan Inazio Azpuruak harrera egin ostean bazkaria.

14:30 Mondragon Taldeari buruzko erakusketa eta hitzaldia.

19:30 Alde zaharrean osteratxo.

21:00 Afaria.

HILAK 11, DOMEKA

10:00-12:00 Alde zaharrean bisita gidatua Arrasate Zientzia elkartearen eskutik.

ikus daitekeenez, besteak beste, Aramaioko Oleta auzoko Behi-Alde kooperatiba bisitatu dute eta Mondragon Unibertsitatea eta

Eskola Politeknikoa bertatik bertara ezagutuko dute. Domekan, 12:30ak aldera, hasiko dute itzulerako bidaia.

Aiert Zubigarai | Komikigilea

"Tailerraren ideia sorkuntza bultzatzea da, ez marrazketa"

AEDren Literaturjauzien hirugarren edizioaren barruan kokatzen dira Aiert Zubigaraien tailerrak

PEIO MADRID | ARRASATE

Komikigintzan hasi nahi dutenek aukera paregabea izango dute maiatzaren 12an hasi eta 19era arte Arrasaten. Aiert Zubigarai komikigilea izango da klaseen zuzendari eta, esan duenez, adin guztietarako tailerra da prestatu duena.

Zuzenduko duzun ikastaroa hasiberriei dago zuzenduta?


Hori da. Ez dugu hau perfekzioa bilatzeko antolatuta, komikigintzan hasi nahi dutenentzat egin dugu. Komikigintza artistikora eta sorkuntzara bideratuta egongo dira tailerrak, batez ere.

Zer da, labur esanda, ikastaroan landuko duzuna?

Gehienbat ariketak izango dira, sorkuntzara bideratuak. Ikasleek aldizkariarekin eta testu ezberdinekin *colagge* antzeko bat egin beharko dute, istorio bat sortzeko duten gaitasuna piztu eta bultzatzeko. Gainera, pertsonaien sorkuntzan zentratuko gara, espresioen eta mugimenduen lanketaren bidez.

'Storyboard' moduko zerbait egingo duzue?

Ez. *Storyboard*-a aurretik sortutako narrazioari marrazkiak jarztean datza. Guk nahi duguna



Aiert Zubigarai, ohikoa duen marrazki blokekin. | JOKIN BEREZIARTUA

marrazkien bitartez narrazioa bultzatzea da.

Aurretik ikastarorik eman al duzu?

Egia esanda, hau da lehena. Eta beraz, erronka pertsonal modura hartuko dut. Irakastea bi bider ikastea dela diote. Hori kontuan hartuta antolatuta dute ikastaroa, ideia onenak hartu eta horiek komikigintzan hasten ari diren pertsonen egokitzeko.

Zergatik gomendatuko zenuke ikastaroa?

Lehenik eta behin, aberasgarria izango delako. Edozein pertsonak har dezake parte tailerretan, hau

da, marrazketan maila berezirik ez da behar. Gainera, istorio, ideia edo dena delakoa kontatu nahi duenarendako oso bide baliagarria izan daiteke komikia. Azken finean, komunikaziorako tresna paregabea da. Ideia nagusia sorkuntza lantzea da, ez marrazketa bakarrik.

"Komikigintzan hasi nahi dutenentzat antolatuta ditugu tailerrak"

Egitarau zabala San Pankrazio ospatzeko

J.B. | ARRASATE

Eguena, maiatzak 10, egun handia izango unibertsitateko ikasleendako. San Pankrazio eguna ospatuko dute eta, urtero moduan, jai egitarau ederra prestatu dute. Goizean goiz hasiko dira: 09:00etan kirol txapelketak, 11:00etan txosnen irekiera eta arrautza jaurtiketa, 12:00etan etxafuegoa eta brindisa, 13:00etan auto lasterketa, 14:30ean herri bazkaria Iturripeko pilotalekuan -txartelak salgai Kantinean- eta eguneko planaz amaitzeko, jokoak 17:30etik aurrera. Iluntzean eta gauean, nola ez, zuzeneko musika izango da protagonista -20:00etan hasita-: Azken Aukera, Kryzer, Etor-kizun Beltza, Drop! eta Fiachras. Amaitzeko, karaokea.

TXALOAK ETA TXISTUAK



Arrasate Musikal atarian putzua sortzen da

Irakurle batek jakitera eman digunez, egun Arrasate Musikal dagoen Monteron jauregiaren kanpoaldean sekulako putzua sortzen da euria egiten duenean. Apirilean euria egin du ia egunero eta egun horietan putzua izan da bertan. Konpontzeko eskatu du.

Nubi elkarte aurrera, gurean bizi diren sahararrei esker

Herri sahararri babesa emateko asmoz, 2004an sortu zen Nubi elkarte baina 2011 amaieran desagertu egin zen jende faltagatik. Hala ere, gurean bizi diren zenbait sahararrek konpromisoa hartu dute elkarrekin jardunarekin jarraitzeko. *Oporrak Bakean* programarakin dabiltza orain eta dagoeneko zehaztu dute lehen helburua: Arrasaten bi familia aurkitzea 11 urteko mutil eta neska batendako. Bi bide daude parte hartzeko: *nubi-elkarte@gmail.com* helbidera idaztea edo 685 72 48 17 telefono zenbakira deitzea.

Hondakinen kudeaketa gaur Tokiko batzarrean

Astero moduan, hainbat gai jorratuko dira gaur Tokiko Gobernu batzarrean. Besteak beste, Ingurumen batzordean Hondakinen Kudeaketarako Kontseiluaren eraketa onartuko dute eta kontseilu horren dinamizaziorako lanak esleituko dituzte. Bestalde, Mugikortasun planaren ildotik, bidegorriak izango dituzte hizpide: herri barrutik igarotzen diren bidegorri zatiak lehenbailehen garatzea eskatuko dute. Eta hezkuntza arloan, Udaleko haur eskola zerbitzua esleitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

Udalak atez atekoa "herritarrekin batera" ipiniko du martxan

- ▶ Zaborraren kudeaketaren gaineko hitzaldi bi, asteon
- ▶ Iñigo Iñurrategi eta Carlos Ormazabal dira hizkariak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Udal Gobernuak atez ateko zabor bilketa sistema martxan ipintzeko erabakia hartu du, baina uste du atez atekoa "sistema malgua" dela eta hura martxan ipintzeko ezinbestekoa dela "herritarrekin elkarlana". Hori horrela, eta hondakinen gaia marko orokorrago batean kokatzeko, *Etorkizuneko gizar-teaz, biharko bizimoduaz izeneko* jardunaldiak antolatu dituzte. Egubakoitzean, maiatzak 11, jardunaldion bigarren saioa egingo dute osoko bilkuren aretoan (18:30). Iñigo Iñurrategi

bergararrak *Bestelako bizimodurako herrigintza. Transition Towns* eredua tailerra eskainiko du. Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegian dihardu lanean Iñurrategi eta bere hitzaldiaren nondik norakoak kontatu dizkigu: "Krisi energetikoak eraginda garapen eredu, eta beraz, bizimodua aldatu beharrian izango gara; gainera, ez da aukera bat izango, derrigorrez egin beharreko gauza bat baizik. Komunitate bezala, herri bezala, antolatzeko beharraz hausnarketa eragitea izango da nire helburu nagusia".

Herritarrekin eta auzoz auzo

Udal Gobernuak ordezkariek azaldu dute herritarrekin batera ipiniko dutela martxan atez ateko bilketa sistema. Hori horrela, herritarrekin harremanak has-teko hiru bilerak egingo dituzte: lehenengoa eragileekin, bigarrena merkatariekin eta hirugarrena herritarrekin bilera irekia. Bilera horietan atez ateko sistemaren nondik norakoak azalduko dira, Bergarako errealitateari egokitu.

Hiru eremu horietan bilerak egin ostean auzoz auzo saioak egiteko asmoa du Udalak. "Bile-



Carlos Ormazabal. | GOIENA



Iñigo Iñurrategi. | GOIENA

ra horiekin bergararrak entzun nahi ditugu eta dituzten beldurrak uxatu, kezkek argitu eta beharrezkoak diren azalpenak eman", azaldu dute Udal Gobernuak ordezkariek. Lanketa espezifiko bat egitea ere aurreikusten dute: eskola, etorkin, erretiratu eta elkarte gastronomikoekin.

Horrez gain, ekainetik aurrera lau informatzaile hasiko dira lanean herritarren galderei erantzuteko eta laguntzeko. Informatzaile horiek, besteak beste, dendaz denda joango dira bakoitzaren errealitatea ezagutu eta entzuteko.

Bukatzeke udazkenean aspektu teknikoaren kontrafasea egingo dute, auzo auzo bilerak egingo dituzte berriz zintzilarioen kokapena eta abar azaltzeko.

Bergarako Udalak herritar guztiak animatu dituzte jardunaldi horietan parte hartzera: "Atez ateko sistemarekin ados ez daudenak barne, guztion artean kezkek argitu eta Bergara hobe bat eraikitzea da helburua".

Eguaztenean Carlos Ormazabal

Eta hain justu ere, EAJk antolatuta, zaborraren kudeaketaz hitz egitera etorriko da Carlos Ormazabal Ingurumen diputatu ohia. Hitzaldia eskaini du eguaztenean, maiatzak 9, Irizar jauregian. "Atez atekoaren kontra gaude, Ormazabalek zaborraren arazo modu integratuean lantzeko beharraz hitz egingo du. Atez-atekoa bilketa sistema soil bat besterik ez da, ez du zaborraren arazoa konponduko", azaldu du Bergarako EAJk.



Gazte talde bat eskolako jolastokian berbetan. | LITURBE

Seme-alaba nerabeekin nola jokatu ikasteko aukera

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak zortzi orduko ikastaroa antolatu du; izenematea zabalik dago

A.B. | BERGARA

Nerabezaroa dibertigarria bezain konplikatu izan daiteke gazteendako. Sarri adin horretako neska-mutikoak etxera doazenean egunean zehar izandako arazoak eramaten dituzte beraiekin: lagunen arteko tirabirak, azterketen edo lanaren presioa, maite duten pertsonen edo harremanen galera. Kontzientzia nahasketak ere ematen dira batzuetan; horiek gaixotasunagatik gertatu daitezke edota baita toxikoen eraginagatik ere. Kasu horietan guztietan

gurasoen laguntza ezinbestekoa izaten da, baina sarri ez dute jakiten nola jokatu. Bada, horixe da Bergarako Udaleko Prebentzio Zerbitzuak erakutsi nahi duena, horrelako egoeretan gurasoen laguntzak nolakoak izan behar duen. Horretarako zortzi orduko ikastaroa antolatu du.

12 eta 18 urte bitarteko gazteak

Egoera zailetan jokabide eraginkorrak izateko hainbat jarraibide emango dituzte 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten

gurasoendako. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko dira. Bertan ikasiko dira, besteak beste, erlaxazio eta kontzentrazio teknikak, hemen eta orain egoteko formulak eta adimen emozionalaren garapenerako teknikak. Horrez gain rol jokoak eta simulazioak ere egingo dituzte.

Maiatzaren 10a azken eguna

Izenemate epea zabalik dago eguenera arte, hilak 10. Taldeak mugatuak izango dira, gehienez 15 pertsona, eta astean bi saio egingo dira; bakoitza bi ordukoa, 18:00etatik 20:00etara. Maiatzaren 14, 16, 21 eta 23an izango dira saioak. Erain zentroko ordezkarri batek emango du ikastaroa.

Informazio gehiago nahi izanez gero 943 77 91 26 telefonora deitu behar da edo aloidi@bergara.net helbidera idatzi.

KZguneko maiatzeko egitaraua prest dago

A.B. | BERGARA

KZgunek teknologia berriei buruzko doako zerbitzuak eta katalogoak eskaintzen ditu eta maiatzerako ere eskaintza zabal antolatu dute.

Antolatutako ikastaroen barruan, esaterako, Interneten inguruko kurtsoa egingo dute gaur hasi eta maiatzaren 18ra arte. Orduetgia honakoa izango da: 09:00etatik 11:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Irudia eta soinuarekin lotutako programak erabiltzen ikasteko aukera ere eskainiko dute -Picnik, Gimp eta Audicity-. Maiatzaren 21etik 29ra bitartean izango da hori. Orain arte aipatutakoez gain egun bateko edo biko ikastaroak ere egingo dituzte: Metaposta, Sare Sozialak, Eustat, Google Doc, Youtube, Blogger...

Goiz eta arratsalde zabalik

Bergarako KZgunea, Irizar jauregian, zabalik dago astelehenetik ostiralera goizez eta arratsaldez: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Ikastaroen gaineko informazio gehiago nahi izanez gero tutor.bergara@kzgunea.net helbidera idatzi dezake.

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago

A.B. | BERGARA

Bergarako Udalak urtero antolatzen dituen udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago gaurtik aurrera. Maiatzaren 18ra arte izango da horretarako aukera. Interesa duten gurasoak kultura etxera joan beharko dira honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 21:00etara.

Udaleku irekiak uztailearen 2tik 20 bitartean egingo dira eta bertan parte hartu ahaliko dute 2000 eta 2009 urteen bitartean jaiotako umeek.

Pentekoste jaietako herriko plazako txosna lehiaketa atara da

Bergarako Udalak 2012ko Pentekoste jaietan San Martin plazan ipiniko den txosnaren ustiaketa lehiaketara atara du. Interesa duen irabazi asmorik gabeko edozein elkar-tek eta taldek egin dezake eskaera. Udaletxeko Idazkaritzan eta www.bergara.net helbidean jaso ahaliko dute baldintzen plegua.



Javi Bengoa zinegotzia, Josep Ollé, Elortza alkatea, Emilio Cuadrado eta San Xosepeko presidente Iñaki Zabala. | LARRAIZ ZEBERIO

La Caixa eta Udala elkarlanean nagusiendako proiektuetan

Hitzarmena sinatu berri dute La Caixako ordezkariak eta Elortza alkateak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udalak eta La Caixak hitzarmena sinatu berri dute: hirugarren adinako pertsonen zuzendutako *Gen-te 3.0* aisialdi programa abian jartzea da helburua. Arduradunen arabera, horri esker, nagusiek herriko bizitzan parte hartzeko eta boluntario lanean jarduteko baliabideak lortuko dituzte. Haien bizitza kalitatea hobetzeaz gain, helburua da nagusiak hainbat gaitan ekiteko gai direla erakustea eta aktibo mantentzen daitezela ahalbidetzea, ezagutza berrietan

trebatzeko aukera eskainita. Josep Ollé, La Caixako Gizarte Ekintzako saileko zuzendaria eta Emilio Cuadrado, negozio saileko zuzendaria izan ziren aurreko eguztenean sinatze ekitaldian, Jesus Elortza alkatea, Javi Bengoa gizarte zerbitzuetako zinegotzia eta Iñaki Zabala San Xosepeko presidentearekin batera.

Plan estrategikoarekin bat

Alkateak eskertu egin zuen La Caixa moduko erakunde batek Bergaran horrelako proiektu bat

garatzeko eskainitako aukera eta helburuak Udalaren plan estrategikoarekin bat datozela gehitu zuen.

Ikastaroak martxan

La Caixak 1998an jarri zuen abian Gipuzkoan nagusiei zuzendutako programa. 113.000 erabiltzaile inguru dira gaur. Bergaran hainbat ikastaro deitu dituzte. Informatikaz gain, *Activa la mente* edo *Grandes lectores* tailerrak dira aukeran. Argibideak: lacaixa.es/obrasocial webgunean edo 698 09 90 23.



JULIO CALLEJA

Pol-Polek lokal berria

Oxirondo azokatik Udala Pilotalekuko lehen solairura eraman dute Pol-Pol Mendizale Elkartearen bulegoa. Jendearendako astelehenera eguztenera dago zabalik, 19:00etatik 20:00etara. Telefono zenbakia lehengo berdina da: 943 76 48 51. Bestalde, ez ohiko batzarra deitu dute hilaren 23rako 18:30ean lehen deialdia eta 19:30ean bigarrena. Aurrekontua eta zuzendaritza batzordearen berritzea izango dituzte aztergai, besteak beste.

'Euskaraz bizi nahi dut' lasterketa antolatzeko bilera izango da bihar Irizar jauregian

Euskaraz bizi nahi dut lasterketa antolatzeko bilera izango da bihar, martitzena, Irizar jauregian, 18:30ean. Euskararen aldeko lasterketa Kontseiluak antolatzen du eta datorren irailaren 22an ospatuko da. Bergarako ikastetxeetako, euskalgintzako eta kirol-etako ordezkariak eta interesa duen herritar guztiei bilerara joateko deia egiten zaie.

Autoestima ikastaroa Bizikasirekin maiatzeko eguztenez, arratsaldean, etzi hasita

Bizikasiren eskutik, autoestima ikastaroa izango da maiatzeko eguztenez Miguel Altuna institutuan, 18:00etatik 20:00etara. Etzi, eguztenez, izango da lehenbiziko saioa eta maiatzaren 30ean azkena. Ikastaroa gazteleraz izango da eta izen-emateak 25 euro balio du. Plaza mugatuak. Argibideak eta izen-ematea 943 76 23 94 telefono zenbakian.

San Martzialgo erromerian izango den kantina eta txosnarako eskaerak, maiatzaren 30era arte

Uztailaren lehen San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta txosnaren esplotazioa adjudikatuko ditu Udalak. Irabazi asmorik gabeko elkarteak eta talde herrikoiek maiatzaren 30era arte daukate eskaerak aurkezteko epea zabalik. Interesatuak udal-txean edo 943 77 91 00 telefono zenbakian jaso ditzakete argibide gehiago.

Odol ateratzea egingo dute etzi, eguztenez, anbulatorioan; parte hartzea eskatu dute

Odol Emaileen Elkartek gogoratu duenez, maiatzean bi odol ateratze egingo dituzte, hilaren 9an eta 23an hain zuzen ere. Ohi bezala, anbulatorioan egingo dituzte, 18:00etatik 20:30era. Odol beharra dagoela eta, odol emaien parte hartzea eskatu dute Bergarako elkartetik. Elkartearekin harremanetan jartzeko: 943 76 36 90 (Antonio Herzog) edo 943 76 22 36 (Dulce Rodriguez).

Helduen uda kanpainarako izen-ematea, hilaren 22ra arte

E.M. | BERGARA

Heldu eta gazteen 2012 uda kanpainarako izen-ematea zabaldu dute Agorrosin Kirolgunean. Kirol jarduerak ekainaren 25etik uztailaren 20ra egingo dituzte eta bertan parte hartzeko izen-ematea maiatzaren 22a baino lehen egin behar da. Ohi denez, eskaintza zabalda da aurten ere: irristaketa, aerodance, pilates, areto txirrina, yoga, igeriketa, aquarobik, gimnasia armonikoa eta beste hainbat. Goizeko ordu-tegian bi aukera izango dira bakarrik: 3. adinekoen gimnasia eta areto txirrina.

Prezioak ezberdinak dira Bergaran erroldatuta daude-

nendako eta ez daudenendako eta abonatuak deskontuak izango dituzte zenbait jardueren kasuan.

Bi bilera bihar

Izen-ematea egiteko epea amaitu ondoren, behin behineko zerrendak maiatzaren 30ean aterako dituzte eta zozketa egin ostean plaza libreak betetzeko aukera izango da.

Informazio guztia agorrosin.net webgunean aurkituko duzue. Era berean, interesatuak Agorrosin Kirolguneko bulegora edo 943 77 70 95 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.



Yoga izango da aukeretako bat aurten.

Hasi dituzte Kasablanka eta Torreauso lotuko dituen lurrazpiko pasabideko lanak

- ▶ Pasabideari esker seguruagoa izango da errepidea gurutzatzea oinezko zein txirrindulariendako
- ▶ Oñati eta Zubillaga lotuko dituen bidegorriak 3,9 kilometro izango ditu eta hiru zatitan egingo dute

TXOMIN MADINA | OÑATI

Oñati eta Arrasate bidegorriarekin lotzea da Foru Aldundiaren lehentasunetako bat, eta hori lortze aldera abian dira dagoeneko Oñati eta Zubillaga auzoaren arteko bidegorri zatiaren lanak. Lanak urte hasieran jarri ziren martxan Zubillaga inguruan, auzunea zeharkatzen duen errepideko egokitzapenekin.

Azken asteotan baina, Oñatiko herrigune inguruan ere nabaritu daitezke bidegorriaren lanak eta horren adibide da Kasablanka eta Torreauso lotuko dituen lurrazpiko pasabidea ari dela itxura hartzen. Hondeatzeko makinak ari dira apurka apurka Cartonajes Arregitik Kasablankako umeendako parkeraino doan lurrazpiko pasabidearen zuloa

egiten. Pasabide horri esker, errepidea lur azpitik gurutzatu ahalko dute txirrindulari zein oinezkoek. Hala, ez dute San Pedroko bidegurutzetik pasa behar eta errepidea gurutzatzea seguruagoa izango da.

Hiru zati

Oñati eta Zubillaga lotuko dituen bidegorriak 3,9 kilometro izango ditu eta berau egiteko ia bi milioi euro bideratuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hiru zatitan banatu dituzte bidegorri tramu honen lanak: lehenengoa, Zubillagatik Madalenako ermitaraino joango da eta Fagorreko biribilaren azpitik joango litzateke, tunel batetik. Bigarren zatia, Madalenatik Azpikua baseriraino doa eta, hirugarrenak, Azpikua



Obrak Cartonajes Arregi enpresaren atzean. | TXOMIN MADINA

eta Kurtzetxo ermita lotuko ditu. Moia enpresa ari da lanak egiten eta aurreikuspenen arabera 10 hilabete iraungo dute. Hala, gauzak ondo badoaz, urrian amaituta behar luke bidegorriak.

Ezaugarri dagokienez, bidegorriak 3,5 metro zabal izango du eta bizikleten eta oinezkoen zatiak bereizita egongo dira: bi metro bizikletentzat eta 1,5 metro oinezkoentzat. Bide guztian argiak egongo dira, eta Diputaziotik aurreratu dutenez azpiegitura oso egokia izango da lantegi askotara modu iraunkorrean eta autoa hartu barik joan ahal izateko. Bidegorri zati honen proiektuak baina, aldaketak izan ditzake oraindik.

Bizikleta foroa gaur

Fagor Industrial atzealdea eta Madalenako ermita puntuen artean aldapa egitea eskatzen du proiektuak eta alternatiba moduan, bidegorria Madalena gasolindegi aurrealdetik egokitzea proposatu da. Gaia aztertzeke, udal ordezkariak Biziker-eko teknikariarekin elkartu dira eta bileraren ondorioak gaurko bizikleta foroan azalduko dituzte.

Udal euskaltegiarekiko kezka apirileko osokoan

UEMAN sartzea eta Elgetako Udalarik elkartasuna adieraztea ere onartu zituen udalbatzak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko udal euskaltegiaren inguruko auziari arduratsuko heltzeko eta baliabideak topatzeko eskatu die, besteak beste, Oñatiko udalak Jaurilaritzari eta Haberi. Bilduk eta EAJk elkarrekin aurkeztutako mozioak jasotzen ditu eskaera horiek eta aho batez onartu zituen udalbatzak apirileko ohiko osoko bilkuran.

Bestalde, Oñati UEMAn sartzea ere onartu zuen udalbatzak apirileko osokoan. Bilduk alde bozkatu zuen eta EAJ, berriz, abstenitu egin zen. EAJko bozemaile Lourdes Idoiagak azaldu zuen Oñatiko udalak euskara izan duela iparroratz eta norabidea ez duela galdu. "Beti dago perfekzionatzeko aukera, baina nabarmentzeko da aurreko legealdietako inplikazioa eta lidergo politikoa", gaineratu zuen Idoiagak. Nerea Zubia euskara

zinegotziak erantzun zion UEMAK berak ekarri baino, Oñatik berrari aportatu dakiokena ere kontuan hartu behar dela. "Udala bera euskalduna dela asko esatea da. Bestalde, nahiz eta euskararen erabilera herrian handia izan, ez da erlaxatu behar". Bost ordezkari izango ditu Oñatik UEMAn. Horietako bi EAJkoak izatea proposatu dio udal gobernua oposizioari, baina "koherentziagatik eta ez mesprexuegatik" uko egin dio eskaintzari EAJk.

Elgetako Udalarik elkartasuna

Galde erreguetan, Elgetako Udalarik elkartasuna adierazteko proposatu zuen EAJk, apirilaren 24an Espainiako ejertzitoak manobra militarrik egin zituelako herrian. Udal gobernua bat etorri zen. Horren harira "erregeari barkamena eskatzea tokatzen zaiola" esan zuen alkateak.



Apirileko osoko bilkura. | OE

Liburuaren hamabostaldia hasi dute gaur herri eskolan

O.E. | OÑATI

Errekalde herri eskolan liburuaren hamabostaldia hasi dute gaur, astelehena. Horrela, hilaren 18a bitartean liburuei eta trasmisioari buruzko ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Antolatu dituzten ekintza ezberdinen artean, adibidez, hizkuntza ezberdinetako ipuinen kontaketa dago: euskaraz, gaztelaraz, ingelesez, alemanieraz, frantsesez, portugesez edo ukrainieraz kontatutako ipuinak entzungo dituzte. Ikasle nagusienek ipuin musikatu bat antzetzuko dute eta erretiratuak elkarteko antzerki tailerreko zenbait kideren bisita ere jasoko dute ikastetxeko ikasle eta irakasleek, aintzinako kontu, kondaira eta ipuinetaz gozatuko elkarrekin.

Ikastolen eta euren mugimenduari buruz jardungo dute bihar

Ikastolen eta euren mugimenduari buruzko hitzaldia emango du bihar, martitzena, Iñaki Etzezarretak Oñatin. Ikastolen mugimenduari ibilbidea, ibilbide horretan izandako gorabeherak, ikastola zer den eta zer ez den eta antzerako kontuak izango ditu hizpide. 18:30ean hasiko da hitzaldia Txantxiku ikastolako areto nagusian.

Mundumirako kamisetak salgai daude 24 eurotan

O.E. | OÑATI

Mundumirako elkartasun kamisetak turismo bulegoan eta Juanitosa dendan daude salgai 24 eurotan. Saltzen den kamiseta bakoitzeko 3 euro, Debagoieneko gobernu kanpoko erakundearen proiektu-tara bideratuko dute aurreko sei edizioetan egin duten bezala. Aurtengo kamiseta ere Ternua etxeak egin du eta aurreko urteetako diseinu bera jarraitzen du.

Guatemalan

Kamiseten salmentatik ateratzen duten dirua bailarako hiru gobernu kanpoko erakundeak jasoko dute: Oñatiko 7 Udaberri taldeak, eta Arrasateko AMSOGRA eta AMS elkarrekin hain zuzen ere. Oñatiko 7 Udaberri erakundeak kideak Guatemalan dihardute lanean, gizartearen eraldaketaren alde eta emakume indigenen eskubideen babesaren alde. Arrasateko taldeak, berriz, Nikaraguako eskualde ezberdinetan dihardute.

Mundumira, munduko kulturen festa, maiatzaren 18tik 20ra egingo da aurreko, Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan. Aurreko edizioetan bezala, kulturartekotasunaren adibide asko egongo dira aurtengo Mundumira festan. Berritasunen artean, *slow food* gastronomia azoka dago, produktu ekologikoen azokarekin batera.

1999 eta 2000 urteetan jaiotako neskendako deialdia Aloña Mendik

1999an eta 2000 urteetan jaiotako neskendako deialdia egin du Aloña Mendi kirol elkarteko futbol taldeak: hilaren 9an, eguaztena, entrenamendua egingo dute Azkoagainen, 17:00etan. 2012/13 denboraldian infantil mailako futbol taldea osatu gura dute 12 eta 13 urteko neskekin. Entrenamendura nork bere arropa eraman behar du.

Txiki Txoko haur eskolak zabalik du matrikula epea

Maiatzaren 11 arte, egubakoitza, dago zabalik matrikula epea Txiki Txoko haur eskolan. Datorren irailean edo urrian hasiko diren ume berriak matrikulatzeko epea da. Horretarako inprimakiak entregatu behar dira haur eskolan bertan, Olakua auzoan. Horretarako ordutegia da: 09:00etatik 11:30era eta 14:30etik 17:00tara.

Eguenean bukatzen da argazkigintza ikastaro berrirako izenematea

Ilunpetan argazkigintza taldeak bigarren argazkigintza ikastaro bat antolatu du, hasitako tailerrak izan duen arrakasta ikusita. Ikastaro horretan izena emateko azken eguna maiatzak 10 da. Gaztelekuan apuntatu behar da. Itziar Bastarrika izango da irakaslea eta prezioa 50 euro da. Ikastaroa maiatzaren 15etik ekainaren 13ra da.

ESKORIATZA

Betiko umore onaz ospatu ditu Errastik 102 urte

- ▶ Omenaldia egin zioten Udalekoek eta Olazar jubilatuen elkarteko kideek
- ▶ Ospakizun handia zapatuan egin zuen, kopari eta puruari muzin egin gabe

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Egubakoitzean, 102 urte bete zituen Bernabe Errasti eskoriatzarrak. Egun handia izan zen berarendako eta baita bere familiarendako ere. Errastik oso "pozik" zegoela esan zigun.

Zorion ugari jaso zituen

Etxean bisita ugari jaso zituzten Bernabe Errastiren urtebetetze egunean: belaunaldi desberdinetako familiartekoak elkartu ziren eta herriko lagun ugari ere joan ziren bisitan.

Eguerdian, Udaleko eta Olazar jubilatuen elkarteko ordezkariak ere izan ziren Errasti zoriontzan; opari eta guzti joan ziren.

Ospakizun handia, baina, zapatuan egin zuten. "Familia guztia elkartuta ospatu dugu aitaren eguna, hamabost lagun inguru batu gara" azaldu zigun Bernabe Errastiren seme Javierrek. Eta gaineratu zigun ez dagoela sekreturik bere aitaren adinera horrelako sasoiarekin iristeko: "Ez dago sekreturik,



Bernabe Errasti Udaleko eta Olazar jubilatuen elkarteko ordezkariekin. | A.T.

baina aitak esaten du jubilazioa asmatu zelako hartzen direla urte asko, lehen hil arte lanean egon behar izaten zirelako".

102 urterekin, umorerik ez du galdu, gainera, Errastik: "Beti izan da umore onekoa eta esker

onekoa, pozik egoten den pertsona horietako da aita" zioen semeak. Kontatu zigunez, gainera, ospakizun egunean ez zuen barkatu kopa edan eta purua erre gabe. Urte askoan, horrela jarrai deza la Bernabe Errastik.

Hondakinen kudeaketaren inguruko batzarrak

A.T. | ESKORIATZA

Eskoriatza ere, zero zabor norabidean kanpainaren barruan, herritarrei zuzendutako hainbat batzar deituko dituzte. Batzarretan, hondakinen arazoari irtenbidea emateko proposamena aurkeztuko du Udalak, eta atez atekoa martxan dagoen herri batetako pertsona baten esperientzia ezagutzeko aukera ere egongo da. Hiru batzar egingo dira: bi herrigunean bizi direnen biztanleei zuzendutakoak eta beste bat elizateetako herritarrei bereziki zuzendutakoa.

Batzarrak

Lehenengo batzarra bihar, martitzena, izango da, 18:30ean, Ibarraundin, euskaraz. Hurrengo eguaztenean izango da, 19:30ean, toki berean, elizateetako biztanleei zuzenduta. Hirugarren batzarra hilaren 15ean izango da, martitzenean, 19:30ean, gaztelaniaz.

Maiatzean zehar izango dira beste ekintza batzuk atez atekoa gertutik ezagutzeko aukera emango dutenak.

ESKORIATZA

Bigarren eskuko azokarako izen-ematea

A.T. | ESKORIATZA

Mundumiran Eskoriatzan egingo diren ekintzen artean, hilaren 20rako bigarren eskuko materialen azoka antolatu dute.

Ekintza horretan edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, baina bigarren eskuko materiala salgai jarri nahi dutenek mahai bat hartzeko izena eman beharko dute egubakoitza baino lehen. Izena kultura etxean eman beharko dute, eta, horretarako, bi bide daude; 943 71 46 88 telefonora deituta edo aintzane@eskoriatza.net helbidera idatzita.

Udalak mahai bat utziko dio parte-hartzaile bakoitzari, eta non jarri esango zaio. Santa Mariñe plazan izango da bigarren eskuko azoka hilaren 20an, 11:00etatik 14:00etara bitartean.

Udaleku irekietan izena eman daiteke dagoeneko

A.T. | ESKORIATZA

Uztailaren 3tik 20ra bitartean egingo dira udalekuak Eskoriatzan, eta izena eman dezakete 2000. eta 2008. urte bitartean jaiotako haurrek.

Izena emateko tokiak

Izena emateko bi toki jarri dituzte eskura: kultura etxean dagoen Gazteria Zerbitzuan astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara; eta Tortolis ludotekan astelehenetik egubakoitzera, 16:00etatik 20:00etara. Interesatuak hilaren 14ra arte, hau da, datorren astelehenera arte dute izena emateko aukera. Horren harira, Udaletik ohartarazi dute ez dela epez kanpoko izen-ematerik onartuko.

ARETXABALETA



ARETXARTE

Aretxarteko saridunak

Aretxarte merkatarien elkarteak astero banatzen dituen sarietan, joan zen asteko zapatuan, apirilaren 28an, eguerdiko azken bezeroak saritu zituen. Akorde tabernak emandako edari sorta jaso zuten Titare mertzerian eguerdiko azken erosketa egin zuten lurre eta Amaia Olaizola ahizpek. Argazkian amarekin batera azaltzen dira.

Udalak obra eta zerbitzuetako peoien lan-poltsa osatu gura du

Eskola ziurtagiria izatea eskatzen da, eta izena emateko azken eguna da maiatzak 21. Ekonomia teknikaria ere egun erdiz kontratatu nahi dute urte amaiera arte; kasu horretan, zientzia ekonomikoetan lizentziaduna izatea eskatzen dute eta hilaren 28ra arte eman daiteke izena.

Loramendi elkartearen batzar orokorra egunean

Udaletxe zaharrean egingo da batzar orokorra hilaren 10ean, eguna, 19:00etan (bigarren deialdia). 2011ko jarduerak eta diru kontuak azalduko dituzte eta 2012ko plangintza eta diru kontuak aurkeztu. Elkarteko bazkideek ekarpenak egin eta galdetzeko aukera izango dute.

'Berrikusketak' margolanen erakusketa ikusgai, maiatzean

A.T. | ARETXABALETA

Audrey Kawasaki guraso japoniarrak dituen artista estatubatuarra da, eta egiten dituen emakume gazteen erretratu erotikoengatik egin da ezagun. Bada, haren lanetan oinarritutako erakusketa ipini dute Arkupen.

Ainhoa Cabero pintura irakaslearen klasean kasualitatez ezagutu zuten Kawasaki, eta "izugarri" gustatu zitzaion. "Irakasle ikuspegitik, oso interesgarria iruditu zitzaidan haren lana, batez ere figura eta erretratua egiten irakasteko", esan digu Caberok. Bada, ikasleek lanak egiterakoan Kawasakiren pinturak hartu dituzte abiapuntu Arkupeko erakusketarako.

Hala ere, "nork bere erara eta gustura moldatu du jatorrizko obra", azaldu digu Caberok, eta argitu digu eurek ez dutela egurra erabili euskarri moduan, lan gehienak mihisean eta olioan egin dituztela, baina akuarela eta arkatza ere erabili dituztela paperean.

Hilaren 31ra arte

Berrikusketak margolanen erakusketa zabalik egongo da hilaren 31ra arte Arkupe kultura etxean, eta hauxe izango da ordutegia: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, zapatuetan 11:00etatik 13:00etara, eta domeka eta jaiegunetan itxita egongo da.



Erakusketan ikusgai dauden bi lan. | MIRIRI ALTUBE

ARETXABALETA

'Nafarroa bizirik' taldea eguaztenean Durana kalean

Etzi, eguaztana, *Nafarroa bizirik* taldea Durana kalean izango da 18:30etik aurrera. Infomazioa banatzeaz gain, material salmenta ere egingo dute *Nafarroa Bizirik* taldeko kideek; beraz, aurretik eskatu ziren kamisetak banatuko dituzte eguaztenean. Informazioa jasotzeko, herritar guztiak daude gonbidatuta.



Elgetako erretiratuek jaietan egindako dantzaldia. | LZ

ELGETA

Hasi besterik ez da egin; maiatzeko aste bukaerak ekintzaz josita datoz Elgetara

Xabier Montoia eta Oskorri izango ditugu Espaloian; gaztetxeak, berriz, Asentzio eguneko ospakizunak eta Umeen eguna egingo ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Magia Mostrarekin hasi dugu hilabetea Elgetan, baina kultura hitzorduak ez dira hor amaituko. Hurrengo hiru aste bukaerak ere ekintzaz josita datoz; gehienak hilaren 18tik 20ra arteko egunetan pilatzen badira ere.

Bariku honetan, esaterako, Xabier Montoia musikaria izango dugu Espaloian; 22:30ean hasiko du emanaldia. Biharamunean, hilak 12, dantzaldirako deia jaso dute herriko erretiratuek. Dantzarako gogoz daude erretiratuek eta Umore Ona izeneko taldea etorriko da. Ekitaldi hori ere kafe antzokian egingo da.

Bolatokiak ere zapatuan egingo du seigarren urteurreneko ospakizuna. Bolo tiraldia iragarri dute herriko koadrilendako, eta ondotik festa egongo dela ziurta-tu dute.

Asentzio eguna eta Oskorri

Maiatzaren 20an ospatuko dugu aurten Asentzio eguna. Gaztetxeak badihardu ekitaldiak antolatzen. Aurreko barikurako, hilak 18, kontzertuak iragarri ditu.

Egun berean, maiatzaren 18an, Oskorri taldeak emanaldia egingo du kafe antzokian, 22:30ean hasita. Natxo de Feliperen taldea The Pub Ibiltariarekin dator Elgetara. Hamabost kantuk osatzen dute aurtengo The Pub Ibiltariaren programa, eta letrak zein musika partiturak Espaloian daude.

Elgetako koroko kideek baieztatu dute kantu bat abestera igoko direla eszenatokira. Prestatzen hasiak dira dagoeneko. Beste inor interesatuta egongo balitz kontzertuaren inguruko materiala eskatu besterik ez du Espaloian.

Maiatzari amaiera emateko Umeen eguna egingo dute hilaren 26an, zapatua. Gaztetxeak antolatzen du ekintza hori. Herrixan dantzan ere ez dugu falta izango maiatzaren 27an.

Kirol hitzorduak hilaren 19an

Hil honetan bi kirol hitzordu esanguratsu ditugu Elgetan, biak maiatzaren 19an, zapatua, jokatuko direnak.

Frontenis txapelketako finalak jokatzeke daude oraindik, eta antolatzaileen esanetan hilaren 19an, 12:00etan, jokatuko dira. Bi final daude jokoan. Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa ere jokoan da, eta Elgetako bolatokiak jokatuko dute zortzigarren jardunaldia. Maiatzaren 19an izango da, 17:00etan hasita. Gogoan hartu Elgetak bi talde dituela txapelketa horretan.

Berdintasuna bultzatzen

Bestalde, Emakumeen Nazioarteko Egunaren gaineko mozioa onartu zuten osoko bilkura horretan. Mugimendu feministari bultzada eman gura diotela horrekin aipatu zuen Iñaki Agirreurreta Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, eta berdintasun planak bultzatzeko ahalegina egin.

Daiteke gizarte aholkularitzarekin berdintasun plana lantzen ibili dira sei hilabetetan Bideberri mankomunitateko kideak, tartean Gatzaga, eta Udal kontuetan ere berdintasun politika bultzatzeko erabakia hartu dutela jakinarazi zuten udalbatzako kideek.

ARAMAIO

Turismoak gora egin du Zuiako Koadrilan: iaz baino 36 bisitari gehiago

Horren adibide da Gorbeia Central Park saritua izan zela turismo arloko Alimara sari ospetsuetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Turismo sektoreak gora egin du aurten ere Zuiako Koadrilan. Azken bi hilabeteetako neurketak nahikoa izan dira –Turismo bulegoa martxoan zabaltzen da– azken urteetako joera ona berresteko. Datuak pozgarriak dira: 2011n, garai honetarako 276 bisitari izan ziren eta aurten 312 lagun etorri dira eskualdera. Hau da, aurten iaz baino 36 bisitari gehiago izan dira.

Koadrilako Komunikazio Sailak prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez, turista gehienak Euskal Herrikoak izan dira, bizkaitarrak eta arabarrak batez ere. Estatu mailan madrildarrak izan dira nagusi eta gero kataluniarrak.

Bigarren errekonozimendua

Jende gehiago etorri da zer ikusi badagoelako. Eta zer ikusi horren adibide garbia da Gorbeia Central Park. Bada, joan den apirilaren 20an Gorbeia Central Park eskaintza turistikoa beste sari bat irabazi zuen. Azken urtean jasotako bigarren saria da honakoa, Sustapen ministerioak ematen dituen Alimara sari ospetsuen barruan. Tokiko erakunde turistikoen atalean saritu dute, turismo eta ostalaritza sektoreak, publikoak zein pribatuak, bere baliabideak jakitera emateko egindako lanagatik. Saria jasotzen izan zen Lierni Altuna aramaioarra, Zuiako Koadrilako presidente moduan.



Sari banaketa ekitaldia; tartean, Lierni Altuna aramaioarra. | LC CONSULTORES

ANTZUOLA

Terrazetako ordenantza berria onartu da osokoan

Bi langile kontratatzea eta pilotalekuaren eta Eztalaren arautegiak aldatzea ere onartu dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Eguaztanean egindako osokoan, zenbait ordenantzaren aldaketak onartu zituzten. Hala, pilotalekua abuztuan irekita egotea eta Eztala futbol zelaiaren ordu-tegia eta eskolako patioaren erabilera aldatzeko proposamenak onartu zituzten.

Ordenantza horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean irtengo dira eta 30 egunez izango dute herritarrek alegazioak aurkezteko aukera.

Terrazen erabilera berria

Iñaki Iartza Hirigintza zinegotziak terrazen tasak erabilpena egokitzen saiatu direla azaldu digu. "Orain arte, urte osoan tasa bera zegoen, eta hori egokitu gura izan dugu. Negu partekoa eta udakoa berdintzeko tasak egokitu nahi ditugu".

Erretzearen legearen ondorioz, jendea neguan ere terrazan egoten dela azaldu digu Hirigintza zinegotziak: "Terrazak neguan erabilera izaten dute, eta, beraz, tabernariei lagunduz, tasa berriak jarriko ditugu".

Bi lanposturen deialdia

Udalean dauden bi lanpostu egonkortzeko asmoa du Antzuolako Udala Gobernuak.

Eguaztente osokoan, izaera polibalentea duten bi langile –horietako bat elektrizitatean espezialista dena– kontratatze deialdia egiteko proposamena onartu zuten. "Gure asmoa da lanpostuak egonkortzea", azaldu zuen Mikel Jauregi zinegotziak. Aldizkarian irten, eta 30 eguneko epearen ostean deialdia zabalduko dute.

LEINTZ GATZAGA

Ortuak jartzeko aukera eskaini gura die Udalak herritarrei

Udalak utzitako lursailetan egokituko dituzte eta araudia gertatzen dabilta orain

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ortuak jartzeko lursail eskaera jaso dute Udala ordezkariak azken hilabeteotan, eta Udala hori bideratzeko lanetan dabil. Apirilaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran ziren onartzekoak lursailen lagapena eta aisialdirako ortuen erabilera arautuko duen erregelamendua baina egun batzuk

atzeratzea erabaki zuten orduan. Aurretik zenbat lursail egokitu eta araudia behar bezala gertatzea gura dute. Hala ere, Udala ordezkariak jakinaren gainean daude lursail horiek presa dutela; izan ere, udaberria aurrera doa eta landaketak egiteko sasoa ere gainean dago. Horregatik lehenbailehen onartu gura dute.

SARI NAGUSIA



SPA ZIRKUITUA ETA ASTEBURUKO MENUA

Debako AISIA hotelean, SPA zirkuitua eta asteburuko menua hoteleko jatetxean.

Bidali KLUBA AISIA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



MUNDUMIRA



MUNDUMIRAKO 3 sari sorta: kamisetak, liburuak eta Euskal Herria aldizkarian harpidetzak

Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



Parte hartzeko epea: maiatzak 10

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Atera etekina

goienakluba 2012

%15 eko deskontua



BEGONDO
optika
Aretxabaleta
943 79 98 21

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAI



AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99



ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03



AVIA MEGA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39



EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78



ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96



GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41



GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentruak
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55



GUZTIZ
EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.



IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48



IZENADUBA BASOA
Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61



JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45



LASTAI
haurtaintza eta atsedeen gunea
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71



MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75



NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89



RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72



TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA

IGOERA FASEA

Bi irabazi baina hirugarrenean kale egin du Ford Mugarrik

Gijonen jokaturako igoera fasean ez dute helburua lortu Ane Herreroren mutilek: atzo, RGC Covadongaren aurka 21-18 galdu zuten

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Lehenengo Nazional mailako txartela eskura izan dute arrasatearrek. Gijonen jokaturako igoera fasean ondo ibili dira, baina azken emaitzak ez du lagundu. Egubakoitzean eta zapatuan irabazi egin zuten, baina atzo, domeka, RGC Covadongaren aurka galdu egin zuten.

Covadongak etxean jokatu zuen eta, ondorioz, arrasatearrek aurrez zekiten partidu zaila izango zela. "Hainbat urte darabazate igoera fasea etxean jokatzeko, eta aurten igoera lortzeko aukera asko zituzten", azaldu zuen Gijonetik bueltan Ane Herrerok. Aurreneko bi partiduak irabazita, gol averagea alde zuten arrasatearrek, hala garaipena edo berdinketa, biak ziren emaitza onak Ford Mugarriko mutilendako, baina galdu egin zuten.

Hainbat faktoreen eragina

Partiduen norabidean, bi faktore garrantzitsuk izan zuten eragina: batetik, aurreko bi egunetan egindako esfortzuak nekea eragin zuen jokariengan; eta, bestetik, epaileek "etxeko taldearen alde zalantzazko erabakiak" hartu zituztela esan dute Arrasate eskubaloitzaletako kideek. "Taldea asturiarrak egin duen defentsa gogorra ez du behar besteko zigorrik jaso", azaldu du Andoni Arando komunikazio arduradunak.

Atzo, hasieratik ikusi zen gol gutxiko partidua izango zela. Bi taldeetako defentsen lana oso ona izan zen; zer esanik ez, atezainena. Bosgarren minutuko emaitza 1-1 izan zen eta 15. minutuko 3-3. Arrasatearrek Covadongako defentsa gogorra gainditzen saiatu zirenetan, golpeak jaso zituzten. "Etxeko defentsa gogorra moztzen ez dute jakin izan bi epaileek eta gauzak horrela oso zaila izan da jaurtiketa garbiak lortzeko posizio egokiak sortzea", azaldu du Arandok. Lehenengo zatia amaitzeko bi minutu falta zirela, markagailuan eragina izango zuen erabakia hartu zuten epaileek: 6-6 berdinduta zeudela, Arrasateko jokalaria bat egotzi zuten. Azken bi minutu horiek aprobetxatu zituen Covadonga taldeak bi goleko errenta hartzeko: 8-6.

Epaileen dudazko erabakiak

Bigarren zatien hasieran Ford Mugarriko defentsak maila onean jarraitu zuen; hala ere, erasoko jokoan ez zuten Covadongako defentsa apurtzeko aukera larregi izan. Markagailua beti etxeko alde egon zen: 40. minutuan, 13-9. Arrasatearrek buru-belarri jarraitu zuten lanean; hala, 45. minutuan 14-13 hurbildu ziren markagailuan. Baina, dena alde zutela ematen zuenean, berriro ere epaileen lanak eragina izan zuen partiduan: Ford Mugarriko bi jokalaria jarraian egotzi zituzten eta aurkariak aukera aprobetxatu zuen berriro ere markagailuan aldea handitzeko: 16-13.

Ane Herreroren taldeak gogor jarraitu zuen lanean. 54. minutuan 17-17 berdindu zuten lehia, baina berriro ere, hainbat erabaki "eztabaidagarri" izan ziren etxeko alde. Covadonga 19-17 jarri zen aurretik eta, ondorioz, arrasatearrek ezin izan zioten buelta eman markagailuari. Azkenean, 21 eta 18 amaitu zen lehia etxeko alde. Partiduko protagonistak

ondokoak izan ziren: Ford Mugarritik: Ekaitz Aranburuzabala, Asier Valle, Iñigo Salterain, Xabier Altxelai (3), Kepa Gruceta, Mikel Zuloaga (1), Andoni Bernal (4), Iker Zubiaurre (2), Arkaitz Masip, Jorge Santos, Pello Olabarria, Asier Larrañaga (3), Aitor Aldanondo, Nestor Calleja (2), Kepa Isasmendi (2) eta Josu Herrero (1); eta Grupo Covadongatik: Daniel Garcia, Carlos Gutierrez (2), Hector Iglesias, Raul Vallejo (1), Juan Tisas, Jose Garcia (6), Jordan Sanchez, Jaime Lopez (3), Oriol Diez, Javier Casiaño, Pablo Blanco, Juan Carlos Lopez (2), Miguel Suarez (1), Diego Serrano, Alfonso Vallejo (1) eta Jesus De la Fuente (5).

Arrasateko Eskubaloitzaletako esanetan "pena handia da jokalaria, entrenatzaile, arduradun eta zaletuek egin dutena eta gero, igoera fasea horrela amaitzea". Hala eta guztiz ere, Herrero entrenatzaileak zera dio: "Gure jokariak denboraldi osoan eta aste bukarrera honetan egin duten lanaz harro egon behar gara, baita zaleek eman diguten animuekin ere. Zozketa egin zen egunean, gure aurkariak zeintzuk ziren jakitean, inor gutxik egingo zuen gure alde. Eta hala eta guztiz ere, bigarren sailkatzea lortu dugu, 15 egun barru beste aukera bat izateko". Gijonen jokaturako hiru partiduetan taldeak izan duen jarrera nabarmendu gura izan

du Herrero entrenatzaileak. Lehenengo bi partiduetan oso defentsa ona egin zutela dio, eta atezainaren lana ere bikaina izan zela. Hirugarren partiduan ondo ibili ziren, baina bai burua eta baita hankak ere nekatuta zituztela gaineratu du.

Bi aste barru beste igoera fase bat jokatu dute. "Bigarren geratu garenez, gainera taldeetako bigarrenen aurka jokatu dugu igoera fasea. Astelehen arratsaldean (gaur) izango da zozketa eta orduan jakingo dugu noren aurka jokatu dugun", azaldu du Herrero.

Lehenengo bi partiduak

Egubakoitz ilunkaran Galiziako Academia Octavio taldearen aurka jokatu zuten arrasatearrek: 24-20 irabazi zuten. Lehia borrokatua eta interesgarria izan zen. Defentsan oso lan ona egin zuten arrasatearrek eta nabarmentzkoa izan zen Ekaitz Aranburuzabala atezainak egindako lana. Andoni Bernalek 11 gol egin zituen galiziarren aurka.

Zapatuan Balonmano Huescaren kontra jokatu zuten. Arrasatearrek gogo biziz eta kontzentratuta irten ziren kantxara eta, konfiantzaz gainezka zeudenez, garaipen garrantzitsua lortu zuten. Defentsa lana eta Ekaitz Aranburuzabalaren lana aipagarriak izan ziren bigarren lehia horretan ere.

IGOERA FASEKO EMAITZAK

Ford Mugarri-Academia Octavio	24-20
Ford Mugarri-Balonmano Huesca	32-20
RGC Covadonga-Ford Mugarri	21-18

Orain dela 10 urte, oñatiarrak

Arrasate Ford Mugarri orain dela 10 urte Aloña Mendik egin zituen pausoen atzetik dabil. Hain zuzen, joan zen egunean bete ziren 10 urte Aloñak Lehenengo Nazional mailarako txartela lortu zuela. Oñatiarrek igoera fasea Zubikoara ekarri zuten eta, etxean indartsu jokatu, mailaz igotzea lortu zuten. Maila ezin hobeko taldea izan zen hura, eskubaloitzaletako zaleei poztasun asko eman zizkiena. Txus Aranburu zen igoera lortu zuen taldeko entrenatzailea.



Orain dela 10 urte igoera lortu zuen taldea. | RAFA ZULLUETA



Jokalaria, entrenatzaile, delegatu eta zaleak Gijonen



Academia Octavio taldearen aurka jokaturako lehenengo

FUTBOLA | Aloña Mendi 1 - Bergara 1 | **24**



etik bueltan. | ANDONI ARANDO



nia, egubakoitzean. | A.A.



Ford Mugarriko jokalariek galiziarren aurka jokoan. | A.A.

ANE HERRERO | ENTRENATZAILEA

"Pena izan da igoera ez lortzea"

Triste baina mutilek egindako lanaz harro dago Herrero entrenatzailea.

Ezin izan da hirugarrena irabazi!

Urduri irten gara, baina gero partiduan sartugara. Pena izan da ez irabaztea.

Etxekeen aurka jokatu duzue. Eragina izan du horrek?

Bai, bagenekien zaila izango zela. Etxeokoak dira eta bagenekien



Ane Herrero. | GOIENA

aurten aukera asko zituztela igotzeko. **Zein izan da zuen estrategia?**

Beste bi partiduetan moduan, intentsitate handiarekin irten gara. Ondo defendatzea izan da gure

egiteko nagusia.

Oraindik, baina, baduzue igotzeko aukera.

Bai, bi aste barru beste igoera fase bat jokatuko dugu.



Aloña Mendiko Unai Bikuña Bergarako bi jokalariz inguratuta. | JULIO CALLEJA



Aloña Mendiko Mikel Palacios baloia ostu nahian. | J.C.

OHOREZKO ERREGIONALA

Derbiak ez zuen apartekorik eman; emaitza bera ere ez

- Emaitza justua izan dela uste dute talde biek
- Beste hiru norgehiagoka gelditzen zaizkie

EMAITZA	
ALOÑA MENDI	1-1
BERGARA	

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Lasai dihardute jokoan Aloña Mendik eta Bergarak. Bada denboratxo bat mailari eusteko beste puntu eskuratu dituztela eta presio barik irteten dira zelaira talde bietako jokalariek. Zalantza barik, gozamina da hori jokalarientzako: "Disfrutatzen irteten gara zelaira", esan digu norgehiagokaren amaieran Bergarako jokalaria Lander Ugartek, baina onartzen du ikusleendako ez dire-

la denboraldiko partidurik interesgarrienak.

Berdinketa ordu laurdenerako
Saillkapeneko egoera lasaia izan arren, partidu gogorra aurreikusten zuten talde biek, izan ere, derbia beti da derbia eta itxura ona eman behar da zaleen aurrean. Hala, bederatzigarren minutuan iritsi zen lehenengo gola, etxeko taldeak eginikoa.

Atzean geratzeko arriskua ekidin nahian gogor saiatu ziren bergararrak, eta 15. minutuan lortu zuten berdinketaren gola. Lander Ugartek egin zuen.

Hortik aurrera ezer gutxi eman zuen lehiak. Lehenengo zatian erritmo apur bat egon zen, baina bigarrenean gutxiago.

Amaieran animatu zen atzera ere apur bat partidua. Bi txartel hori jaso izanagatik jokalaria bat gutxiagorekin egin zituen azken minutuak Bergarak, eta horrek gol aukerak bilatzeko ahalegina eragin zuen etxeko taldeko jokalarientzako.


Aloña Mendik pare bat aukera garbi izan zituen, baina ez zuen zorterik izan eta Bergarako atezaina argi ibili zen.

Lehen balorazioak

Txapelketa amaitzeko hiru norgehiagoka gelditzen zaizkie Ohorezko erregional mailako taldeei. Balorazioak egiteko eskatuta, Aloña jokalaria Haritz Garmendiak taldea pozik dagoela esan du: "Oso gaizki hasi ginen eta

ARITZ GARMENDIA
ALOÑAKO JOKALARIA

"Emaitza justua izan da. Partidu gogorra izan da guretzako eta Bergarako jokalariek ere fuere ibili dira. Bukaeran izan ditugu aukera garbi batzuk, baina Bergarako atezaina oso ondo ibili da eta ez dugu golik egin".

LANDER UGARTE
BERGARAKO JOKALARIA

"Nik ere emaitza justua izan dela uste dut. Amaiera jokalaria bat gutxiagorekin egin dugu, eta gola egiteko aukera izan dute Aloñaok, baina eutsi egin diogu eta berdinketarekin gustura gaude".

azkenean nahiko lasai amaitu dugu, erosotasunez eutsiko diogu mailari. Egia da hasierako asmoa saillkapeneko taulan apur bat gorago gelditzea zela, baina hiru norgehiagoka gelditzen zaizkigu eta saiatuko gara ahalik eta puntu gehien lortzen".

Bergarako jokalaria Lander Ugartek ere gogoan ditu denboraldiko lehenengo bost norgehiagokak: "Puntu bakarra lortu genuen". Ugarteren esanetan, orain zorte oneko boladan daude: "Hamabi partidu daramatzagu

galdu barik, eta azken hamarrak irabazi egin ditugu. Gaizki hasi ginen, baina orain ondo goaz".

Bailarako beste taldeen inguruan galdetuta, Mondra aipatu dute biek. "Elgoibarren aurka jokatzea tokatzen zaigu eta ahalegina egingo dugu Mondrari esku bat botatzeko", esan du Aloña jokalaria Haritz Garmendiak. "Ea zortea duten eta salbatzen diren".

Bergarako Lander Ugartek ere zorte onena opa dio Arrasateko taldeari.

OHOREZKO ERREGIONALA

Berdinketarekin itzuli da Mondra Irunen jokatutako partidutik

L.Z. | ARRASATE

Puntuak behar ditu Mondrak saillkapeneko azken postuetatik irteteko, baina bakarrarekin itzuli zen zapatuan Irungo Real Union taldearen aurka jokatutako norgehiagokatik. Zuzendaritzako kide Fernando Urangaren esanetan, Mondrak joko oso ona erakutsi zuen partiduko lehenengo zatian, baina ez hain ona bigarrenean. Hala, arrisku txikiko jokaldi batean etorri zen Real Unionen gola. Zerrajerok lan gogorra egin zuten berdinketaren bila, eta azkenean, 91. minutuan iritsi zen gola; Markel Crespok egin zuen.

Partidu erabakigarriak

Galduta ikusitako partidua berdinketarekin amaitzea poz handia izan zen Mondrakoendako baina, zuzendaritzako Fernando Urangaren esanetan, hiru puntuak etxera ekartzeko moduko partidua izan zen.

Hiru norgehiagoka gelditzen zaizkie Mondrari saillkapeneko azken postuetatik irteteko. Egia da arriskuan dauden taldeen arteko aldea oso estua dela, baina hemendik aurrerako partidua irabaztea komeni dela esan du Urangak. "Guk dena ipiniko dugu, baina hurrengo partidua gogorra izango da; Tolosa dator Arrasatera".

PREFERENTEA

Aretxabaleta B taldeak 1-0 galdu du Legazpin Ilintzaren aurka

Saillkapeneko azken aurreko postuan dago kokatuta Aretxabaleta B taldea. Aste bukarran Legazpin jokatutako partidua ez zen oso ikusgarria izan baina, Igor Arenazaren esanetan, gehiago merezi zuen UDAk, iniziatiba Aretxabaletaoena izan zelako norgehiagoka ia osoan.

Taldea oso triste itzuli da Legazpitik, izan ere, aurkariak 94. minutuan egin zuen gola, eta penaltiz. Etxean jokatuko du hurrengo norgehiagoka Aretxabaleta. Orioko taldea hartuko du Ibarren, eta zaleen babesa beharko du dagoen egoera zailetik irteten ahal izateko.

GAZTEEN EUSKAL KOPA

Aretxabaletak bana berdindu du Zornotzan jokatutako norgehiagoka

Aretxabaleta aurrera doa Gazte mailako Euskal Kopan eta aste bukarran lortutako berdinketarekin beste erronda batera doa. Gaizki hasi ziren gauzak Aretxabaleta taldearendako Zornotzan. Lehenengo zatian Amorebieta izan zen nagusi, eta hor iritsi zen lehenengo gola. Berdintzea izan zen orduan UDAkoen helburua, baina ez zen atsedena baino lehen iritsi. Bigarren zatian beste norabide bat hartu zuen lehiak, eta Aretxabaleta beste joko bat erakutsi zuen. Lan horren fruituak laster iritsi ziren; gola egin zuen Beñat Olabek. Amaieran, gainera, dezente estutu zituzten gauzak Aretxabaleta mutilek. Pozik dira emaitzarekin.

EMAKUMEZKOEN KOPA

Mondrako neskek 2-1 galdu dute San Inazioaren aurka

Banakako berdinketarekin iritsi ziren atsedenera Bilboko San Inazio eta Mondra, baina bigarren zatian gola egin zuten bilbotarrek eta penaz itzuli dira etxera Mondrako neskek. Kopako finalerdietarako txartela eskuratu nahian ari dira baina, golerako aukera argiak sortu arren, emaitza bilbotarren aldekoa izan da. Bi partidu gelditzen zaizkie orain, tartean maiatzeko hirugarren aste bukarran etxean Añorgaren aurka jokatuko dutena. "Añorgari irabazi egin beharko genioke, eta gero Añorgak San Inaziori", adierazi du Jon Zuloagak.

LAUKO FINALA

Epaileen lanak "erabat baldintzatu" zuen eskoriatzarren finala

Cafes Aitonaren aurka 44-54 galdu zuen Eskoriatzak Lauko Finala

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

"Ez zait gustatzen epaileei errua botatzea, baina uste dut epaileen erruz galdu dugula finala", azaldu zuen atzo arratsaldean Inma Murillo Eskoriatzako entrenatzaileak. Oso haserre bukatu zuten partidua. "Uste dut epaileek ez dutela Final Four bateko maila erakutsi", gaineratu zuen.

Atzo eguerdian jokatu zuten eskoriatzarren Final Fourreko finala Cafes Aitonaren aurka: 44-54 galdu zuten eskoriatzarrek. Hain zuzen, zapatuan Zarautzen aurka 55-63 irabazita lortu zuten Murilloren neskek finala jokatzeko txartela.

Jaurtiketa libre larregi

Epaileen lana azaltzerakoan, oso adierazgarria da jaurtiketa librearen datua: Cafes Aitona taldeak 42 jaurtiketa libre izan zituen, eta

Eskoriatzak 12. "42 jaurtiketa izan dituzte eta 26 puntu lortu", azaldu zuen Murillok. "Hirugarren laurdenean, esaterako, jaurtiketa libreak bakarrik saskiratu dituzte", zioen. Aldea "gehiegizkoa" izan zela esan zuen.

Jokoan, lehia berdindua

Eskoriatzak partidua galdu arren, entrenatzailea pozik zegoen neskek egindako lanarekin. Partidu berdindua izan zela azaldu zuen, baina azkeneko unean ihes egin zieten donostiarrek. "Atzo adina ez agian, baina ondo ibili gara. Gaur, ordea, nekea eta urduritasuna igarri ditugu, eta gainera taularen azpian ez gara ondo ibili", adierazi zuen partidua amaieran. Hala, lehenengo eguneko lehiak faktura pasa ziela esan daiteke.

Horrekin batera, partidua lehiakortasun gutxi izan zuela gaineratu zuen entrenatzaileak: "Ez ditugu jaurtiketak egiteko aukera asko izan, eta gainera ez digute defendatzen utzi", azaldu zuen. Eskoriatzarrek ez zuten defendatzeko aukerarik izan, defentsan egiten zuten guztia falta adierazten zuen-eta epaileak.

Zaleen animuak izan zituzten

Beste urte batzuetan baino zailtasun handiagoekin lortu du aurten fase erabakigarriko txartela Eskoriatzak. Zapatuan, gustura zegoen Inma Murillo entrenatzailea: Zarautzen aurka 55-63 irabazi zuten. "Ligan Zarautzen kontra jokatu behar izan zuten partidua galdu egin ditugu, baina gaur oso ondo jokatu dugu", azaldu zuen amaieran.

Cafes Aitona taldea ere eza-guna da eskoriatzarrendako. Hala, taldearen planteamendua izan zen donostiarren bi jokalarik onenei bidea ixtea eta kontraerasoan irtetea. Lauko Finaleko txapela janztea zer den badakite Eskoriatzako neskek, baina atzokoan ezin izan zuten errepikatu esperientzia. Modu horretan, bigarren nazionalera igotzeko aukera gabe geratu dira eskoriatzarrek. Atzo txapeldunordearen garaikurra jaso zuten Orion.

Murillok eskerrak eman gura dizkie taldea babestera Oriora joan ziren jarraitzaileei. Autobus bat bete zuten zaleek. Aipatzekoa da baita ere Juani Murillo delegatua egotzi egin zuela epaileak eta entrenatzaileari falta teknikoak adierazi ziola.



Eskoriatzako neskek lehiako une batean. | IMANOL SORIANO

Sei final jarraian

Eskoriatzako nesken saskibaloia sei Final Four jarraian jokatu ditu. Eta sei final horietan egon dira hiru jokalarik: Yaiza Exposito –orain min hartuta dago–, Ainhoa Alarcia eta Aitziber Soriano. Taldeari asko ematen dioten jokalariek dira hirurak, beterean dagoeneko. Hala, Murillo entrenatzaileak azaldu du Expositoren falta asko sumatu dutela azkeneko partiduetan. Aurten igotzea ez dute lortu, baina ea datorren urtean berriro ere iristen diren Final Fourrera.



Taldea atzo Orion jasotako garaikurrarekin. | I.S.



Jarraitzaile asko joan ziren Oriora Eskoriatzatik. | I.S.

LEHENENGO MAILA

MUk garaipen garrantzitsua lortu du kategoriari eusteko

Ordiziaren aurka 79-73 irabazi zuten Larreategiren mutilek zapatuan Iturripen



MUko jokalaria aurkari biren aurrean. | JULIO CALLEJA

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

79-73

BIOK ZERBITZUAK ORDIZIA

A.E. | ARRASATE

Intentsitate handiarekin jokatu zuten zapatuan Josu Larreategiren mutilek. Ordiziaren aurkako partidua garrantzitsua zen, eta ez zuten hutsik egin arrasatearrek. Hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik.

Lehenengo laurdena 25-23ko partzialarekin amaitu zen etxekoen alde. Bigarren laurdenean intentsitate berarekin jarraitu zuten bi taldeek. Lehia nahiko parekatuta zegoen; horren adibide da 33-35 aurretik jarri zirela ordiziarrak. Hala ere, neurketak kontrolpean hartu eta berriro

ere markagailuan aurretik jartzea lortu zuten etxekoek: 42-37 bigarren laurdeneko 6. minutuan.

Intentsitatea eta urduritasuna kantxatik kanpo ere nabaritu zen: bi entrenatzaileek hika-mika txiki bat izan zuten momentu jakin batean, baina agudo lasaitu ziren.

Falta askoko lehia

Aldageletara 53-44 etxekoak aurretik iritsi ziren. Nabarmendu behar da lehenengo zatian falta asko adierazi zuten epaileek: 18 arrasatearren kontra eta 16 ordiziarren kontra.

Bigarren zatia lasaiagoa izan zen. Bosgarren minutuan sartu zuten lehenengo tantoa etxeko taldeak (Andonik). Hala, ordiziarrak aukera hori aprobetxatu zuten markagailuan aldea murrizteko (54-51). Azkeneko minutuetan defentsan egindako lan gogo-

rrari esker, berriro ere aldea handitu zuten etxekoek: 66-56. Azkeneko laurdenean lehia kontrolatu egin zuten Larreategiren mutilek eta, azkeneko egindako lanaren saria lortu zuten: 79-73.

Goiko postuei begira

Larreategi pozik zegoen taldeak egindako lanarekin: bihotzarekin jokatu zutela azaldu zuen amaieran. "Averagea gure alde dugu, baita Tabirakorekin ere", azaldu zuen Larreategik. Hortaz, dena alde dute arrasatearrek mailari eusteko lehian.

"Aurten iaz baino askoz ere hobeto jokatzen ari gara, eta askoz ere partidua gehiago irabazi ditugu", gaineratu zuen. Hala ere, mailari eusteko lehia horretan jarraitzen dute oraindik: "Liga gogorra denaren seinale da hori", dio entrenatzaileak. Datorren zapatuan Iruñara joango dira.

SASKIBALOA

600 neska-mutikok kiroltasunez jokatu dute saskibaloian Arrasateko Laubiden

Zapatuan, dena eman zuten Hirunako Txapelketan, goizean hasi eta iluntzera arte

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Saskibaloia ez da gutxiengo baten kirola; hala esan daiteke zapatuan Arrasateko Laubide plazan 606 neska-mutiko baloia saskiratzen ikusi eta gero. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaioakoak ziren, L.M.H. ko 4. mailatik D.B.H. ko 2. mailara artekoak. Eskola kirolean praktikatzeko egokitzeko zaien kirol bat baino gehiago, saskibaloia atsedean orduetako gozagarri ere bada eurentako askorentzat; eta zenbaitentzat, entrenatzera joateko aukeraturako kirola.

Zapatuan guztiak zuten garai-izateko nahia, baina horren gainetik helburu bat: ondo pasatzea. Guztiak ezin izan zuten

irabazi, noski, baina denek pasa zuten primerako eguna, hori bai. Antolatzaileak ere pozik zeuden: "Kiroltasunez eta haserretu gabe jokatu dute; goizean eguzkipean eta arratsaldean euripean, baina zaparradek ez dute lortu txapelketa geldiaraztea ezta zapuztea ere. Saskibaloia indarra hartzen ari da eta gero eta gehiago dira kirol hau praktikatzeko duten neskek ere".

Talde irabazleak

Benjaminetan, 'Bost onenak' taldeak irabazi zuen mutiletan, 'Palomoideo'-k nesketan eta 'Caja Laboral Aramaio'-k talde mistoen artean; alebinetako talde irabazleak izan ziren 'Izengabeak' (muti-



Jokalari gehienak mutilak izan arren, neska dezente ikusi genuen saskibaloian jokatzeko. | JULIO CALLEJA

lak), 'Basket girls' (neskak) eta 'Aramaio basket' (mistoak); eta infantiletan, 'UMZeta' (mutilak), 'Afam' (neskak) eta 'CSKlaropa' (mistoak). Dominak eta baloiak eman zizkieten garaileei; kamisetak eta posterrak, denei.

Leintz Eskola Kirolak eta Ointxe!-k antolatzen dute txapelketa, hainbat eragilek lagunduta.



Bi gaztetxo, dena ematen. | J.C.



Talde mistoetako bat, jokatzeko. | J.C.



Jokalari, guraso, entrenatzaile, epaile... jendetza batu zen Laubiden. | J.C.



AXEL, HARITZ, JULEN, UNAX
ARETXABALETA

"Lau partiduko jokatu ditugu orain arte, eta lauak irabazi! Neurketaren baten justuxeago ibili gara baina... onak gara! Futbola eta saskibaloia dira gehien gustatzen zaizkigun kirolak. Txapelketa polita da hau".



ANE ETA MIREIA
ESKORIATZA-ARETXABALETA

"Guri ere ondo joan zaigu orain arte, baina zorte kontua izan da gehiago. Ondo pasatzera etorri gara, baina irabazten badugu askoz hobeto! Eskola kirolean jokatu izan dugu saskibaloian eta atsedean orduetan ere maiz".



MARIA, ANE ETA OLATZ
ARRASATE

"Gustuko dugu Arrasateko hitzordu hau, behin baino gehiagotan parte hartu dugu. Kirol bat aukeratzeko, saskibaloiarekin geratuko ginatke; hasieran gogorra da, baina merezi du".



TXIRRINDULARITZA

JULIO CALLEJA

Gaztetxoak, ziklismoa ezagutzen

Labegarrietako alebin eta infantil mailako saria jokatu zuten zapatuan 80 bat neska-mutikok. Bergara, Antzuola, Elgeta, Oñati eta Arrasateko gaztetxoek gain, Debagoiena kanpotik ere etorri ziren txirrindulariak. Horrelako sarien helburua gaztetxoek txirrindularitza barrutik ezagutzeko izaten da, eta hasiera gura dutenak animatzea.



MENDI BIZIKLETA

J.C.

Musakolan BTT martxa egin dute

Musakolako jaien barruan, urtero moduan, mendi bizikleta martxa egin zuten atzo, domeka. Eguraldia lagun zutela, 180 bat nagusi batu ziren irteera puntuan. 35 kilometroko ibilbidea egin zuten: Musakolatik irtenda, Bedoña aldetik egin zuten itzulia. Gaztetxoak, osterara, Musakolan bertan ibili ziren; 70 bat elkartu ziren.

MENDIA

Besaidek hainbat ekintza antolatu ditu maiatzarako

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Arrasateko Besaide mendizale elkarteak antolatuta, hiru film eskainiko dituzte maiatzaren 15ean, martitzena: *Solitaire*, *Cold* eta *Fly or die*. Emanaldia Amaia antzokian izango da, 20:30ean. Bazkideek 4 euro ordaindu beharko dituzte (txartela erakutsita) eta gainerakoek 5 euro.

Bestalde, Palentziara, Alto Carrionera irteera egingo dute maiatzaren 19an eta 20an. Irteerara joan gura duenak izena eman beharko du maiatzaren 14an edo 15ean, 19:00etatik 20:00etara elkarteak Garibain duen lekuan.

SASKIBALOIA

600 neska-mutikok kiroltasunez jokatu dute saskibaloian Arrasateko Laubiden

Zapatuan, dena eman zuten Hirunako Txapelketan, goizean hasi eta iluntzera arte

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Saskibaloia ez da gutxiengo baten kirola; hala esan daiteke zapatuan Arrasateko Laubide plazan 606 neska-mutiko baloia saskiratzen ikusi eta gero. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaioak ziren, L.M.H. ko 4. mailatik D.B.H. ko 2. mailara artekoak. Eskola kirolean praktikatzeko egokitzeko zaien kirol bat baino gehiago, saskibaloia atsedean orduetako gozagarri ere bada eurentako askorentzat; eta zenbaitentzat, entrenatzera joateko aukeraturako kirola.

Zapatuan guztiek zuten garai-ile izateko nahia, baina horren gainetik helburu bat: ondo pasatzea. Guztiek ezin izan zuten

irabazi, noski, baina denek pasa zuten primerako eguna, hori bai. Antolatzaileak ere pozik zeuden: "Kiroltasunez eta haserretu gabe jokatu dute; goizean eguzkipean eta arratsaldean euripean, baina zaparradek ez dute lortu txapelketa geldiaraztea ezta zapuztea ere. Saskibaloia indarra hartzen ari da eta gero eta gehiago dira kirol hau praktikatzeko duten neskek ere".

Talde irabazleak

Benjaminetan, 'Bost onenak' taldeak irabazi zuen mutiletan, 'Palomoideo'-k nesketan eta 'Caja Laboral Aramaio'-k talde mistoen artean; alebinetako talde irabazleak izan ziren 'Izengabeak' (muti-



Jokalari gehienak mutilak izan arren, neska dezente ikusi genuen saskibaloian jokatzeko. | JULIO CALLEJA

lak), 'Basket girls' (neskak) eta 'Aramaio basket' (mistoak); eta infantiletan, 'UMZeta' (mutilak), 'Afam' (neskak) eta 'CSKlaropa' (mistoak). Dominak eta baloiak eman zizkieten garaileei; kamisetak eta posterrak, denei.

Leintz Eskola Kirolak eta Ointxe!-k antolatzen dute txapelketa, hainbat eragilek lagunduta.



Bi gaztetxo, dena ematen. | J.C.



Talde mistoetako bat, jokatzeko. | J.C.



Jokalari, guraso, entrenatzaile, epaile... jendetza batu zen Laubiden. | J.C.



AXEL, HARITZ, JULEN, UNAX
ARETXABALETA

"Lau partiduko jokatu ditugu orain arte, eta lauak irabazi! Neurketaren baten justuxeago ibili gara baina... onak gara! Futbola eta saskibaloia dira gehien gustatzen zaizkigun kirolak. Txapelketa polita da hau".



ANE ETA MIREIA
ESKORIATZA-ARETXABALETA

"Guri ere ondo joan zaigu orain arte, baina zorte kontua izan da gehiago. Ondo pasatzera etorri gara, baina irabazten badugu askoz hobeto! Eskola kirolean jokatu izan dugu saskibaloian eta atsedean orduetan ere maiz".



MARIA, ANE ETA OLATZ
ARRASATE

"Gustuko dugu Arrasateko hitzordu hau, behin baino gehiagotan parte hartu dugu. Kirol bat aukeratzeko, saskibaloiarekin geratuko ginatke; hasieran gogorra da, baina merezi du".



TXIRRINDULARITZA

JULIO CALLEJA

Gaztetxoak, ziklismoa ezagutzen

Labegarrietako alebin eta infantil mailako saria jokatu zuten zapatuan 80 bat neska-mutikok. Bergara, Antzuola, Elgeta, Oñati eta Arrasateko gaztetxoek gain, Debagoiena kanpotik ere etorri ziren txirrindulariak. Horrelako sarien helburua gaztetxoek txirrindularitza barrutik ezagutzeko izaten da, eta hasiera gura dutenak animatzea.

MENDI LASTERKETAK

Oihana Kortazarrek Espainiako txapelketa irabazi du

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Canon de Silen jokaturako Espainiako Mendi lasterketen txapelketa irabazi du Oihana Kortazar elgetarrak. Modu horretan, bigarren urtez jarraian lortu du garaipena Kortazarrek. 33,2 kilometroko lasterketa jokatu zuten, eta guztira 2.220 metroko desnibel positiboa izan zuten. Kortazar txapelketa irabazteko faborito nagusia zen, eta ez zuen hutsik egin. Momentu oro lasterketaren buruan izan zen elgetarra. Canon de Sileko lasterketa Espainiako Kopako lehenengo proba puntuagarria izan da.

BORROKA

Maidar Undak Londres 2012rako txartela eskuratu du

MAIDER ARREGI | ARAMAIO
Maidar Unda aramaioarrak abuztuaren Londresen jokaturako txartela eskuratu du Helsinkin, Finlandian. Hala, 72 kiloko kategorian lehiatuko da. Undak Londrerako azken txartela eskuratzeko aukera zuen eta lortu du, azken unera arte itxaron behar izan duen arren.

Undak 2009ko Mundialean eta Europako 2010 eta 2012ko txapelketetan, brontzezko dominak eskuratu zituen. Eta 2008an, Pekingo joko olinpikoetan, bosgarren postua eskuratu zuen.

MENDIA

Besaidek hainbat ekintza antolatu ditu maiatzerako

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Arrasateko Besaide mendizale elkarteak antolatuta, hiru film eskainiko dituzte maiatzaren 15ean, martitzena: *Solitaire*, *Cold* eta *Fly or die*. Emanaldia Amaia antzokian izango da, 20:30ean. Bazkideek 4 euro ordaindu beharko dituzte (txartela erakutsita) eta gainerakoek 5 euro.

Bestalde, Palentziara, Alto Carrionera irteera egingo dute maiatzaren 19an eta 20an. Irteerara joan gura duenak izena eman beharko du maiatzaren 14an edo 15ean, 19:00etatik 20:00etara elkarteak Garibain duen lekuan.

AUTO-LASTERKETAK

David Ardions | Pilotua

"Ez nuen sekula ere pentsatuko Aitor Zabaletari irabaziko nionik"

- ▶ Hurrengo probetan lehenengo hiruren artean egon nahi du oñatiarrak
- ▶ Hondarribiko rallysprinta irabazi zuen martxoaren 24an Ardionsek

MAIALEN REGUEIRO | OÑATI

Kazetariek elkarrizketak egitea baino, nahiago ditu auto lasterketak David Ardionsek (Oñati, 1981). Udanako Igoeran parte hartzeaz gainera, lasterketa antolatzen ere ibiltzen da. Aurten hura izan da Udanako Igoerako irabazlea 2.46,4ko denbora eginda eta Aitor Zabaleta bergararra (2:49,2) atzean utzita. Lasterketa horretaz eta denboraldiaz hitz egin digu.

Nola hasi duzu denboraldia?

Denboraldia uste baino askoz hobeto hasi dut, Udanako Igoera irabazita. Gainera, proba hau irabazteak denboraldiko gainontzeko lasterketarako motibatzeko balio du.

Aurten beste proba batzuetan parte hartuta, zer-nolako esperientzia izan da?

Gabiriako eta Hondarribiko probetan hartu dut parte Udanakoa egin aurretik, baina lasterketa horiek rallysprintak izan dira eta Udanakoa ez da rallysprinta. Gabiriako proban, lehenengo bueltan istripua izan nuen, eta, horren eraginez, ezin izan nuen proba amaitu. Hondarribiko proban zorte handiagoa izan nuen eta irabazi egin nuen.

Oñatiar gisa, nola sentitzen zara Udanako Igoera irabazi ostean?

Oso gustura. Entrenamenduan, autoa probatzera irten nintzen eta bihurgune baten autoa joan egin zitzaidan. Lehen saio ofizialeko bigarren bueltan, gustura nengo, baina autoak irrist egin zuen, eta horregatik uste dut seigarren gelditu nintzela. Hirugarren bueltan, baina, dena ematera irten nintzen eta irabazi egin nuen. Bada, orain arte auto lasterketan gertatu zaidan onena izan da.



David Ardions, Mitsubishi Evo VIIarekin. | IGOITIA

Zer sentitu zenuen Aitor Zabaleta atzean utzi zenuela jakin zenuenean?

Poztasuna. Ez nuen pentsatzen Aitor Zabaletari irabaziko nionik, baina oso pozik nago. Ni errepide bustian hobeto ibiltzen naizen arren, hura beti dabil fin laster-

ketetan. Dena den, bere autoak motor zaharra zeukan eta auto hori errepide bustian gidatzea ez da batere erraza.

Zer dela-eta sentitzen zara hobeto errepide bustian lehorrean baino?

Egia esan, ez dakit zergatik den. Normalean, errepidea bustita

dagoenean, gainontzeko pilotuak polikiago joaten dira arriskutsua delako, eta niri bustian joatea gustatu egiten zait.

Nola entrenatzen zara?

Entrenatzera noizean behin zirkuitura joaten gara. Proba baino aste bete lehenago, kaleko autoa

"Aurtengo neurriekin gustura gaude, garestia izan den arren"

"Hurrengoetarako emakume gehiagok parte hartzea espero dugu"

"Autoak gustatzen zaizkit eta horietan inbertitzen dut dirua"

hartzen dugu eta probaren ibilbidea egiten dugu. Udanako Igoerarako, adibidez, ez naiz ezertxo ere entrenatu, ibilbidea ezaguna baita niretzat.

Zer asmo duzu aurtengo denboraldirako?

Udanakoaz gain, beste proba batzuetan hartuko dut parte, eta lehen hiruren artean egitea espero dut. Horretarako, autoak ondo egon behar du.

Udanako lasterketan parte hartzeaz gainera, antolakuntzan ere murgilduta zaude.

Aste batzuk lehenago lan handia izan dugu proba hau aurrera ateratzeko. Egia esan, proban guztia deskargatu nuen. Pozgarria da antolakuntzan murgilduta egoteaz gain podiumera ere igozteaz.

Aurten neurri berriak jarri dituzte; ados zaude horiekin?

Bai. Gustura gelditu gara neurri horiekin, aurreko urtean gertatu zena ikusi eta gero. Garestia izan da, baina gure helburua segurtasuna bermatzea da.

Krisia dela-eta, nola egiten diozu aurre autoa mantentzeak dakarren gastuari?

Nire Mitsubishi Evo VIIa duela bi urte erosi nuen, eta nire enpresako izena darama. Nork bere zaletasunak ditu eta niri autoak asko gustatzen zaizkit. Jende askok bizikletatan dirua inbertitzen duen neurrian, euren zaletasuna delako, nik dirua autoetan inbertitzen dut.

Udanako Igoeran emakumeak ere parte-hartzaile.

Bai. Aurreko urtean ere egon ziren, eta aurten ere bi egon dira. Ni emakumeak horrelako probetan parte hartzearen aldekoa naiz. Izan ere, proba hauetan parte hartzeak eskubidea dute. Emakume askorentzat autoak ere zaletasun dira eta guk, antolatzaileok, hurrengo urteetarako emakume gehiago etortzea espero dugu.

Aurreko urteko Udanako Igoeran 90 pilotu eta aurten, berriz, 66.

Bai. Aurten aurreko urtean baino pilotu gutxiago egon dira. Nire ustez, lau eguneko zubia egoteak asko eragin du parte-hartzaile kopuruan. Dena den, Udanako Igoera antolatzen dihardugunok urtero 65 piloturi egiten diegu gonbidapena eta kopuru hori jada egokia dela uste dugu.



Oñatiko hiru onenak podiumean. | IGOITIA



David Ardions, Hondarribiko rallyan. | GARITORACING

HEZIKETA

Itziar Bartolome: "Krisialdia norberaren izaera indartu, aldatu eta garatzeko erabili"

Krisia mehatxu baino aukera bezala erabiltzeko dei egiten du Bartolomek

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Krisi hitza barra-barra entzuten da azken aldian. Egun gauzatzen ari diren injustizia berri asko arrazoitzeko erabili den hitza dugu: krisia. Ni pertsonalki, kokoteraino nago krisiaren aterkipean ematen ari diren eskubide sozial eta pertsonalen urraketa etengabeaz. Krisiak aldaketa positiboak eragiteko balio behar du, ez kontrako noranzkoan atzerapausoak emateko!". Itziar Bartolomek *Guraso.com* atarirako idatzitako lerroak dira. Eta bere proposamena egiten digu: "Krisi garaiak, ezatseginak, gogorak, eta suntsizailleak izan arren, onura ere badakarte: gauzak beste modu batean egiten hasteko premia sortzen dute, harremanak sendotu edo birplanteatzeko aukera ematen dute, antolaketa modu berriak aktibatzen, hausnarketa bultzatzen dute, azalekoa dena eta esentziala dena ezberdintzen



Haurra eskuan aurpegi irribarredun marrazkia eginda. | HANDKASTEEL

laguntzen dute... Ikuspegi horretatik, krisia, berez, aldaketarako motorra dela esan daiteke".

Kinsale herria

Bartolomek defendatzen du hamarkadak direla terapia zein hezkuntza munduan krisiak konno-

tazio positiboa hartu duela. Uste du gurasoek krisia betaurreko berriekin ikusiko balute, eta jarrera birplanteatuko balute haur eta gazteendako eredu berriak sortuko lirakeela. Eta Irlandako Kinsale herriko esperientzia ipini du adibide gisa.

Iñaki Kasares: "Haurrak pertsona oso-osoak dira jaiotzen diren unetik"

Kasaresen esanetan, gurasook ahalegin berezia egin behar dugu haurren errealitatea ikusteko

L.Z. | ARRASATE

"Bakarra eta errepika ezina, askea eta berdingabea, jaiotzen denetik beraren ideiak eta beraren desioak dituena". Horrela deskribatzen du Iñaki Kasaresek haur bat zer den *Guraso.com* atarirako idatzitako *Nire alaba ez da neurea* artikuluan. Kasaresek umetako bi anekdota kontatzen ditu artikuluan, gurasoak "hobe beharrez" ipinitako bi debeku, eta mingarriak izan zirelako helduarooan ondo gogoratzen dituenak. Hala, alaba baten guraso den honetan bere ondorioa atera du: "Mundu honetara bere bizitza bizitzera etorri da, bere bidea egitera, bere nortasuna osatzera. Ez da etorri gurasoon bete gabe-

ko ametsak betetzera, gurasook amesten dugun ezer eraikitze- ra eta desegitera, gurasoon beharrian emozional, afektibo edo bestelakoak betetzera".

Adoretu eta babestu

Bada, Kasaresek ondorioztatzen du gurasoon egiteko seme-alabak errespetatzea, elikatzea, adoretzea eta babestea dela. "Haiek maitatzea baldintzarik gabe, kosta ala kosta; haien ondoan gaudelako gure poz handia erakustea. Agian, behin behinean, gure umeentzako eredu baliagarriak edo inspiragarriak izan gaitezke gurasoak, eurek hala erabakita, baina beraien aukeraketa izan behar du beti".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAKO ADITUA

Birgaitze energetikoa eraikuntzan



Isaak Galarraga
Arkitekto teknikoa

Birgaitzean dago eraikin zaharren energia-kostua jaisteko gakoa. Gainera, jakin behar genuke gutxiago gastatu arren ez dela bizi-kalitatea jaisten.

Eraikinen energia-konsumoa zerora hurbildu nahi badugu, nola egin dezakegu? Esate baterako, isolamendu termikoa hobetzeko etxebizitzaren fatxada edo teilatua konpondu behar denean, komeni da margotzeaz edo teilak aldatzeaz gain kanpoaldean eta teilan azpian 5-8 cm.ko poliuretanoa jartzea. Horrela, berokuntza galerak gutxitu egingo dira zubi termikoak saihestuz, eta beroa etxe barruan mantenduko da neguan, eta udan freskotasuna. Diru pixka bat inbertituz gero, kontsumoan igarriko da, eta lauzpabost urtean amortizaturata egongo da.

Badira enpresa espezializatuak horrelako lanetarako, eta horrek

eraikuntza sektorea berpizten du. Beste neurri bat leiho zaharrak aldatzea da, zubi termikorik gabeko zureria erabiliz, kristal dobleak edo hirukoitzak jarritz eta tarteko aire kameran argoi gasa enplegatuz. Zarata ere ekidingo du horrek. Instalakuntzen ekipoak zein etxetresnak erosterakoan, komeni da ziurtagiri energetikoa kontuan hartzea, eta galdara eraginkorak erabiltzea. Termostatoak eta domotikako aparatuak automatikoki laguntzen digute kontrol termikoa kudeatzen. Fotovoltaikoa, eguzki kolektore termikoa, eolikoa... moduko energia berriztagarriak sartzea ere, zer esanik ez, urrats garrantzitsua da.

Erronka energetikoak

2020 urteko erronka 20-20-20 da: energia kontsumoa %20 jaitea, CO2 isurketak beste %20 gutxitzea, eta energia berriztagarriekin energiaren %20 sortzea.

Orain gutxi indarrean jarri da salgai edo errentan dauden

etxebizitza berri edo zaharretan kalifikazio energetikoaren ziurtagiria aurkeztea, etxea elektrotresna bat balitz bezala. Horrela jakingo dugu eraikuntzak energetikoki onak edo txarrak diren, eta egin behar dugun inbertsioa hobeto baloratzen lagunduko digu. Adituen arabera, herrialde batean eraikinekin gastatzen duten energia %40 da. Horien iritziz kontsumitzaileak kontzientziatu behar dira ongizatean bizi daitekeela energia aurreztuz eta sakrifizio handirik egin gabe.

Ildo beretik, Ingurugiro Zientzia Elkarteak orain dela gutxi estudio bat aurkeztu du Euskal Herrian enpleguari eta energiari buruz. Etxebizitza baten energiaren faktura %10 baino handiagoa bada soldatarekin alderatuz, kontsumoa ez da eraginkorra energetikoki, eta hori gertatzen ari da familien %15ean. Zuk zeuk egin dezakezu konparaketa eta ziurrenik lagunduko dizu kontzientzia hartzen, eta neurriak jartzen.



Birgaitutako etxeak, Arrasaten. | ARIZMENDI IKASTOLA

XXI. mendeko etxebizitza jardunaldiak

Eraikuntza arloan birgaitzearen gaia oso interesgarritzat jotzen du Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako Eraikuntzak. Horregatik, aurtengo XXI. mendeko etxebizitzaren jardunaldiak ildo horretatik antolatu ditu. Maiatzaren 11n, Kulturaren egingo diren jardunaldien gaia *Hiri, auzo eta etxebizitzaren birgaitze energetikoa* izango da. Hainbat aditu izango dira bertan, eta Ekokaleak Hiri-Altzari Iraunkorraren IV. Ideia lehiaketaren sari-banaketa ere egingo da. Argibideak eta izen-emateak: www.arizmendipro.eu atarian.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA

Bihotza uzkurtzeraino heltzen den antzezlan errealak jendeari zer pentsarazi eman dio

- ▶ Desgaituak onartuak izatearen beharra aldarrikatu zuen Marisol Andradek emanaldian zehar
- ▶ Aisialdirako elkarte sortu gura du debagoiendarren beharrei eta eskaerei erantzuteko

MAIDER ARREGI | ESKORIATZA

Ezagutuz ulertu, ulertuz maitatu esaldia, hitzetatik praktikara eramanean nahi du Marisol Andrade eskoriatzarrak. Horretarako, "Erromako zubi gisa" erabili du *Zu behar zaitut* antzezlan. "Denok elkarrekin aniztasunean bizitzeko Erromako zubia eraiki behar dugu", zioen Andradek antzerkiaren pasarte batean.

Herriko txikitxoek begiradapean, adi-adi zeudela, Andradek tximeleta batek arazoak zituela azaldu zien. Izan ere, tximeleta horri hegoak falta zitzaizkion eta bere sentazioak oso bestelakoak, ezberdinak zirela kontatu zien gaztetxoei: "Ezin du hegan egin, baina lurraren eta ur tanten usaina hartzeko gai da". Aniztasuna, elkarlana, hitzik gabeko komunikazioa eta zentzumenez beteriko mundua gerturatu nahi izan zizkien atzokoan.

"Orain, esandakoa praktikan jarri nahi dugu. Ikusi dugu inguruari ezagutaraztea dela gakoa, herriko ume eta jendearen babesa ere izateko", gaineratu zigun gaixorik dagoen Lorena neskati-laren lehengusinak.

"Haurrek naturaltasunez tratatzen dituzte gai hauek. Antzerki honi esker, sakonago jakingo dugu Lorena txikiari gertatzen zaiona zer den", azpimarratu zigun antzerkia ikusten ari zela emakumezko batek.

Arima hizkuntza da

"Hitzak ez dira komunikatzeko tresna bakarrik. Usaimena, ukimena... komunikatzeko baliabideak dira eta ahalmen guztia bihotzean eta garunean dago", kontatu zien Andradek. Desgaituak onartzeko urratsa eman behar dela azpimarratu zuen. Emanaldiaren bukaeran, zapzi urtetan herritarrek eta eskolako ikasle, guraso zein irakasleek emandako laguntza eskertu zuen.

"Txikitxoek ez dute gure moduan errealtatea ikusten; askotan, helduak baino zentzudunagoak dira eta badakite nola jokatu zenbait egoeren aurrean. Ondo egotea probilegioa da egun", azaldu zigun antzezlanaren ostean guraso batek.

Bihotzeraino eta Andradek esan moduan "garuneraino" heldu zitzaizkien Lorena txikiaren historia. Lehen helburua beteta -garun paralisia gaitasuna herritarren aurrean aurkeztearena-, orain bigarrenari helduko dio Marisol Andradek: aisialdirako elkarte bat sortzearena Debagoiengan.



Pilotalekua bete egin zen guraso zein adin tarte zabaleko ume eta gaztetxo eskoriatzarrekin. | JULIO CALLEJA

laz baino jende gehiago Atxorrotzen

Atxorrotzeko ermitako kanpaiek eman zieten ongi-etorria bertara igo ziren eskoriatzarrei. Giro onak lagunduta, goizean goiz jende asko animatu zen; hala, antolatzaileek esan ziguten iaz baino herritar gehiagok dastatu zutela Atxorrotzen salda eta txorizoa: "Tarte batean zaparrada bota du eta bertan jarrita geneukan tabernan genero guztia gastatu zaigu".



Atxorrotzera igo ziren zenbait eskoriatzar. | ESKORIATZAKO UDALA



MAIDER ARREGI

MARISOL ANDRADE
ANTZERKIAREN EGILEA

"Indarrak batu behar ditugu gure beharrei erantzuna emateko"

Marisol Andrade antzeleraren egile eta bultzatzaileetako bat da. Lorenaren ama da, jaiotzez garun paralisia duen zapzi urteko neskatilaren ama, alegia. Andraderekin hitz egin dugu antzerkia hasi aurretik. Urduri zegoela aitortu digu, baina nabarmendu du, alaba buruan izanda, horrek ematen diola indarra eta motibazioa aurrera egiteko.

Zergatik antzezlan?

Aisialdira begira elkarte bat sortu gurako nuke. Debagoiengan ez dago horrelakorik eta Donostiaraino joan behar gara. Horregatik, gure bailaran, denon artean, indarrak batu behar ditugu gure beharrik asetzeko. Hala, ideia honekin bi arlo jorratu nahi nituen: gaitza herritarrei azaltzea eta elkarte horren beharra erakustea.

Zein da gizartean igartzen duzuen hutsune hori?

Nagusiki, aisialdian igartzen dugu, eta aldatzeko garaia heldu da. Gizartearen eskarrik ezberdinak dira, gizartea bera aldatu egin delako. Eskaintzak, aldiz, urte askoan berdina izaten jarraitzen du. Guk eskatzen dugunera moldatu beharra dago. Herritarren jarrera oso garrantzitsua da eskarri hori lortzeko.

Babestuta sentitzen zarete?

Oso babestuta sentitu naiz familiarengatik; aurrera egiteko, behar izan dugu. Badakit beste batzuk energia horren faltan geratzen direla etxean, beldurrak markatzen die eta hori da ezberdintasuna. Guk egin behar dugu aurrera.

Garun paralisia duen haurrarenekin, nolako da eguneroko bizitza?


Oso gogorra. Beti egurrezko motxila daramazu bizkarrean. Baina frustrazioa azaltzen denean, ezin zara gelditu, gaur ez bada, akaso, bihar izango da. Denon artean lortu ditzakegu aurrerapausoak.

TAMIA SAJERAS
ESKORIATZA



"Izebak gauza polita egin du Lorenagatik. Umeek nire lehengusinarekin kasua ezagutzeko aukera dute eta laguntza lortzeko bidea izan daitekeela uste dut".

BLANCA MEDINA
ESKORIATZA



"Gure auzoan bizi da Lorena. Zehazki ez dakigu zer daukan, ez dugulako familiarekin trataturik, baina modu honetan zer duen azaldu digute".

ROBERTO CUBERO
ESKORIATZA



"Interesgarria da ekimen hau. Errealtate bat erakutsi digute antzezlanean. Gertutik ezagutzeko aukera izan dute, gainera, gure umeek".

Herriko plaza txiki geratu zen 317 trikitilari eta pandero-jotzaileren doinuak jasotzeko

- ▶ Zapatuan arrakastaz ospatu zuten Debagoieneko zortzigarren Trikitixa Eguna, Eskoriatzan
- ▶ Polka, fandangoak, kalejirak, biribilketak... askotariko doinuak izan ziren entzungai

MAIDER ARREGI | ESKORIATZA

Beste behin, garbi geratu da trikitixa moda kontua baino gehiago dela. Sentsazioen bilgune bilakatu zen Eskoriatza zapatuan. Bertan ziren Debagoieneko trikitilari eta pandero-jotzaile onenak. Sekulako harrera izan zuen zortzigarren Trikitixa Eguna eta Eskoriatzako plaza txiki geratu zen.

Eguerdian, trikitixa eskola bakoitzeko taldeek pieza bana jo zuten. Hasiberrien zein beterranen aurpegian urduritasun puntu bat eta irribarre bat marraztuta ikusi genituen. "Asko gustatzen zaigu panderoa eta trikitixaren doinua; bi urte goaz eskolak hartzen Eskoriatzako trikitixa eskolan eta oso gustura gaude", azal-

du ziguten gaztetxo eskoriatzarrek eszenatokira igotzear zedela.

Adolfo Jainaga antolatzaile eta trikitixa irakaslea ere pozik ikusi genuen batutako jendetza ikusita: "Jendearen erantzuna oso ona izan da. Bailara honek eutsi egiten dio oraindik 90eko hamarkadan emandako trikitixaren boom horri eta zaletasuna handia da. Guk behera egin zezakeela uste genuen arren, demostratu da gizartean, gazteen artean, gustuko instrumentua dela eta pixka bat gora ere egin duela azken urteetan batez ere". "Lehen, horrelako trikitixa egunetara trikitilari helduak joaten ziren; orain, aldiz,



Goizean, Eskoriatzako kaleetan zehar kalejira egin zuten. | JULIO CALLEJA

gauzak aldatu egin dira eta gazteak dira festaren ardatz. Baina badago adin tarte konplexu bat, 12 eta 16 urte bitartekoena. Izan ere, tarte horretan batzuek trikitixa utzi egiten dute. Hemen aldiz, ez dago horrelako beherakadarik. 18 eta 20 urte arteko asko ikusten da trikitixarekin eta etorkizunera begira poza eta sentsazio onak ematen dizkigu eboluzio horrek", nabarmendu gura izan zigun Jainagak.

Zalantza gabe, horrelako festek trikitixa jendearengana gerturatzeko balio dute. "Trikitixak herriari zer ematen dion argi geratzen da, baina baita ere balio du gazteek harremanak egiteko; euren artean elkar ezagutzeko aukera polita dela uste dugu".

317 lagunengatik pandero eta trikiti doinuek Eskoriatzako kaleak goiz goizetik iluntzera arte alaitu zituzten. "Panderoa jotzen ikastea gustatuko litzaidake; gaztetxoek nolako erraztasunarekin jotzen duten ikusteak sekulako inbidia ematen dit-eta", aitortu zigun herritar batek.

Elgetak du lekukoa datorren urteko festa antolatzeko.




GARAZI BERGARA

"30 lagun inguru etorri gara Bergararik. Entseatu dugu asteen zehar, baina lanpetuta ibili gara, Erramun Zapata ere izan dugu-eta".



JONE ETA NEREA GASTEIZ

"Maixa da gure irakaslea eta Arrasateko trikiti taldearekin etorri gara; urtero etortzen gara. Aurten biribilketa bat jo dugu eszenatokira nagusian".



ARATZ ARAMAIO

"Aramaion betidanik egon da zaletasuna, urtero etorri gara. 10 urte daramatzat, hasieran panderoaz eta trikitixarekin animatu nintzen gero".



MALEN, AMAIA, MAREN ETA ALAITZ BERGARA

"Trikitixa jotzen dugu eta gustura ibili gara kalejiran. Aurtengoa bigarren aldia da eta pixkanaka pixkanaka hobeto moldatzen gara. Polka ere dantzatu dugu plazan".

Musikaldiak arrasatear kutsu handia izan du aurten eta nabaritu egin da hori

Bai Udalak bai Arrasate Musikalek positiboki baloratu dute Udaberriko VIII. Musikaldia

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Zazpi musika hitzordu izan ditu aurten Arrasateko Udaberriko Musikaldiak. Apirilaren 27an hasi zen musika zikloa Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoaren eta Goikobalu abesbatzaren emanaldiarekin eta atzo, domeka, amaitu zen Vocalia abesbatzaren saioarekin.

Bi aste bukaera horietan maila altuko musikariak izan dira Arrasaten, eta aurten protagonismo berezia izan dute herriko musikariek. "Arrasaten musikari oso onak daude, eta aurten presentzia berezia izan dute Musikaldian. Ikusi dugu horrek jende gehiago erakartzen duela kontzertuetara", adierazi du Arrasate Musikaleko Edorta Aiastruik.

Arrasateko Udalak ere balorazio positiboa egin du. "Oso gustura gaude Musikaldiak emandakoarekin", esan du Karmelo

Alberdi Kultura teknikariak. "Maila handiko kontzertuak izan ditugu, eta publikoaren erantzuna ere oso ona izan da. Kontzertu gehienetan 100 lagunetik gora batu dira".

Emanaldietako bat aukeratzen hasita, musika zikloa zabaltzeko Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoak Goikobalu abesbatzarekin batera egindako kontzertua nabarmendu du Alberdik. "Eliza bete egin zen", adierazi du. Apirilaren 29an Alberto Urretxo eta Marion Desjacques-Huguel musikariek egindako kontzertuan ere aurreikuspenak gainditu egin zirela esan du.

Kutsu arrasatear handia

Arrasate Musikaleko Edorta Aiastruik Musikaldiak aurten izan duen arrasatear kutsu handia baloratu du, bereziki. "Orkestrak eta Goikobaluk egindako kon-



Arrasate Musikaleko txistu ikasleen banda zapatu eguerdian Herriko plazan. | JULIO CALLEJA

tzertua oso jendetsua izan zen. Gainera, Musikaldi honetan herriko musikari ugari izan ditugu: txistulari taldeak, Alberto Urretxo tronboi-jotzailea, Igor Egidon biolontxelo-jotzailea edo Nestor Morales perkusionista. Horrek ere jendea erakartzen du, izan ere, maila handiko musikariak izan ditu beti Arrasate eta herriak zuzenean entzuteko aukera izan du Musikaldi honetan".

ESANAK

"Maila handiko kontzertuak izan ditugu eta erantzuna oso ona izan da"

KARMELO ALBERDI | UDAL TEKNIKARIA

"Musikaldian herriko musikari ugari izan ditugu; berezia izan da zentzu horretan"

EDORTA AIASTUI | ARRASATE MUSIKAL



Matxurak emanaldi indartsua eskaini zuen egubakoitz gauean. | JULIO CALLEJA

80. hamarkadako metal industrialala gaztetxean Matxuraren eskutik

Mikel Kazalisen taldeak Ministry edo Nine Inch Nails bezalako taldeen doinu gogorak eskaini zituen Kooltur Ekintzak antolatutako emanaldian

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Ez da ohikoa, ezta lehenengo aldia ere Kooltur Ekintzak ostegunak alde batera utzi eta beste egun batean ekitaldi bat antolatzeko duena. Horren adibide izan zen egubakoitz gauean Matxurak eskaini zuen emanaldia.

Esperientzia handiko musikariek osatzen duten taldea da, besteak beste, Anestesia, PiLT

edo Kuraia moduko taldeetan aritutakoak dira bertako kide. Barikuan, doinu gogorrez jositako ordu eta laurdeneko emanaldia eskaini zuten. Doinu gogor horiek lortzeko, laukoteak sintetizadoreak, gitarrak eta ahotsa erabiltzen ditu eta gurean egindako emanaldian, irudi gordinak eskaintzeko bideo proiektore bat ere eraman zuten.

Gaur egungo sistemak matxura bat duela eta munduaren apokalipsia gertu dagoela sinistartzea da taldearen helburua eta, zuzenean, muturrera eramaten dute ideia hori, Fer Apoaren keinuekin eta Abioren basatikierekin. Barikuko kontzertuan, RIP talde arrasatearraren *Mundo Muerto*-ren ez-ohiko bertsioa ere egin zuten.

Giro aparta kale zaharreko plazatxoan Willis Drummond, Herstura eta Tooth-ekin

Hiru taldeen artean girotu zituzten egubakoitz gauean Oñatiko San Migel txikiko jaiak

A.M. | OÑATI

Egubakoitz gauean giro aparta izan zen Oñatiko kale zaharrean. Arratsaldean eman zieten hasiera San Migel txikiko jaiak, eta gaua girotzeko, Willis Drummond, Tooth eta Oñatiko Herstura taldeek emanaldia eskaini zuten kale zaharreko plazatxoan.

Oholtza gainera igotzen lehenengo taldea Tooth izan zen, Kyuss edo Dut bezalako

taldeen eragina nabari zaion taldea; bigarrena Herstura oñatitarra izan zen eta aurrekoak bezala, rock doinu gogorrez jositako emanaldia eskaini zuten.

Ostean, Iparraldeko Willis Drummond-en txanda izan zen. Emanaldi bikaina eskaini zuen eta baita publikoarekin konektatzea lortu ere. Fugazzi edo Pearl Jam taldeen eragina nabari da euren doinueta.



Willis Drummond taldekoak kale zaharreko oholtza gainean. | MIREN ARREGI

Uda 2012

Mirari

JANTZIDENDA


Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak 38tik 60ra

LEINTZ GATZAGA **ESKORIATZA**

EUSKAL HERRIA ALDIZKARIAK AURKEZTEN DU

MUNDUKO KULTUREN FESTA



**DE
BA
GO
IE
NA**

**MAIATZAK
18
19
20**

KONTZERTUAK

RICHARD BUCKNER

EEUU

ESNE BELTZA

EUSKAL HERRIA

ANARI

EUSKAL HERRIA

LA PEGATINA

CATALUNYA

KILEMA

MADAGASKAR

BIZARDUNAK

EUSKAL HERRIA

GAFIEIRA MIÚDA

BRASIL

PATTA TA SENDAEZINAK

EUSKAL HERRIA

MUTÜRBELTZ

EUSKAL HERRIA



EKOFERIXA

PRODUKTU
EKOLOGIKOEN
ETA SLOW FOOD
GASTRONOMIAREN
AZOKA

UMEEN GUNEA

-ARTISAUTZA ETA
MUNDUKO ZAPOREAK
- ELKARTASUN
FOROA- **KALE
ANIMAZIOA...**



i 902 181 471

WWW.MUNDUMIRAFESTA.COM

info@mundumirafesta.com

ANTOLATZAILEAK

EUSKAL HERRIA

www.euskalherria-aldizkaria.com



BABESLE NAGUSIAK



BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



GURE MUSIKA TALDEAK

AZKAITER PELOX

Unai Azkaratek, besteak beste, Carlos Ortiz eta Amaia Azpiauren laguntza izan du *Zamburleiker* izeneko lan berrian. | ION ANDUEZA

"Nire lanean sinisten dut eta nire bizitzaren parte bat abestietan islatzen dut"

- ▶ Musikari bergararrak zapatuan Lainon aurkeztuko du 'Zamburleiker' diskoa
- ▶ Diskoarekin batera, 'Busking Days' izeneko dokumentala ere estreinatuko du

ANDER MONEDERO | BERGARA

Azkater Peloxek (Bergara, 1908) 2004an Fly Shit taldea utzi eta bi proiektu abiarazi zituen: Mahaster River eta Azkater Pelox. Lehenengo proiektuarekin bi lan kaleratu, eta 2011n proiektua desegin zen. Orain, 2004. urtean hasitako beste proiektuarekin jarraitzen du: Azkater Pelox. Zapatuan, maiatzaren 12an, *Zamburleiker* izeneko lana aurkeztuko du Bergarako Laino skate parkean. **2004an hardcorea alde batera utzi eta gitarra akustikoa hartu zenuen.**

Zer-nolako jauzia izan zen?

Jauzi handia izan zen: anplifikadorea topera jartzetik agertoki batean gitarra akustikoarekin bakarrik egotera. Dirudiena baino zailagoa da oholtza gainean bakarrik egotea. Orain, lagunak kontzertuetan jotzera gonbidatzen ditut. Nahiz eta Azkater Pelox izan, gitarra akustiko bat, kontrabaxua, harmonika... Jendearekin jotzen asko disfrutatzen dut.

Bakarlarria izan arren, oso gutxitan ikusten zaitugu agertokian bakarrik.

Nik musikak duen integratzeko gaitasuna azpimarratzen dut. Bertako musikariez aparte, Venezuelara, Uruguai eta Ingalaterrako lagunekin jotzen dut, eta haien herrialdeetako erritmoak ezagutzeko aukera izan dut.

Noiz hasi zinen *Zamburleiker* diskoko abestiak prestatzen?

Zamburleiker diskoko abestiak orain dela urtebete inguru lantzen hasi nintzen, baina abestien ideia asko zaharrak dira. Adibidez, *Iparraldera bidaia* abestia 2004ko ideia baten oinarrituta dago. Nire lanean sinisten dut, artista

bat naiz eta nire bizitzaren parte garrantzitsu bat abestietan islatzen dut.

Orion bizi izandako urteetako abesti bat ere grabatu duzu.

Bai, Ottis Reading-en *Dock Of The Bay* abestiaren bertsioa grabatu dut, baina kantuaren hitzak aldatu ditut. *Orioko Itsas Ertzean* da bertsioaren izena.

Lan berria Eibarko Legarre estudioan grabatu duzu. Zergatik?

Ander Barriuso soinu teknikariaren estudioa da, eta oso ondo konektatzen dugula uste dut. Xabier Montoia, Kokein, Musergo... bezalako taldeentzako lan egin du eta bukaerako emaitzan hori antzeman daiteke. Gainera, grabaziora hamar musikari gonbidatu ditut, horrek dakarren lan guztiarekin...

Zaila izango da hamar musikariren agenda lotzea.

Bai, oso zaila da. *Jam Session* -etan jotzen dut, eta bertan eza gutzen dudan jendearekin harremana izatea gustatzen zait. Disko baten laguntzeko esan, eta gehienak gustura etortzen dira! ***Zamburleiker* diskoan estilo desberdin asko nahasten dituzu. Disko grabatzera gonbidatu dituzun musikariren eragina antzeman daiteke.**

Beste musikari batzuekin jotzen asko ikasten da, eta diskoan, elkarrekin ikasitakoa erakusteko aukera polita da! Kolaborazioek lana aberasten dute.

Disko berriarekin batera *Busking Days* izeneko dokumentala ere aurkeztuko duzu.

IKUSPUNTUA

IKER BARANDIARAN
KAZETARIA |
ibarandiaran@goiena.com

Kolore eta estilo askotako paleta

Unai Azkaratek alter egoa sortu zuen kantuak plazaratu eta ondo pasatzeko. Formatao bakarkakoa zen, baina Azkaratek lagun artean hobeto pasatzen du. Hortaz, lagun asko batu ditu estiloz hain irekia den lan honi kolore gehiago emateko. Bossarekin proba egin du, baita pop-souleroarekin, funkyarekin, rock-and-rollarekin eta bluesarekin, besteak beste. Azkaratek abesteko-errezitatzeko marka propioa badu ere, alboan duen neskaren ahotsak batez ere asko aberastu du emaitza.

Bai. 2011n Dublinoan jotzen pasatzen egunetan bizi izandakoa kontatzen dut. Bertan egindako lagunak, posteen gainean jotzen ibili ginen momentua, Temple Bar-eko giroa... Lan hau egiteko Mikel Calvo eta Iker Ugalderekin laguntza izan dut.

Samsung Galaxy S III-a Androidetan erreferente izateko gertu dator

Modelo berriarekin, teknikoki eta software-aren aldetik aurrea hartu dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Android sistema eragiledun telefonoen erreferentzia izango da Samsung Galaxy S III; aurkeztu berri dutena eta ekainean salgai jarriko dutena. Bi dira indargune nagusiak: erresoluzio altuko pantaila handia eta ahotsaren antzemate naturala egiten duen software berria. Merkatuko konpletuaren artean egongo da Koreako etxearen telefono berria, hala ere aurkeztu zuten joan den eguean Londresen. Samsung Unpacked delako enpresaren aurkezpen ekitaldian erakutsi zuten modelo berria.

Orain arte Galaxy S II-a zen Samsungeko bandera-ontzia baina modelo berriarekin aurreikuspenak gainditu eta teknikoki espero zitekeena baino gehiago aurkeztu dute. Zeresana baina ez dute ezaugarri teknikoek eragin, telefono erabiltzeko eta uler-



Samsung Galaxy S III telefonoa. | SAMSUNG

tzeko ematen duten aukera baizik. "Humanoagoa" egin gura omen dute telefonoa eta modelo berria horren erakusle izango dela diote, "gauza ez" dela "mugikorraz" zer egiteko gai diren esatea, bai-

zik eta zelan diren hori egiteko gai", erabiltzailearengan pentsatuta.

Hala eta guztiz ere, ezaugarri teknikoak eta neurriak nabarmendu dituzte. Esaterako, pan-

taila-erresoluzioa. 1.280 x 720 pizelekin eta 4,8 hazbeteko zabalarekin pentsa liteke neurri horiekin handiegia dela gailua baina aurkezpenaren egon zirenek diote benetan maneagarria dela telefonoa. Lau prozesatzaile ditu nukleoan eta 133 gramoko pisua. Kamerak 8 megapixel dauzka, iPhone S4aren antzera.

Softwarea

Berrikuntzen artean S Voice delako ahotsa antzemateko softwarea aipatzen da nabarmenen artean eta Apple-en Siri sistemari erantzun moduan aurkeztu dute. Apple-enak ez bezala, baina, ekainean bertan, telefonoa salgai dagoenean, 8 hizkuntzatan erabili ahal izango da. Samsung-eko Komunikazio Presidenteak azaldu zuen "ikus, entzun eta aditzen zaituen" telefonoa dela eta, esate baterako, begira zauden bitartean martxan jarraitzen duen telefonoa dela ala begiratzeari uzterakoan bera bakarrik itzaltzen da edo bideo bat ikusterakoan erabiltzailea loak hartzen badu ere, amatatu egiten da gailua. Ice Cream Sandwich sistema eragilearekin dator modelo berria eta NFC teknologia ere badauka.

Google Wave hilda "ofizialki", maiatzaren batetik

Ofizialki zerbitzua eten du Google Wave-ek, Google-ek mikroblogintzarako atera zuen alternatiba ala beste era batera esanda, twitterri aurre egiteko saiakera, jaio eta ia berehalako porrota izan zena, nahiz eta hasiera baten sekulako interesa piztu zuen. Urtarrean irakurri bakarrik egin zitekeen eta orain maiatzean, guztiz eten dute zerbitzua. Google-eri oraindik Google Buzz geratzen zaio arrakasta handirik lortu ez duten zerbitzuen artean.

SlideShare erosi du LinkedIn profesionalen sareak

Aurkezpenak igo eta parte-katzeko on-line zerbitzurik ezagunena erosi du LinkedIn profesionalentzako sare sozialak. 100 milioi dolar ordaindu dute. LinkedIn-etik diote Slideshare-ek dagoen moduan jarraituko duela eta erosketa "elkarlan natural baten ondorio" izan dela eta profesionalen arteko sarearekin integrazioan egingo dutela lan aurrerantzean. Zerbitzu eta integrazio mota ezberdinak aurkeztuko dituztela iragarri dute dagoeneko.

Facebooken e-posta faltsuak bidaltzen dabilta gako eske

Facebookeko itxura eta estiloa hartuta sarbide gakoak eskatzen dituzten e-posten erasoaz ohartzeko dabilta hainbat webgune. Eraso nahiko zabala izateaz gain, spamaren aurkako iragazkiak erraz igarotzen dituela zehazten dute gainera. Facebooken irudi korporatibo hartzen dute mezuek eta haietan link baten bitartez erabiltzailearen gako eta datuak eskatzen dira. Hala egin ezean, Facebook-eko kontua bertan behera geratuko dela esaten da aipatutako phishing mezuan.

GMail 10 Gb-ko biltegi espazioa eskaintzen hasi da lainoan

Google Drive lainoko biltegi zerbitzua aurkeztearekin batera Google-eko iragarri dute posta zerbitzuan ere espazioa handituko dutela eta 10 Gb-koa eskaini. Orain arte 7.703 Mb-koa zen ahalmena eta orain poliki-poliki espazioa handitzen joango dira 10 Gb-etara iritsi arte. Google Drive zerbitzuari dagokionez, hasiera baten eta doan 5 Gb-eko espazioa da eskaintzen dutena baina honezkeri iragarri dute plan eta eskaintza berriak izango dituztela aurki bai doan zein ordainduz.

Twitter ordainpeko bat pentsatzen dabilta

J.B. | ARRASATE

Ezer argi utzi barik eta are gutxiago zehaztuta baina Twitterreko arduradunek iradoki egin dute ordainpeko zerbitzu baten aukerari lanean dabiltzala. Wired aldizkariak antolatutako hitzaldi sorta baten Dick Costolo zuzendariak jakinarazi zuen hori.

Sei urtean Twitterrek lortutako arrakasta itzela izan da eta dagoeneko informazio iturri nagusietako bat bilakatu da mikroblogintza zerbitzua. 500 milioi erabiltzaile baino gehiago ditu sareak gaur egun eta 10 segunduoro 10 *tuittari* berri daude.

Hobekuntzak

Azken urteetan euskarri eta sistema ezberdinarentzako bertsioetan lanean ibili dira Twitterreko zerbitzua erabiltzaileen beharretara egokitzeko asmoarekin eta honezkeri erabat integratuta dago sistema gehienetan. Hobekuntzez gain, berrikuntzak egingo dizkiote zerbitzuari eta litekeena da aurrerantzean etorriko diren gehigarriak izatea ordaindu beharrekoak. "Premium" zerbitzu baten "funtzionamendua aztertzen" ei dabilta garrantzuzko zuzendariak aurreratu zuten baina xehetasunik aurreratu barik. Aztertzen dabiltzala nabarmendu zuen Costolok.



Barnes & Noble etxearen Nook irakurgailua. | BARNES & NOBLE

Microsoftek argitalgintzan dauka jomuga berria

Barnes & Noble-ekin batera, katalogo digitala eskaini eta hezkuntzaren alorrean sartu gura du

J.B. | ARRASATE

Argitalgintza digitalak gero eta pisu handiagoa duenaren erakusle da handiki, argitaletxe eta euskarrien fabrikatzaileak murgilduta dauden geroago eta borroka sutsuagoa. Amazon da handikiena eta komertzialki behintzat aitzindaria ere bada. Sektorearen zati handi bat berea da baina ez luzaroan, azkenaldian jasaten dabilen erasoak ikusita.

Microsoft eta Barnes & Noble dira oraingoan elkar hartu eta bigarrenaren filial baten bitartez

irakurketa digitalerako teknologien berrikuntzan lanean hasiko direnak. Microsoftek konpainia berriari 300 milioi dolarretako inbertsioa egingo du eta %17,6ko partaidetza izango du. Filial berriak berezko izena eta marka izango du eta harreman komertzialak Barnes & Noble-ek kudeatuko ditu, bere liburutegi digitala eskainiz.

Horrela, Microsoft Barnes & Noble katalogo digital zabala eskaintzen hasiko da Windows 8 sistema eragilea darabilten

erabiltzaileei. Daudenen artean osatuenetakoa da katalogo hori eta Amazone-enari lehia egiteko moduan aurkitzen den bakarrenetakoa da.

Nook irakurgailua

Barnes & Noble-ek, halere, badauka bere irakurgailua dagoeneko merkatuan: Nook delakoa. Teknologia garatu eta milioika erabiltzaile potentzial eskainiko dizkio Microsoftek orain. Helburua baina ez da hor geratzen, bi handikiek bete betean sartu gura baitute hezkuntzaren alorrean eta horretan pentsatzen jardungo dute produktu eta zerbitzu berriekin. Ikasleentzako teknologia eta katalogo espezifikoak garatu gura dituzte elkarrekin eta aitzindariak izan sektore hori bereganatu eta Amazon-eri aurrea hartzen.

TELE-BEGI



OIHAN VEGA

'EVAX' eta bere usaina

Barkatu nire atrebentzia, baina galdera bat daukat: Nork asmatzen ditu konpresen iragarkiak? Ze legez kanpoko substantzia jaten dute spot horietako kreatiboek?

Suposatzen dut denok ikusi duzuela EVAXen kanpaina (arraioa! ezin da markarik esan). Kompresa horiek usainik igortzen ez dutela iradokitzeke itzela da erabili duten estrategia: hiru neska ageri zaizkigu pantaila erdian jarrera harro eta desafio aurpegia-rekin, koloretako gonaz jantzita eta eginkizun bakarrarekin spotak irauten dituen 20 segundotan: hankak zabaltzea. Besterik ez. Hori da marka horrek emakumeen inguruan igorri nahi duen irudia? Ez ote dago beste modu zoli edo burutsuago bat mezu bera iradokitzeke?

Eta hori gutxi balitz, iragarkiak dio: 'oraingoan bai, oraingoan bai ez dagoe-la usainik'. Hara! Nola oraingoan bai? Ordura arte engainatu egin gaituzte beraz... Engainu galanta halajaina!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 7



Harmailatik, Ford Mugarri Arrasate

21:27

Ford Mugarri Arrasate eskubaloi taldeak Lehen Nazional mailara igotzeko fase erabakigarria jokatu du asteburuan.

- 12:30 Magazinea
- 13:30 Zorion Agurrak
- 13:35 Onein
- 14:05 Musika
- 14:35 Zorion Agurrak
- 14:40 Berriak
- 15:00 Eguraldia
- 15:05 Ur eta lur
- 15:29 Ballet: Gernika
- 16:29 Dokumentala
- 16:44 Berriak
- 17:04 Eguraldia
- 17:09 Musika
- 17:42 Onein
- 18:12 Berbaz
- 19:12 AsteON
- 19:42 Zorion Agurrak
- 19:47 Berriak
- 20:07 Eguraldia
- 20:12 Magazinea
- 20:57 Berriak
- 21:22 Eguraldia
- 21:27 Harmailatik
- 22:12 Magazinea
- 22:57 Harmailatik
- 23:42 Berriak
- 00:05 Eguraldia

MARTITZENA, 8



'Egiari zor' Magazinean

20:15

Karmelo Arregik 'Egiari zor' izeneko Estatuaren indarkeriaren biktimen defentzarako sortutako fundazioaz hitz egingo du.

- 12:30 Magazinea
- 13:25 Zorion Agurrak
- 13:30 Harmailatik
- 14:15 AsteON
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Zorion Agurrak
- 15:15 Harmailatik
- 16:00 Onein
- 16:30 Dokumentala
- 16:45 Berriak
- 17:10 Eguraldia
- 17:15 Bizitegia
- 17:45 Harmailatik
- 18:30 Altxor Txokoa
- 19:01 Hamaika.bit
- 19:33 Beranduegi.tv
- 19:50 Berriak
- 20:10 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Berriak
- 21:20 Eguraldia
- 21:25 Harira
- 22:25 AsteON
- 22:55 Magazinea
- 23:40 Berriak
- 00:22 Berriak
- 00:47 Eguraldia.

EGUAZTENA, 9



Ataungo Sarecar 'Ekogune' saioan

22:02

Ataunek herritarren erabilerarako martxan jarritako auto elektrikoak ikusi eta ezagutu ahal izango dira 'Ekogune saioan'.

- 12:15 Magazinea
- 13:00 Zorion Agurrak
- 13:05 Harira
- 13:55 Beranduegi.tv
- 14:13 Erreportajea
- 14:43 Berriak
- 15:03 Eguraldia
- 15:08 Gipuzkoa kultura
- 15:38 Onein
- 16:14 Berbetan
- 16:44 Berriak
- 17:04 Eguraldia
- 17:07 Harmailatik
- 17:50 Musika
- 18:50 Ekogune
- 19:20 Gipuzkoa kultura
- 19:50 Berriak
- 20:10 Eguraldia
- 20:13 Magazinea
- 20:51 Lehiaketa
- 21:01 Berriak
- 21:21 Eguraldia
- 21:24 Magazinea
- 22:02 Ekogune
- 22:32 Huhezinema 2012
- 00:13 Eguraldia
- 00:18 Planik bai?

EGUENA, 10



Musika kontzertuak

22:13

Duo Hausoka bikotea eta Vocalia abesbatza ren kontzertuak izango dira ikusentzuegi Gipuzkoa kultura saioan.

- 12:30 Magazinea
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:20 Ekogune
- 13:50 Ballet: Gernika
- 14:20 Hamaika.bit
- 14:50 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:15 Huhezinema 2012
- 17:05 Erreportajea
- 17:40 Berriak
- 18:00 Eguraldia
- 18:05 Altxor Txokoa
- 18:36 Ur eta lur
- 19:00 Ekogune
- 19:30 Planik bai?
- 19:50 Berriak
- 20:10 Eguraldia
- 20:13 Magazinea
- 20:53 Planik bai?
- 21:13 Berriak
- 21:38 Eguraldia
- 21:41 Hamaika.bit
- 22:13 Gipuzkoa kultura
- 22:43 Planik bai?
- 23:03 Magazinea
- 23:48 Berriak
- 00:10 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 11



Pello Zabala eta Jose Maria Arregi

22:07

AsteON saioan Prantziskotarren eta Arantzazuren etorkizunari buruzko erreportajea Pello Zabala eta J. M. Arregi izango dira.

- 12:30 Magazinea
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:20 Gipuzkoa kultura
- 13:50 Onein
- 14:27 Planik bai?
- 14:47 Berriak
- 15:07 Eguraldia
- 15:22 Bizitegia
- 15:52 Berbaz
- 16:52 Berriak
- 17:12 Eguraldia
- 17:17 Planik bai?
- 17:37 28.Klip
- 18:03 Harira
- 19:03 Berbetan
- 19:33 Beranduegi.tv
- 19:52 Zorion Agurrak
- 19:57 Berriak
- 20:17 Eguraldia
- 20:22 Planik bai?
- 20:42 Harira
- 21:42 Berriak
- 22:02 Eguraldia
- 22:07 AsteON
- 22:37 Berriak
- 22:57 Eguraldia
- 23:00 Planik bai?
- 23:10 Ballet: Gernika
- 23:40 AsteON

ARRASATE IRRATIA

'Bitter Honey' + 'The Cubical' kontzerturako sarrerak

The Cubical eta Bitter Honey talde arrasatearren kontzertuetarako sarrerak zozketatuko ditugu. Kontzertuak Amaia antzokiko hallean izango dira maiatzaren 11ean, 20:00etan. Zozketan parte hartu nahi baduzu: deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.com edo @arrasategoiena-ra. zor-te on!

Berdintxiketan lasterketa mistoa Oñatin

Gaur, astelehena, *Igo autobusera!* saioan kirolen geltokian Oñatin antolatutako Berdintxiketan lasterketa mistoaren berri emango dizuegu. Lasterketak berdintasunaren aldeko herri-lasterketa batean parte hartzea du helburu eta maiatzaren 11an ospatuko da. Kirola egiteko dauden modu ezberdinen inguruan hitz egingo dugu.

Eguraldi iragarpenak egunero Joxe Landaren eskutik

Astean zehar herrian izango diren zerbitzu eta gertakizunen berri emango dizuegu. Elkarriketak eta musikaz gozatzeko aukera izango duzu. Horrez gain, astero bezala, Joxe Landak *Igo autobusera!* irratisaioan bere geltokia izango du eta bertan eguneko eguraldi iragarpenak egingo dizkigu. Hori gutzia eta gehiago 107.7ko uhinetan izango duzu.

ZORION AGURRAK



DEBAGOIENA Peru Guenetxea Irizar Maiatzaren 8an, 2 urte. Zorionak, pototo! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu potolo bat famili danan, eta bereziki, aitaxo, amatxo eta Iratiren partetik.



ARRASATE Eneko Parra Matilla Maiatzaren 8an, 10 urte. Zorionak, futbolari! Dagoeneko 2 eskuo hatz guztiak bete dituzu, mutikote. Ederto igaro egun berezi hau. Merendolan primeran ospatuko dugu. Laguntxo guztien partetik, 10 patxo potolo-potolo eta belarri tirakada handi bat. Muxuxuek, txapeldun!



OÑATI Mara Mugarza Urizar Maiatzaren 7an, 3 urte. Urte askotarako gure etxeko printzesa handiari. Hiru patxo potolo Noa, aitaxo eta amatxoren partetik.



BERGARA Aner Ezenarro Muruamendiaraz Maiatzaren 7an, 39 urte. Zorionak, aitaxo! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu potolo bat familia guztiaren, eta bereziki, Erik eta amatxoren partetik.



OÑATI Ekain Guridi Carrascal Maiatzaren 7an, 6 urte. Zorionak, potxolo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat Asier, Beñat, Jone, Gorka eta Noraren partetik.



ARETXABALETA Mirari Altube Maiatzaren 7an. Ofiziña berrixe, ohitura berriek! Kafiakin batera, etxien einkako madalenak jateko ohituria daukou! Zorionak eta ondo pasau!




BERGARA Gorka Ibarra Guridi Maiatzaren 6an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunean eta gozatu opariekin. Patxo handi bat etxeko partetik, bereziki Jonek.



ESKORRIATZA Mikel Parra Navarro Maiatzaren 6an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta Liberen partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean.




OÑATI Itsaso Guridi Maiatzaren 6an, 15 urte. Zorionak, politto! Primeran pasatu eguna. Patxo handi bat zure lagunengatik.



OÑATI Oihana Aranburu Maiatzaren 6an, 15 urte. Zorionak, *wapa!* Primeran pasatu eguna! Eta toperaino disfrutatu. Patxo bat zure lagun danan partetik!



BERGARA Iker Ibarra Eguren Maiatzaren 5ean, 4 urte. Zorionak, begi urdin! Ze handi egiten ari zaren! Muxu erraldoi bat Leire, Jone, Mikel, Gorka eta Aneren partetik.



ARETXABALETA Gartxot Elizegi Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak, *Xabi Prieto!* Aurten danok Astigaragarra joango gare; beraz merienda goxua prestatu eta denok esango dugu: "ederraziok!" Muxu handi handia familiazko danen partetik.




ARRASATE Diego Andres Garcia Maiatzaren 5an, 30 urte. Zorionak, tio Diego! Zurekin hasten gara familiaoko maiatzekoak urteak betetzen! Ederto pasatu eguna, 30 muxu potolo-potoloak etxekoan, eta bereziki, loba Beñat eta Marenen partetik. Belarri tirakada handi-handi bat. Patxoak, guapo!



ESKORRIATZA Goizeder Martinez Armengol Maiatzaren 5ean, 15 urte. Etxeko alaitsuendako zorionak eta munduko muxu handiena. Etxeko guztiok, bereziki Galder eta Amaur.


ZORION AGURRAK



OÑATI
Aner Urrutia Garcia de Albeniz
Maiatzaren 5ean, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetze egunian eta muxu handi-handi bat familia danan partetik.



DURANGO
Oihane Isasi
Maiatzaren 5ean, urtebetetzea. Azenario, kalabaza, erremolatxa edo gura duzunarekin, baina ekarri pastelxo bat!




OÑATI
Txomin Madina
Maiatzaren 5ean, urtebetetzea.
Txokolatezko pastel hori berriro daztatu gura dugu. Zorionak lankideen partetik!



OÑATI
Miren Arregi
Maiatzaren 4an, urtebetetzea.
San Miel txiki, bixamona handi? Zorionak eta eutsi astelehenari!




ARETXABALETA
Sarah Corres Zubillaga
Maiatzaren 4an, 12 urte. "Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak Sarah...lalala...". Zorionak, guapo! Ondo-ondo ospatu zure urtebetzia. Muxuak familiaren partetik.




BERGARA
Miren Etxeberria Perez
Maiatzaren 4an, 4 urte.
Zorionak! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
Josu Zubia
Maiatzaren 4an, 18 urte.
Zorionak, artista! Azkenian ailegatu da eguna. Aprobetxatu eta juerga on batekin ospatu! 18 muxu!



BERGARA
Intza Goiti Zubia
Maiatzaren 3an, 2 urte.
Zorionak, pototi! Amatxo, aitatxo eta Egoitz.




ARETXABALETA
Xabat Larrinaga Elkoro
Maiatzaren 3an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetze eguna eta patxo handi bat etxekuen partetik!



BERGARA
Ane Lazkano Palacios
Maiatzaren 3an, 4 urte.
Zorionak, printzesa! Lau urte zoragarri zurekin. Muxu asko familia guztiaren partetik eta ondo pasatu, preziosa.



ARRASATE
Haizea Zabala
Maiatzaren 3an, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Patxo handi bat Danel, aitatxo eta amaxoren partetik.



ANTZUOLA
Ibone Urzelai Otaegi
Maiatzaren 3an, 3 urte.
Zorionak, potxola! Muxu handi bat familiako partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean!




BERGARA
Manex Larrañaga
Maiatzaren 3an, 17 urte.
Zorionak, Ximelto! Ondo pasatu eguna eta aprobetxatu! 17, morenak.



BERGARA
Endika Ibaibarriaga Bengoa
Maiatzaren 2an, 8 urte.
Zorionak, Endika, eta urte askotarako etxeko guztien partetik.



BERGARA
Elene Otero Larrañaga
Maiatzaren 2an, 3 urte.
Zorionak, potxola! Muxu pilo bat etxeko partetik. Ondo-ondo pasatu!



ANTZUOLA
Enaitz Irizar Iztueta
Maiatzaren 2an, urtebete.
Urte askotarako, maittea! Zorionak aitatxo, amatxo eta Ariantzaren partetik!



BERGARA
Danel Gonzalez Rodriguez
Maiatzaren 2an, 5 urte.
Zorionak, pirata! Ederto ospatuko dugu zure eguna. Muxu handi bat etxeko danon partetik, Lucia, Hugo eta Jonek bereziki!



ARAMAIO
Aitor Arana
Maiatzaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo Aitor! Muxu handi bat zure bi printzezen partetik! Ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
Patxi eta Alazne Urkiola
Maiatzaren 1ean, Alaznek 9 urte eta Patxi 40 eta piku. Zorionak, bikote, eta patxo handi bana, amatxo eta Maitaneren partetik.



ARRASATE
Haitz Belategi
Maiatzaren 1ean, 2 urte.
Zorionak, mutikote! Patxo handi bat etxeko partetik. Primeran pasatu zure urtebetetzean!



OÑATI
Uxue Lopez Lasa
Maiatzaren 1ean, 5 urte. Zorionak, Uxuetxo! Etxeko eta lehengusu guztien partetik, ondo-ondo pasatu zure eguna.



OÑATI
Ion Arabalaza Villar
Maiatzaren 1ean, 24 urte.
Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Oso ondo pasatu zure urtebetetzea!



ARRASATE
June Dominguez Garai
Apirilaren 30ean, 2 urte.
Zorionak, printzesa! Jadanik bi urtetxo. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat familiaren partetik.



BERGARA
Aratz Arenaza Irizar
Apirilaren 30ean, 7 urte.
Zorionak etxeko guztien partetik.




ARAMAIO
Bittor eta Uxue Arana
Zorionak, bikote! Aititek apirilaren 25ean urteak eta Uxuek 6 urte apirilaren 29an. Muxu handi bat danon partetik Jauritxikitik eta, Uxue, segi horrela aititei laguntzen ortuan. Ondo pasatu!



ARETXABALETA
Markel Pando Egorza
Apirilaren 29an, 8 urte.
Aupa, Markel! Zorionak eta patxo handi bat danon partetik!




OÑATI
Maialen Romaratezabala
Apirilaren 29an, 27 urte.
Zorionak, poxpolin, denon partetik eta eskerrik asko zure iribarrearekin ematen duzun pozagatik. Ah! Igandean badakizu, zure kontura dena!



ESKORIATZA
Aner Jara
Apirilaren 29an, 5 urte.
Zorionak, Aner! Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi-handia familiako partetik.




ARETXABALETA
Zaratzu Lazkano Gorostiza
Apirilaren 28an, 3 urte.
Zorionak, mariberritu! Topera disfrutatu zure egunaz. Patxo mordo bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Aitor Dacosta Garcia
Apirilaren 28an, 5 urte.
Zorionak, artista! Etxeko partetik, bereziki June, Miren eta Andoni. Patxo handi bat.



ARETXABALETA
Dennis Gastañaga
Apirilaren 27an, 22 urte.
Zorionak, Dennis eta ondo-ondo pasatu zure 22. urtebetetzean. Harategiko lankide guztien eta bereziki zure neskalagunaren partetik (Montxi).



OÑATI
Ioritz Zabaleta Kortazar
Apirilaren 27an, 7 urte.
Zorionak bihotz-bihotzez, maitia! Egun polit eta zoriontsua pasa hizun opa dotzugu familia danon partetik. Tio-tiak, aita eta amamak eta batez be Garazi, amatxo eta aitatxok.



ANTZUOLA
Iban Mendia Valor
Apirilaren 27an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Itziar Moreno
Apirilaren 25ean, 16 urte.
Zorionak familia guztiaren eta batez ere iloba Aimarren partetik!



ARRASATE
Izortz Llodio Ramos
Apirilaren 25ean, 4 urte.
Zorionak, Txirri! Patxo handi-handi bat etxeko partetik.



OÑATI
Ainhoa Zabaleta
Apirilaren 23an, 33 urte.
Zorionak, tia Ainhoa! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta abixatu merendolara, eh! Patxo potolo-potolo bat Garazi, Ioritz, Josune eta Ioseba.




BERGARA
Lorea Urzelai Frago
Apirilaren 23an, 5 urte.
Zorionak, polita! Eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



ESKORIATZA
Haizea Gabilondo Herce
Apirilaren 23an, 4 urte.
Zorionak, sorgintxo! Egun polit-polita pasatu zure urtebetetzean eta muxu erraldoi bat zuretzako etxeko denon partetik!



ARETXABALETA
Itoitz Louvelli Urrutia
Apirilaren 23an, 4 urte.
Aupa, pirata! Zu bai loratxua zu! Patxo handi-handi bat etxeko partetik.



ARETXABALETA
Ekhi Louvelli Urrutia
Apirilaren 23an, 4 urte.
Zorionak, artixta! Azkenien ailegau da laugarrena be! Laztan handi bat etxeko partetik.

JAIOTAKOAK

**Ander Monsó Mora**

Bartzelona. 3,400 kilo. Apirilaren 20a. Gurasoak: Patricia eta Jordi. Argazkian, Ander sehaskan lo.

**Harri Izagirre Santamaria**

Antzuola. 3,810 kilo. Apirilaren 18a. Gurasoak: Irene eta Andoni. Argazkian, Harri sehaskan lo.

**Helene Fuente Garcia**

Oñati. 2,870 kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Laura eta Dani. Argazkian, Helene jaioberria.

**Laia Perez de Villarreal Perez**

Arrasate. 2,520 kilo. Apirilaren 21a. Gurasoak: Elisabeth eta Iban. Argazkian, Laia amarekin.

**Danel Sainz Arrese**

Aretxabaleta. 3,200 kilo. Apirilaren 22a. Gurasoak: Naiara eta Raul. Argazkian, Danel sehaskan lo.

**Josu Martin Etxeberria-Arteun**

Bergara. 3,900 kilo. Apirilaren 22a. Gurasoak: Amaia eta Jesus. Argazkian, Josu lotan.

**Egoi Martin Alonso**


Arrasate. 3,470 kilo. Apirilaren 21a. Gurasoak: Aurora eta Angel. Argazkian, Egoi gurasoekin.

**Uxuri Olalde Suarez**

Oñati. 3,070 kilo. Apirilaren 21a. Gurasoak: Lorea eta Juan. Argazkian, Uxuri sehaskan.

**Ane Arregi Gantxegi**

Bergara. 3,350 kilo. Apirilaren 24a. Gurasoak: Aitana eta Garikoitz. Argazkian, Ane amarekin.

**Intza Aranzabal Sarasua**

Elgeta. 3,030 kilo. Apirilaren 23a. Gurasoak: Oihana eta Argoitz. Argazkian, Intza amarekin.

**Helene Galindez Bragado**

3,320 kilo. Apirilaren 24a. Gurasoak: Jeanette eta Ibai. Argazkian, Helene gurasoekin.

**Nahia Zenitagoia Barroso**

Arrasate. 3,010 kilo. Apirilaren 25a. Gurasoak: Leire eta Ander. Argazkian, Nahia gurasoekin.

**Igotz Cantera Herrasti**

Aretxabaleta. 3,250 kilo. Apirilaren 30a. Gurasoak: Eneritz eta Oscar. Argazkian, Igotz amarekin.

**Aimar Akizu Zabala**

Aretxabaleta. 3,170 kilo. Apirilaren 25a. Gurasoak: Lorea eta Iker. Argazkian, Aimar amarekin.

**Eneko RodriguezAltube**

Oñati. 3,680 kilo. Apirilaren 30a. Gurasoak: Saioa eta Manu. Argazkian, Eneko gurasoekin.

**Naiara Nuñez Apiñaniz**

Arrasate. 3,600 kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Blanca eta Iñaki. Argazkian, Naiara gurasoekin.

**Ander Urteaga Korkostegi**

Oñati. 2,600 kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Olatz eta Aixibar. Argazkian, Ander gurasoekin.

**Bidart Aizkorbe Jauregi**

Antzuola. 3,410 kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Alaitz eta Iker. Argazkian, Bidart amarekin.

**Laia Albizu Urzelai**

Oñati. 3,620 kilo. Maiatzaren 2a. Gurasoak: Ione eta Eleder. Argazkian, Laia sehaskan lo.

**Julen Santiago Odriozola**

Bergara. 3,360 kilo. Maiatzaren 3a. Gurasoak: Mireia eta Oskar. Argazkian, Julen sehaskan lo.

BABESLEA

Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86



Jarraitu gaitzazu
Facebooken:
UME ARRASATE



FAMILIA
UGARIANTZAKO
%10eko
DESKONTUA

AI, ENE!

Burusoila? Bai, baina irribarre batekin

Tatuajeekin originala izatea ez da erraza. Nor bere buruaz barre egiteko prest dagoenarentzat, horra hor ideia bat.



www.sarda.es

AHOBERO

"Guztiok dakigu hobe delako argala izatea potoloa izatea baino"

NATALIA VODIANOVA | MODELOA

Modelo errusiarra ez zen horretan geratu. "Txerri batek bezala jaten badut, txerri sentituko naiz", gaineratu zuen. Alde guztietatik egurra jasotzen hastean, esandakoak azaldu behar izan ditu. Izan ere, kontua ez da argala edo potoloa izatea, osasuntsua baizik.

www.abc.es

EGURALDIA



Max. 21°

Min. 6°

Goizean hodeiak eta urdin-guneak tartekatuko dira eta arratsaldean bero-hodeiak.

euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-05-07

HAMARREKOA

Txus Jaio 36 urteko markinarrak bi aldiz irabazi du Espainiako lurreko rally txapelketa eta Munduko Txapelketan ere ibilitakoa da; egun, hura da gure errepideetako pilotu estimatuenetakoa. | TXOMIN MADINA

"Lasterketako autoan kopilotu noanean, beldurra pasatzen dut"

1. Gidabaimena 18rekin eta lehenengoan aterako zenuen, ezta?
Bai, urteak bete eta handik astebetetera. Teorikoa 16rekin ateratu nuen, eta ordurako praktikak ondo egin da neuzkan: astelehen baten 18 urte bete, eta hurrengo astelehenean gidabaimena neukan.

2. Ze autorena zen esku artean izan zenuen lehen bolantea?
Ez dut oso ondo oroitzen; Citroën Dyane 6 bat izango zen, etxean geneukan autoa. 5 urte inguru izango nituen, eta seguru aitaren altxoan izango zela...

3. Zer eman zizun Carlos Sainzek?
Haren eskutik Espainiako lasterketak korritzeko aukera izan nuen. Oso urte politak izan ziren, ilusio handikoak; gauza asko ikasi genituen, lagun piloak egin nituen eta oso oroitzapen onak ditut.

4. Zergatik ez da heldu Txus Jaio urrunago?
Horretarako gauza asko behar dira: kalitatea, babesle gogorra edo aita aberatsa, eta zortea. Hiruretako bat ere ez nuen; gauza bat da Espainiako txapelketarako kalitatea izatea, baina munduan aritzeko salto handia dago, eta, seguru jakingo ez dugun arren, ez dut uste horretarako mailarik nuenik.

5. Zein zirkuitu duzu gustuko?
Denek dute xarma; denetan daude gune politak eta horrenbestekoak ez direnak. Gustukoa izateko denetik izan behar du: gune azkarrak, motelak, asfalto ona eta txarra...



AGM

6. Akatsetatik bezala, istripue-tatik ere ikasi egiten da?
Gehiago ikasten da txarto egindakoetatik ondo egindakoetatik baino. Istripuen %90 gidariaren erruz dira. Istripua duzunean gertatutakoa analizatzen duzu, gertatutakoa ikusi, eta saiatzen zara hurrengoan hanka ez sartzen.

7. Auto batera igota kopilotu joan behar duzunean, eroso?

Ez zait gustatzen. Lasterketan inoiz ez naiz kopilotu joan, eta lasterketako autoan inoiz kopilotu joan naizenean ez dut ondo pasatu; konfiantza falta izango da, baina beldurra pasatzen dut. Errepide normalan, gidaria lasai badoa, berdin dit.

8. Nola sentitzen da bat euskal pilotu txalotu eta mirestuenetakoa izanda?

Pozgarria da; azkenean, gure lana ahalik eta ondoen egiten dugu, eta jendeak ulertu eta txalotu egiten bazaitu, horrek bete egiten nau.

9. Txalotua, mirestua... eta imitatua, esaterako, Finlandia-n.
Umerez hartu behar da. Ni neuhiko umoretsua naiz eta berdin dit imitatzeak; ondo imitatu nazatela eta listo! Ona da norberaren buruaz barre egitea.

10. Asteburuetan pilotu, astean zehar igeltsero.
Lasterketetan hasi aurretik naiz igeltsero, eta ondo daroat. Politagoa litzateke pilotu izatek bizi izatea, baina garai hauetan igeltsero moduan badut lana, eta ez nago keaxteko.

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Anaia bueltan ekarriko nuke"

"Erantzun erraza du galdera horrek: 20 urteko anaia bat hil zitzaidan duela hamahiru urte auto istripuan, eta horixe aldatuko nuke, bueltan ekarriko nuke".

BIHARAMUNA



MARKOS
BALENTZIAGA

Mehaztu, murriztu, moztu

Krisiari honetan jendeon atsekabeak ez du mugarik; hedabideek etengabe oroitarazten digute eguneguneko bizimoduaren nekeza, bizibidearen petrala, bizimartxaren gaiztoa.

Etsi behar eta ezinean ginen, ezustean, Nazioarteko Diru Funtz inefablea Adan eta Ebaren europar umeoi animoa hauspotzera etorri zaigunean, esanez, gizakiok luzeegi bizitzeko arriskua dagoela eta, jakina, ekonomiak hobe lukeela lehenago hilgo bagina! Harrapa ezak hori, Al Capone!

Eta Nazioarteko Diru Funtzak esana hain aintzat hartzekoa iruditua zaio Raxoiri, non Gobernuak erabaki estu-estuak hartzera behartu du, NDFk iradokitako bidean.

Gobernuak, ondorioz, gogoz ekin die era guztietako inausketari, eta jendearen bizitza-urteak sano-sano murrizteko, neurriak hartu ditu errezetan eta botika zenbaiten prezioa karbuz, ospitalean egotea kobratzeko asmoa iragarritz, paperik gabeko etorkinak abandonatzen lagaz, eta abar. Ongizatearen gizartea sendotzea irizten dio Ana Mato (ala, Mata da?) Osasun-ministroak erabaki-zerrenda horri.

Aingeru goardakoaren pomadak goarda gaitzala!

LURRINDEGI OSAN

Produktuak eta markak nahi duzun bezala konbinatu
Haurtxo-produktuak, barne-higienea eta parafarmazia izan ezik

2. ALEA

%70

EROSKI

Sannia

produktu GUZTIETAN

Hipermerkatuak

Musakola 11 ARRASATE • Tel.: 943 71 10 30

Jarraitu gaitzazu:

www.eroski.es